goiena
Zu hemen zaude.
2020-05-08 EGUBAKOITZA / 859. ZENBAKIA / 20. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

TABERNAK IREKITZEKO GERTATZEN, BI HILABETEZ ITXITA EGON OSTEAN

Komertzio txikiak hasi dira pixkanaka irekitzen eta astelehenean tabernetako terrazen txanda izango da, nahiz eta batzuk ez dituzten oraingoz zabalduko / 4

Beñat Zaitegi, Arrasateko Taupa tabernakoa, terrazako aulkiak prestatzen, astelehenera begira. XABIER URZELAI

Bizi izan duten esperientzia kontatu dute ospitaleko langileek

"Hasieran, kaos uneak bizi izan genituen, eta lan egiteko modua aldatu egin behar izan genuen" / 6

Debagoieneko Ospitaleko langileak. JAGOBA DOMINGO

"Nekagarria da egunero buletin ofizialari begira ibiltzea"

Aretxabaletako alkatea kexu da, sarritan herritarren kezkak ezin dituztelako argitu / 20

Unai Elkoro. ENEKO AZKARATE

Javier Igartua, Gurutze Gorriaren jardunaz berbetan

Argazkilaritza: adituengandik ikasteko aukera

SINADURAK

ANA CARPINTERO / 29
JOXEMARI MUXIKA ARRIETA / 10
IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ / 34
NEREA MAKAZAGA / 15
JOSU ZUBIA / 38
MIKEL ARROIABE / 22
MIKEL IRIZAR / 48

MULTIÓPTICAS
ZABALIK GAUDE
Gure optikak **segurtasun neurri guztiekin hornitu ditugu** debagoiendarren ikusmen beharrei erantzuna emateko.
Ohiko zerbitzu optikoak eskaintzen ditugu: graduazio optometrikoa, begiko tentsioa...

ASTELEHENA - LARUNBATA
09:30 - 13:00
Arratsaldeak: kontsultatu
Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Lehengo egunerokoaren zati bat berreskuratzen hasi dira jada herritarrak

Ondo bidean, astelehenean sartuko da Hego Euskal Herria konfinamendua arintzeko lehen fasean, eta asteon zabaldutako komertzioei beste hainbat gehituko zaizkie. Espainiako Kongresuak asteon onartu du alarma egoera hilaren 24ra arte luzatzea

Bailarako errepideek aspaldi ez moduko itxura hartu dute azken egunotan, herritar ugari atera dira-eta bizikletan ibiltzera. E.A.

Eneko Azurmendi ARRASATE

Prestakuntza fasearen ostean, Espainiako Kongresuak beharrezkoa zuen alarma egoera maiatzaren 24ra arte luzatzea, konfinamendua arintzeko faseekin jarraitzeko, eta, gorabehera handiekin bada ere, lortu du. Hein batean, EAJren babesari esker onartu da luzapena, oposizioko alderdi nagusia den PP abstenitu egin delako, baita EH Bildu ere. Babesaren truke, jeltzaleek hiru baldintza jarri dizkiote Gobernuari: koronabirusaren aurka hartu beharreko neurriak erkidego bakoitzarekin adostea, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak eragozpenik gabe egin ahal izatea eta Trebiñun gertutasun irizpideak izatea. EH Bilduk abstentzioaren alde egin du, ohartaraziz ezin dela herritarren osasunarekin jokatu.

Behin luzapena onartuta, autonomia erkidegoek txosten bat aurkeztu diote Espainiako Osasun Ministerioari, eta hark erabaki beharko du hurrengo fasera pasako diren ala ez. Ondo bidean, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa lehen fasean sartuko dira astelehenean.

LEHENENGO FASEA

TERRAZAK, HOTELAK ETA BEILATOKIAK IREKIKO DITUZTE ASTELEHENEAN

Lehenik, umeei eman zitzaien kalera irteteko aukera. Gero, helduei –esaterako, errepideak bizikletaz bete dira aspaldiko partez–. Astean zehar zenbait komertziok zabaldu dituzte ateak, segurtasun neurri guztiak hartuta eta bezeroek aurrez txanda eskatuta, betiere –ile-apaindegiak, arropa dendak, loradendak, paper-dendak, burdindegiak, liburu-dendak, eta abar–. Eta hainbat jatetxek etxera eramateko zerbitzua eskaini dute.

Horrez gain, garraio publikoan maskarak erabiltzea derrigorrezkoa da orain. Hori dela eta, besteak beste, Gurutze Gorria maskarak banatzen ibili da Arrasaten, esaterako.

Maiatzaren 11tik aurrera hasiko da lehen fasea, astelehenean. Hala, tabernek terrazak zabaldu ahal izango dituzte, betetze mailaren %50era. Horrez gain, hotelek eta ostatuek ere zabaltzeko aukera izango dute, erabiltzaileak elkartzeko gunerik gabe. Arrantzaleek eta nekazariek lan egin ahal izango dute eta elizkizunetarako eraikinak zabalduko dira, baina heren bat bakarrik betetzeko aukerarekin. Ikuskizun kulturalak ere baimenduko dituzte, muga batzuekin, baita beilatokiak edota museoak ere. Horrez gain, hamar lagun elkartu ahal izango dira kalean zein etxean, distantzia soziala zainduta.

Debagoieneko Mankomunitateak ere orain arte etenda izan dituen hainbat zerbitzu martxan jarriko ditu astelehenean: herriz herriko garbigune ibiltari zerbitzua; ehunki eta berrerabilgarrien bilketa zerbitzua eta traste zaharren bilketa zerbitzua. Arrasate, Bergara eta Oñatiko garbiguneak, bestalde, langile profesionalez gain herritar guztientzat irekiko dituzte.

TESTAK LANGILEEI

UDALTZAINEI ETA ETXEZ ETXEKO LANGILEEI TESTAK EGINGO DIZKIETE

Eudelek udalerrietako alkateei jakinarazi die COVID-19 gaitza atzemateko testak egingo dizkietela udaltzainei eta etxez etxeko laguntza zerbitzuko (EELZ) langileei. Probak egin ahal izateko, alkateen laguntza eskatu du Eudelek, udaltzaingo eta EELZ kolektiboetako langileak identifikatzeko datuak emanda, hain zuzen ere. Horretarako galdetegi bat bete eta Osasun Sailera bidali beharko dute, proben deialdia ahalik eta bizkorren antolatzeko. Udaltzainen datuak bidaltzeko epea maiatzaren 11n bukatuko da, eta EELZ langileen kasuan, maiatzaren 15ean. Testa borondatezkoa izango da, baina, emaitza positiboa izanez gero, ondoren PCR bidezko proba egin beharko dute.

LANGABEZIAK GORA EGIN DU

226 LANGABE GEHIAGO DAUDE APIRILEAN DEBAGOIENEAN

Koronabirusaren krisiak eragina izan du langabezia datuek apirilean utzitako zifretan. Hain zuzen ere, 13.507 herritar gehiagok eman dute azken hilabetean izena EAEko eta Nafarroako

Audientzia gora, publizitatea behera

Euskarazko toki komunikabideak oso audientzia datu onak lortzen ari dira krisia hasi zenetik. "Webguneko audientzia nabarmen igo da tokiko hedabideetan, baita Goienan ere. Tokikom-eko hedabide guztion trafikoa batuta %97ko igoera izan dugu iazko sasoi honetako datuekin alderatuz. Hau da, bisitak bikoiztu egin dira. Krisi aurreko audientziekin alderatuz, berriz, %60tik gora hazi da audientzia", adierazi du Jone Guenetxeak, Tokikomeko presidenteak.

Datu horiek "ondo egindako lanaren" adierazgarri direla gaineratu du. "Tokikook argi erakutsi dugu funtzio sozial garrantzitsua betetzen dugula gure komunitateari informazio fidagarria helaraziz".

Ekonomikoki, galerak

Txanponaren ifrentzua da toki komunikabideen fakturazioa %72 murriztuko dela alarma egoeraren eraginez. Guenetxeak azaldu duenez, abuztura bitartean 2.532.720 euroko galera izango dutela aurreikusten dute. "Herritarrak geroago eta informazio gehiago kontsumitzen ari diren sasoian, diru-iturri propioak inoiz baino gehiago murriztu zaizkigu".

Publizitatean "kolpe handia"

Guenetxeak dio publizitatean "kolpe handia" jaso dutela tokiko hedabideek. "Publizitate aldetik tokiko hedabideok tokiko komertzioekin lotura estua dugu. Publizitate eta zerbitzu salmentak minimoetara jaitsi dira egun batetik bestera. Tokikomeko bazkide diren 25 entitateok aurreikuspen bateratu bat egin dugu. Horren arabera, tokiko komunikabideon fakturazioa %72 murriztu da; kasu batzuetan, %80ra ere bai".

Etorkizun hurbilarekiko ez da oso baikor azaldu. "Halere, egoera zailak gainditu ditugun moduan, honi ere elkarlanean aurre egingo diogu".

Dirulaguntzetan ez dute jaitsierarik espero, ez udaletatik ez goragoko erakundeetatik, esentzialtasuna demostratua geratu baita eta hedabideek ez baitute produkzioa murriztu, baizik eta handitu.

enplegu zerbitzu publikoetan eta guztira 179.085 pertsona daude lanik gabe Hego Euskal Herrian. Debagoienean, azken hilabetean, 226 lagunek galdu dute lanpostua. 2.870 lagun daude lan gabe momentu honetan eta eskualdeko langabezia tasa %9,2an dago.

Azken hilabetean langabeziak Hego Euskal Herriko lurralde guztietan egin du gora: %9,12 Araban; % 9,04 Gipuzkoan; %7,42 Bizkaian; eta %8,23 Nafarroan.

Iazko apirilean baino 30.860 pertsona gehiago daude langabezian Hego Euskal Herrian, eta bailaran, berriz, 2.417 lagun zeuden langabezian iazko apirilean, egun baino 453 gutxiago.

SALAKETAK ESKUALDEAN

177 SALAKETA JARRI DITU ORAIN ARTE ERTZAINTZAK ALARMA EGOERAN

Martxoaren 15az geroztik, 177 salaketa jarri ditu Ertzaintzak Debagoienean. Herriz herri aztertuta, Arrasaten 67 dira jarritako salaketak; Bergaran, 55; Aretxabaletan, 22; Oñatin, hamasei; Elgetan, bederatzi; Leintz Gatzagan, lau; Eskoriatzan, hiru; Antzuolan, bat; eta Aramaion, bat bera ere ez.

Horrez gain, Ertzaintzak jakinarazi duenez, kirola egiteko jarritako neurriak ez errespetatzeagatik ez dute salaketa bakar bat ere ipini aste honetan. "Nahiko fin dabil jendea, orokorrean. Honen harira, gertaera oso nabaria ez bada, jendea ohartarazten eta neurriak gogorarazten ari gara, horretan datza gure gaur egungo zaineta lana", nabarmendu du.

KORONABIRUSA DEBAGOIENEAN

GORANZKO JOERA HARTZEN ARI DA BERRIRO KUTSATU BERRIEN KOPURUA

Eguaztenean hamar kasu positibo baieztatu zituzten bailaran eta eguenean beste hamar, eta guztira 413 kasu positibo erregistratu dira dagoeneko.

Hego Euskal Herrian 581 positibo berri atzeman dituzte eta 24.030 dira guztira –%70 inguru sendatu dira dagoeneko–. Hildakoak 1.863 dira orain arte.

Adinekoen egoitzei erreparatuta, eguaztenera arte, Iturbiden 24 egoiliar hil dira, 43 sendatu, eta 14 egoiliarrek jarraitzen dute positiboarekin. GSR Debagoienan, 20 egoiliarrek positibo eman dute eta bost hil dira. Jose Aranan, azkenik, positibo bat dago eta beste bat sendatu da.

300.000 MASKARA BERRI

UDALEI EMANDAKO MASKARAK ORDEZKATU EGINGO DITU EUDELEK

EAEko 252 udalerrietan banatzeko 300.000 babesgarri emango ditu Euskadiko Udalen Elkarteak. Hasierakoak ordezkatu egingo ditu, ordea, arazoren bat zeukatela eta. Hala, aste honetan udalei sorta berri bat banatuko die osorik, udalerrietan "ahalik eta lasterren" banatu ahal izateko, "haien lehentasunen arabera".

Gorka Urtaran Eudeleko presidenteak azaldu du maskara hauek "gehien behar direnean" iritsiko dira udalerrietara. "Normaltasunera apurka itzultzean, beharrezkoa da maskarak erabiltzea garraioan, lantokietan, merkatuetako eta komertzio- eta ostalaritza-establezimenduetako sarbideetan, eta abar". Populazioaren arabera banatuko dituzte. Arabako udalek 43.750 maskara jasoko dituzte, Bizkaikoek 145.000 eta Gipuzkoakoek 107.000.

Bestalde, Eroskik 10.000 maskara eman dizkio hainbat zaharren egoitza kudeatzen dituen GSR kooperatibari, eta entrega Aretxabaletako Debagoiena GSR egoitzan egin dute asteon. Donazio honen helburua da "produktu horren eskasia eta premia" arintzea egoitzetan.

Kutsatuak Debagoienean

	Positiboak	100.000 biztanleko kutsatze tasa
Arrasate	**241**	1.094,5
Bergara	**53**	363,11
Aretxabaleta	**49**	701,30
Oñati	**48**	423,47
Eskoriatza	**13**	318,08
Antzuola	**4**	187,26
Elgeta	**3**	264,32
Aramaio	**2**	134,86
Gatzaga	**0**	000,00
Guztira	**413**	645,21

ITURRIA: OSAKIDETZA

EUSKAL HERRI MAILAKO BINGOA

AUZOKO BINGO BATERATUA EGINGO DUTE HILAREN 13AN HAINBAT HERRITAN

Konfinamenduan modan jarri den jolasetako bat da izan da bingoa. Orain, bingo bateratua egingo dute, Donostiako, Gasteizko, Arrasateko, Eskoriatzako, Soraluzeko eta Ibarrako Auzoko programek antolatuta eta Oñatiko Euskaltzaleen Topaguneak sustatuta. 17:00etan izango da hitzordua, eta *Meet* aplikazioaren bitartez egingo dute. Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak babestu dute ekimena.

Lanean hasiak dira komertzioak; tabernak izango dira hurrena

Konfinamendua arintzeko planaren baitan, mugekin lanean hasiak dira Debagoieneko komertzio txiki eta negozioak. Dena ondo bidean, astelehenean tabernetako terrazak irekitzeko aukera izango dute zenbaitek; baina itxaron egingo duenik ere badago

Beñat Zaitegi tabernaria, Taupa tabernako terraza prestatzen. XABI URZELAI

Maialen Santos DEBAGOIENA

Espainiako presidente Pedro Sanchezek joan den astean eman zuen konfinamendua arintzeko planaren berri, "normaltasun berrirako" bidea egiten hastea helburu. Hala, asteon, maiatzaren 4an eman diote hasiera prestaketa faseari –0. fasea–.

Hasierako fase honetan, besteak beste, komertzio txiki eta negozioek izan dute irekitzeko aukera, mugekin izan bada ere. Gauzak horrela, aste honetan bezeroei arreta indibiduala eskaintzen dihardute bailarako zenbait komertziok. Oñatiko Chic arropa dendan, esaterako, hasi dira lanean. Dendako arduradun Irma Juaristik GOIENAri azaldu dio komertzioetan "gogor" jo duela koronabirusaren krisiak, baina "gogotsu" itzuli direla lanera. Hain justu, astelehenean zabaldu zituen ateak, eta, berak aitortu moduan, normaltasun berrira bueltan "bezeroen erantzunak" kezkatzen zuen gehien. Hala eta guztiz ere, erantzuna "ezin hobea" izaten ari da, momentuz. Lan egiteko moduari dagokionez, bezeroei banaka ematen die arreta Juaristik, "aurrez telefonoz txanda hartuta". Eta batez beste hiru ordu laurdeneko tartea egiten du bezero bakoitzarekin. "Segurtasun neurri guztiak errespetatze aldera", bezeroek probatutako arropa guztiak desinfektatu egiten ditu, plantxa bertikal bat erabilita. Arrasateko Sikol Lentzeria dendan antzera ari dira lanean, bertako arduradun Yolanda Sanchezen hitzetan: "Bezeroak banaka sartzen dira dendara. Maskara jarri behar dute, eta sartu ahalaz bat eskuak desinfektatzeko eskatzen diegu".

Ordainketei dagokienez, "aurrezki eta maileguak" erabili behar izan dituela azaldu du Juaristik. Sanchezek, berriz, dio zenbait hornitzailek ordaintzeko epeak luzatu dizkiotela.

Arropa dendak ez ezik, bestelako komertzioak ere zabaldu dituzte asteon. Oñatiko IO ile-apaindegia itxita egon bitartean 80 laguneko itxarote-zerrenda bete du bertako arduradun Izaskun Olabek, eta lanean hasita dago jada. Arrasateko Muxibar jatetxea ere itxita egon da azken asteetan; halere, janaria etxeetara eramaten aritu dira, "gainkosturik gabe". Osasun arloko langileei zein krisian laguntzen aritu direnei "keinu" egite aldera, "prezio bereziak" egin dizkietela ere azaldu du. Aste honetatik aurrera, etxera eramateko janaria jatetxean jaso daiteke.

Gomendioak bezeroei Interneten

Bergarako Felsinee fisioterapia zentroa bi hilabetez izan dute itxita, baina gutxieneko batzuk etxetik egin dituzte, Saioa Etxabarri arduradunak dioenez: "Gomendioak eman dizkiegu bezeroei, eta urgentziazko kasuak artatu ditugu". Egunotan, urgentziak bakarrik ari dira artatzen. "Zerbait beharrez gero, telefonoz deitu zentrora", dio.

Txapime auto kontzesionarioan ere maiatzaren 4an itzuli ziren lanera; ordura arte, "beharrezko zerbitzuak" soilik eman dituzte. Egunotan, aurretik egindako "itxarote-zerrendari segika" aritu dira lanean, Mikel Loiti arduradunak GOIENAri azaldu dionez.

Izaskun Olabe, IO Ile-apaindegiko arduraduna.

80 laguneko itxarote-zerrenda

Konfinamenduko lehen astea "gogorra" izan zela dio Izaskun Olabek, Oñatiko IO Ile-apaindegiko arduradunak. Halere, gerora "denbora aprobetxatzen" jakin duela uste du; ile-apaindegia itxita eduki bitartean tutorialak egiten aritu da sare sozialen bitartez, eta online formakuntza egiteko ere aprobetxatu du.

Maiatzaren 4az geroztik bezeroei arreta pertsonalizatua eskaintzen ari da Olabe, bezeroekin bakarka ari baita lanean. Hala eta guztiz ere, ile-apaindegiko materiala desinfektatzeko zenbait neurri hartu dituztela azaldu du: "Bezerotik bezerora hamabost minutu hartzen ditugu tresnak desinfektatzeko". Hori gutxi balitz, gauetan ozono makina batekin lokal guztia desinfektatzen dute. Pixkanaka martxan hasita dago, eta dio 80 pertsonako itxarote-zerrenda duela orain, "maiatzeko hiru asterako adina lan".

Aitor Bengoa, Muxibar jatetxeko langilea.

"Prezio bereziak" osasun langileei

Konfinamendua hasi zenetik "ahal moduan" moldatu direla dio Aitor Bengoa Arrasateko Muxibar jatetxeko langileak. Jatetxea itxita eduki dute, baina otorduak etxeetara eramateko aukera zabalik izan dute, "gainkosturik gabe". Gainera, osasun langileei edota koronabirusaren krisian laguntzen aritu direnei "prezio bereziak" egin dizkietela aitortu dio Bengoak GOIENAri, "keinu gisara". Halere, azaldu du jatetxeko langile batzuk ERTEan daudela, eta jaso dutela soldata. Bestalde, arduratuta dago Bengoa: "Ez dakigu laguntza ekonomikorik iritsiko zaigun, ezta zein eratara ere". Maiatzaren 4tik aurrera "beste aurrerapauso bat" eman dute Muxibarren; izan ere, bertara ere joan daiteke janari bila: "Bezeroak ezin dira tabernara sartu; beraz, gunetxo bat jarri dugu taberna kanpoan, bezeroei eskariak banatzeko".

Astelehenean, terrazak ere bai

Dena ondo bidean, datorren astelehenean, hilak 11, ekingo diote konfinamendua arintzeko hurrengo faseari, 1. faseari; eta tabernari batzuek lanera itzultzeko aukera izango dute. Tabernetako terrazetan eman beharko dute arreta, ezinbestean, eta edukiera %50era mugatuta egongo da. Bailarako tabernari batzuek zabalduko dituzte terrazak, eta beste batzuek oraindik ez dute aukera hori izango.

Arrasateko Taupa tabernak, esaterako, astelehenean bertan zabalduko dizkie ateak bezeroei, Beñat Zaitegi tabernariak GOIENAri azaldu dionez. Arrasateko Udalak, ahal den kasuetan, terraza bakoitzak duen espazioaren bikoitza erabiltzea baimenduko du, eta, "horri esker", Zaitegik hamabi mahai inguru jarriko dituela aurreikusten du. Lan egiteko moduari dagokionez, zera dio: "Zerbitzari guztiak itzuliko gara lanera; gutako bat barran egongo da, eta beste bat edo bi kanpoan zerbitzatzen". Tabernariak uste du zabaltzeko aukera "aprobetxatu" egin behar duela, eta, hori gutxi balitz, dio bezeroei arreta emateko "gogoz" dagoela. Edozelan ere, pazientzia izan dezatela eskatu gurako lieke bezeroei: "Langileontzat berria da egoera, eta nahiko nuke bezeroek hori ulertzea". Izan ere, bezeroen "erantzunak" kezkatu egiten du Zaitegi. Aretxabaletako Orly tabernako terraza ere zabalik egongo da datorren astetik aurrera. Oraindik "zehaztapen guztiak" ezagutzeko esperoan dago Igor Ezkibel arduraduna; izan ere, uste du "zenbait arlo" ez daudela argi. Oraindik ez daki, beraz, zenbatentzako lekua izango duen terrazan, eta dio Aretxabaletako Udala "ahalegin bat" egiten ari dela, terrazako ezaugarriek uzten duten heinean, espazio gehiago hartu dezaten uzteko: "Pentsatzen dut datozen egunetan zehaztuko didatela noraino jarri ditzakedan mahaiak". Edozelan ere, mahaitik mahaira bi metroko distantzia utzi beharko dituela badaki. Langileei dagokienez, une honetan bera da langile bakarra, eta hala moldatu beharko dela azaldu du, neurriak hartuta.

Oñatiko Josu Aiastuik hiru taberna kudeatzen ditu egun, baina oraindik ez du "erabakirik hartu"; izan ere, zenbait faktore hartu beharko ditu kontuan: "Pako taberna badakit ezingo dudala zabaldu, ez baitaukat terrazarik. Beste bien kasuan, ez dakit zer egingo dudan". Edozelan ere, "nahiko argi" du tabernak zabalduko balitu, astelehena pasata izango litzatekeela, "baina datorren asteko eguraldi iragapenak ez du laguntzen", aitortu du. Uste du eguraldiak "eragin handia" duela terrazetan, eta euriak "kalte" egin dezake.

Ez dute zabalduko

Bergarako Depor eta Pol Pol tabernak ez dituzte zabalduko. Hala azaldu dute bertako arduradunek –Txus Iglesias eta Duni Olabarria, hurrenez hurren–. Deporren kasuan, taberna eta terraza elkarren artean banatuta daude, eta, beraz, ezingo luke "egoki lan egin". Horretaz gain, tabernaren edukiera kontuan hartuta, dio ezingo lukeela "probetxurik atera". Olabarriaren arazoa antzekoa da: "Terrazaren edukiera murriztuta dagoenez, lauzpabost mahai bakarrik jarri ahalko nituzke; beraz, ez du merezi taberna zabaltzea". Hori gutxi balitz, taberna barruko komuna premia handia dutenek soilik erabili ahal izango dute kasu guztietan, eta, hortaz, bezero batetik bestera desinfektatu egin beharko dute derrigor. Horren harira, Bergarako Udalari zera esan gurako lioke: "Hemen ondoko komun publikoak itxita daude, momentuz; agian, lehenengo, horiek ireki beharko lituzkete; eta gero, tabernakoa".

Yolanda Sanchez, Sikol Lentzeria dendako arduraduna.

Arropak lurrunarekin desinfektatu

Arrasateko Sikol Lentzeria dendako arduraduna, Yolanda Sanchez, egoera "ezin sinetsita" dago oraindik, baina dio batez ere alarma egoerako lehen asteak "ziurgabetasun handiz" bizi izan dituela.

Maiatzaren 4an, asteon, izan du negozioa zabaltzeko aukera, "behin denda guztia goitik behera desinfektatu eta gero". Egun hauetan bezeroekin bakarka ari da lanean, segurtasun neurri guztiak hartuta: "Sartu ahalaz bat eskuak desinfektatzeko eskatzen diegu bezeroei, eta maskara erabili behar dutela gogora ekarri". Arropari dagokionez, bezeroek probatu ostean bi egunez aparte uzten ditu, lurrunarekin desinfektatu arte.

Ordainketei dagokienez, dio hornitzaileen laguntza jaso duela: "Zenbaitek ordainketak geroago ordaintzen utzi didate, eta hori eskertzekoa da", azaldu du Sanchezek.

Okerrena pasata, arnasa hartzen hasiak dira osasun arloko langileak

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zenbait langilerekin izan da GOIENA, koronabirusaren krisiari aurre egiteko nola antolatu diren, ezohiko egoera lehen lerroan nola bizi duten eta izandako bizipenen berri jasotzeko helburuarekin

Maialen Santos DEBAGOIENA

Koronabirusaren krisiak gogor lan egitera behartu ditu EAEko osasun arloko langileak; tartean, Debagoieneko Ospitalekoak. Izan ere, azken asteetan Arrasaten ere artatu dituzte COVID-19an positibo ziren gaixoak. Hala eta guztiz ere, martxo hasieratik gaur arte egoera "progresiboki hobetuz" joan da Debagoieneko Ospitalean; eta zehazki, apirilaren 27az geroztik "ospitale garbia" dela eman zuen aditzera joan den astean Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Federico Melgosa bertako larrialdietako mediku eta zerbitzuburuak azaldu duenez, ospitale garbia izateak ez du esan gura gaitza duen pazienterik artatzen ez dutenik, koronabirusagatik ingresatutako gaixorik bertan ez dagoela baizik: "Larrialdietara etortzen dira sintomak dituzten pazienteak, baina ez ditugu hemen ingresatzen. Ospitale handiagoetara bideratzen ditugu; gehienetan, Gasteizko Txagorritxura".

Debagoieneko osasun langileek oro har "aste gogorrak" pasa dituztela aitortu diote GOIENAri, euren bizipenen eta egindako lanaren berri jasotzeko egindako elkarrizketan.

Zailena, berrantolaketa

Langileak bat datoz: zailtasunik handienak ospitalea berrantolatzeko orduan izan dituzte. Barne-medikuntzako erizain gainbegiralea da Miren Ezenarro, eta dio antolaketan egin behar izan zutela lanik sakonena: "Koronabirusaren krisia iritsi bezain pronto hasi ginen ospitalea egokitzen: alde batetik, kutsatutako pazienteak jartzen; eta, bestetik, kutsatu gabekoak. Garrantzitsua zen bi gune horiek ondo bereiztea". Gaineratu duenez, egoera "aldatuz" zihoan egunetik egunera, eta, beraz, protokoloak ere bai. Solairua egokitzeaz gain, langileak kudeatzen ere aritu da Ezenarro: "Pertsona bakoitzari nola lan egin behar den jakinarazten, prebentzio neurriak zeintzuk izan behar ziren esaten, protokoloen jarraipena egiten...". Naiara Agiriano barne-medikuntzako erizaina ere buru-belarri aritu da lanean, eta, bere hitzetan, "egoera berrira ohitzea" kosta zitzaion gehien: "Hasieran, kaos momentuak bizi izan genituen, lan egiteko modua guztiz aldatu behar izan baikenuen. Hori gutxi balitz, eguneroko beharretara egokituz joan behar genuen". Nabarmendu gura izan du koronabirusa espero gabe iritsi dela, eta, beraz, inor ez zegoela prest egoera honi aurre egiteko. Hala eta guztiz ere, uste du gogor lan eginda "egoera kontrolatzea" lortu dutela.

Ospitaleratzeak ez ezik, larrialdien unitatea ere "goitik behera" aldatu behar izan dute denbora honetan guztian. Bertako zerbitzuburu Melgosak aitortu du egunero edo ia egunero aldatu behar izan dutela larrialdien unitatea, azkenerako, bi gune bereizi zituzten arte: "Bata, koronabirusa izan zezaketen susmagarri zirenentzat; eta bestea, beste edozein larrialdirengatik zetozenentzat. Helburua kutsatzeak ekiditea izan da, momentu oro". Hori gutxi balitz, dio kontuan hartu behar dela susmagarri izatearen definizioa "aldatuz" joan dela.

Ospitaleko gainontzeko zerbitzuek ere izan dituzte aldaketak azken boladan. Zerbitzu Orokorretako arduradun Igone Herizek azaldu du garbitasuna eta hondakinen kudeaketa berrantolatu egin behar izan dituztela. "Lehen ere, garbitasun zerbitzuan buru-belarri egiten genuen lan, baina azken asteetan denbora gehiago eman dugu ospitalea garbitzen". Bestalde, arropa zuria delakoen garbiketak ere areagotu dituzte; esaterako, oheetako izarak "sarriago" garbitzen dituzte orain: "Batzuetan, egunean birritan aldatu ditugu". Azkenik, hondakinen bilketak ere gora egin du, Herizen hitzetan: "Hondakin askoz gehiago sortzen dira orain; gutxi gorabehera, eguneko 50 ontzi ateratzen ditugu, beteta".

Berrantolaketaren barruan, ospitalea utzi eta beste nonbaitera laguntzera joan behar izan duenik ere bada. Juan Jose Mujika ibilbide luzeko lehen mailako medikua da, eta gaitzaren eraginez Arrasateko Iturbide adinekoen egoitzan eman ditu azken asteak, "bertan laguntza behar zutelako". Egoitzan ere beharretara egokituz joan behar izan dute, eta, horri lotuta, emaitzak lortuz joan dira pixkanaka. "Martxo hasierako argazkiak ez du zerikusirik egungo egoerarekin", aitortu dio GOIENAri.

Osasun zentroetako lan-jarduna ere "ez da batere erraza izan", Oñatiko Osasun etxean erizain arduradun Kizkitza Alustizaren ustez. Bertan ere egokitu dute COVID-19 gaitza artatzeko gune bat, eta, beraz, langileak ere berrantolatu egin dituzte. Etxeetara ere "dezente" joan dira azkenaldian, eta telefono bidezko arreta ere "izugarri hazi da" azken asteetan, Alustizak azaldu duenez.

Telefono bidezko arreta bermatuta egon zedin lazken asteetan lanean aritu denetako bat da Carmen Jimenez, Debagoieneko Ospitaleko Bezeroaren Arreta Guneko arduraduna. Protokoloak martxan jartzen taldearekin elkarlanean aritu da, lehen mailako arreta ematen jarraitzea helburu; eta, besteak beste, *call center*-a jarri dute martxan. "Bezeroei telefono bidezko arreta une oro eman ahal izateko sortu dugu, euren beharrak asetze aldera", argitu du. Izan ere, ospitaleko bisita guztiak murriztu egin dira –bai pazienteekikoak, baita kontsultetakoak ere–, eta, arrazoi horregatik, telefono bidezko arretak "inoiz baino garrantzi handiagoa" hartu duela uste du. Azken asteetan, baina, egoera "normalizatzeko" bidean doaz, eta zenbait zerbitzu errekuperatu dituzte; kirurgiak, esaterako.

Pazienteen lasaigarri

Osasun langileak eurak babesteko edota lan egiteko eskura izandako materialari buruz galdetuta, Debagoieneko Ospitaleko langileek uste dute orokorrean material faltarik ez dutela izan. Iñaki Peña bertako barne-medikuak azaldu du salbuespenak salbuespen material "nahikoa" izan dutela, eta hori ez dela izan orain artean izandako arazorik handiena. "Beste ospitale batzuekin alderatuta, hemengo egoera ez da hain gordina izan", dio. Are gehiago, ospitale handiagoetan "sekulako arazoak" izan dituzte, eta Arrasaten ere izan dituzte, zeharka bada ere: "Zainketa berezietako unitaterik ez dugu Debagoieneko Ospitalean, eta, beraz, horiek behar dituzten pazienteak Txagorritxura bideratzen ditugu, normalean, hori baita gure lotura naturala". Ezohiko egoeraren eraginez, baina, Txagorritxu "zenbait astetan gainezka" egon da, eta, horrenbestez, ezin izan dituzte pazienteak bertara bideratu. Ate horiek "itxita" izateak bereziki kezkatu du Peña, baina "okerrena pasata" egoera hobetu egin da, eta Gasteizko lotura hori berreskuratu dute jada.

Arrasaten ingresatuta egon direnak ahalik eta ondoen egon zitezen saiatu dira, gainera, eta tratua "ahal bezain hurbilekoa" izan dela dio barne-medikuak: "Gaixo terminalekin lan egitera ohituta nago, eta besarkada edota musuak ematen dizkiet sarri, askok behar izan dituztelako.

"OSPITALEA BERRANTOLATU BEHAR IZAN GENUEN, KUTSATUAK ETA GAINONTZEKOAK ONDO BEREIZITA EGON ZITEZEN"

MIREN EZENARRO
DEBAGOIENEKO OSPITALEKO BARNE-MEDIKUNTZAKO ERIZAIN GAINBEGIRALEA

"ESKER MEZUAK ONDO DAUDE, BAINA LANGILE MODUAN GURE BETEBEHARRA DA KORONABIRUSARI AURRE EGITEA; BETI EGITEN DUGUNEZ"

NAIARA AGIRIANO
DEBAGOIENEKO OSPITALEKO BARNE-MEDIKUNTZAKO ERIZAINA

"KONTAKTUA MURRITZA BAZEN ERE, GAIXOEKIN IZAN DUGUN TRATUA AHALIK ETA HURBILEKOENA IZATEN SAIATU GARA"

IÑAKI PEÑA
DEBAGOIENEKO OSPITALEKO BARNE-MEDIKUNTZAKO MEDIKUA

"ITURBIDEN HILDAKOEN FAMILIEK OSASUN LANGILEEI ZUZENDUTAKO MEZUAK JARRI DITUZTE ESKELETAN. HUNKIGARRIA DA"

JUAN JOSE MUJIKA
ARRASATEKO ITURBIDE EGOITZAN ARITU DEN LEHEN MAILAKO MEDIKUA

Debagoieneko Ospitaleko osasun langileak, babes neurri guztiak hartuta, lanean. JAGOBA DOMINGO

Ahalik eta kontaktu gutxien izan behar genuen pazienteekin, eta tratua hotzagoa izatea ekarri du horrek". Hori gutxi balitz, Miren Ezenarrok azaldu du "babes neurri guztiak" jarrita artatu dituztela gaixoak, eta horrek ekarri du praktikoki "ahotsaren bitartez soilik" komunikatu behar izatea. Hala ere, Naiara Agirianok azaldu du egunero hartzen zutela "tartetxo bat" gaixoekin hitz egiteko: "Eta, behar izanez gero, eskua ere ematen genien".

Pazienteekin ez ezik, senideekin harremanetan egoteaz ere arduratu dira osasun langileak. Melgosaren iritziz, "gogorra" izan da gaixoari jakinaraztea egun batzuetan "guztiz bakarrik" egon beharko zuela, senideekin inolako harreman fisikorik izan gabe. Egoera hau arintze aldera, baina, erizainak arduratu dira gaixoak familiakoekin harremanetan jartzen. "Deiak edo bideo-deiak egin ditugu sarri", azaldu du Ezenarrok.

Esker mezuekin eskertuta

Senideen jarrerarekin "oso eskertuta" azaldu da Iturbiden aritu den Juan Jose Mujika medikua, eta dio une oro "oso ona" izan dela senideekin izandako tratua. Horren harira, senideen esker onean jarri gura izan du fokua: "Iturbideko egoera gogorraren jakitun izan dira, eta, hala eta guztiz ere, bertako langileek egindako lana baloratzen jakin dute". Hori gutxi balitz, hildakoen senideek egindako "keinua" nabarmendu gura izan du: "Zoritxarrez, zaharren egoitzan dezente hil dira. Eskeletan osasun langileei zuzendutako esker mezuak irakurri ditugu, eta horrek izugarri hunkitu nau". Senideen jarrera ez ezik, mediku gazteena ere goraipatu gura izan du. "Nora Urbieta eta Ihara Varilla, besteak beste, mediku egoiliarrak dira. Inork ez die agindu laguntzera etortzeko, eta, ikasketak amaitu berri, euren kabuz etorri dira ahal izan dutenean laguntzera. Eskertuta behar dugu egon", azpimarratu du.

Azken asteetan asko izan dira osasun arloko langileek jasotako elkartasun mezuak, eta "eskertuta" hartu dituztela azaldu diote GOIENAri. Kizkitza Alustizak, adibidez, egunero hitz egiten du lagunekin, eta "babestuta" sentitzen dela aitortu du. Iluntzeko zortzietan osasun langileen lana eskertzeko jotzen diren txaloei dagokienez, "gustura" hartzen dituztela azaldu dute gehienek. Iñaki Peñak dio sarritan txaloek "lanpetuta" harrapatu dutela, eta horiek entzuteak lanean jarraitzeko indarra eman diotela. Naiara Agirianoren ustez, langileen lana "errekonozitzea" ondo dago, baina dio bere "betebeharra" dela koronabirusaren krisiari aurre egitea, "beste edozein birusekin" egin ohi duten modu berean.

Etorkizunerako irakaspena

Osasun langileak ados daude koronabirusak "espero gabe" harrapatu dituela esateko orduan. Eta hori, hein batean, "ezjakintasunari" lotuta dagoela uste dute: "Martxo hasieran, ez genuen espero krisiak horrelako hedapena izan zezakeenik, eta, beraz, logikoa da osasun arloa prestatuta ez harrapatu izana". Miren Ezenarroren aburuz ere, "zaila" izan da hori: "Lanetik irteten ginen, hurrengo egunean zer geratuko zen jakin gabe. Ziurtasunik ezarekin lan egitea itzela izan da". Hala ere, askok diote koronabirusaren krisia ez dela izan bizitza profesionalean jasandako okerrena. Juan Jose Mujika lehen mailako medikuak atentatuetako biktimak artatu izan ditu noiz edo noiz, eta egoera hori "ondo gogoan" du, "benetan gordina" izan zela aitortu du eta. Oñatiko osasun etxeko erizain arduradunak, Alustizak, dio trafiko istripuetako biktimak artatu izan dituela, eta maila horretako biktimekin lan egitea ere ez dela "erosoa" izaten. Guztiek ere argi dute etorkizunean beste agerraldi edo brote bat egongo balitz "askoz ere gertatuago" harrapatuko gintuela –osasun arloko langileak, baita gizartea ere–. Hala eta guztiz ere, argi dute koronabirusaren krisia oraindik ez dela bukatu, eta uste dute "arduraz eta erantzukizunez" jokatzen jarraitu behar duela gizarteak.

Datorren eguaztenean, maiatzaren 13an, izango da osasun langileekin egindako erreportajea osorik ikusteko aukera: 21:00etan, Goiena telebistan.

"LARRIALDIETAN EGOKITUZ JOAN GARA, BI UNITATE SORTU ARTE: POSITIBO SUSMAGARRIENTZAT ETA GAINONTZEKO LARRIALDIENTZAT"

FEDERICO MELGOSA
DEBAGOIENEKO OSPITALEKO LARRIALDIETAKO MEDIKUA ETA ZERBITZUBURUA

"LANGILEAK BERRANTOLATU DITUGU; ETXEETARA GEHIAGO JOAN GARA, ETA TELEFONO BIDEZKO ARRETA IZUGARRI HAZI DA"

KIZKITZA ALUSTIZA
OÑATIKO OSASUN ZENTROKO ERIZAIN ARDURADUNA

"OSPITALEKO GARBITASUNA ZEHATZ-MEHATZ ZAINDU DUGU. HONDAKIN KOPURUA ERE IZUGARRI HANDIA IZAN DA"

IGONE HERIZ
DEBAGOIENEKO OSPITALEKO ZERBITZU OROKORRETAKO ARDURADUNA

"TELEFONO BIDEZKO ARRETA BERMATUTA EGON ZEDIN ARITU GARA LANEAN. 'CALL CENTER'-A SORTU DUGU, UNE ORO ARRETA EMATEKO"



CARMEN JIMENEZ
DEBAGOIENEKO OSPITALEKO BEZEROAREN ARRETA GUNEKO ARDURADUNA

"Azken agurrik ez izatea bereziki gogorra izan da"

AITZIBER OJANGUREN OJANGUREN EHORZTETXEKO ARDURADUNA

Egoera berrira moldatzeko eta material faltak eragindako zailtasunez harago, senideak azken unera arte "eskua ematen" ezin egotea izan da familientzat zailena

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Alarma egoera ezarri zenetik neurri zorrotzak hartu dira hileta zerbitzuei dagokienez. Martxoaren 14an, Jaurlaritzak meza eta hileta elizkizun guztiak debekatu zituen; martxoaren 23an, beilatokiak ixteko agindua eman zuten; eta, apirilaren 6tik aurrera, koronabirusaren ondorioz hildako pertsonen familiak eta hurbilekoak ezin izan dira lurperatzera edo errausteetara joan. Bizi duten egoeraren berri eman du Aitziber Ojangurenek, Ojanguren ehorztetxeko arduradunak.

Nolakoa izan da larrialdi egoera honetan lan egitea?

Hasieran, zaila izan zen, material asko falta zen eta ezjakintasuna ere bazegoen. Neurri berrietara moldatu behar izan genuen. Koronabirusaren ondorioz hildako pertsonak zorro berezietan sartu behar dituzte erizainek eta zorro horiek ehorztetxeok eraman behar ditugu. Material hori guztiori eta babeserako tresnak eskuratzea zaila zen hasieran, interbenituta zeuden hornitzaileak eta ia ezinezkoa zen lortzea. Arazoa orokorra izan dela uste dut, ez soilik hileta zerbitzuetan.

Neurri berezietara moldatu beharra aipatzen duzu; zeintzuk izan dira?

Espainiako Gobernutik esandakoak jarraitzen ibili gara une oro, aldaketa ugari egon dira neurrietan eta egokitzen joan behar izan dugu. Esaterako, hasiera batean, familiako hiru kide joan ahal zirela errausteGira edo ehorztera, baina gero, aldatzen joan dira gauzak eta neurriak zorroztu dituzte. Prozesuari dagokionez, bai ospitalean bai adindunen egoitzetan abisua eman eta gu bertara joaten gara. Koronabirusak kutsatuta hil bada, gu bertara joan eta gorpua zorroan eta kutxan sartuta, debekatuta dago kutxa hori berriz ere zabaltzea.

Aitziber Ojanguren, Ojanguren ehorzetxearen atean. GOIENA

Zenbait prozesu bizkortu egin dira azken asteetan...

Lehen. 24 ordu itxaron behar ziren errausketa egiteko, baina orain, aukera dago tarte hori pasa aurretik errausteko; familiaren oniritziarekin, betiere. Asko erraztu ditu gauzak neurri horrek; batez ere, hildako asko egon diren egunetan. Udaletik ere malgutu dituzte arauak, eta bai goizean bai arratsaldean egon gara ehorzten hilerrian. Krisi honen aurretik, hiru gorpu hobiratu edo errausturaldi ziren eguneko; orain, hainbat egunetan bost ere izan ditugu. Neurri hauei esker ere ez dugu kolapsorik izan.

Familiek ezin izan dituzte agurtu beren hildakoak... Nola bizi izan duzue hori?

Zalantza barik, hori izan da gogorrena, azken unera arte eskua ematen ezin egotea. Familiako kide bat galtzea gogorra de bere horretan; are gogorragoa halako egoera batean. Denentzat zaila izan den arren, bereziki latza izan da koronabirusak jota hil direnen familientzat; pertsona hori oraindik bizirik zegoela ezin izan dira berarekin egon azken uneetan, ezin izan dute eskutik heldu azken momentuetan. Badakigu hainbat kasutan ospitalean zeuden gaixoek bideodei bidez familiako kideak agurtu ahal izan dituztela, eta asko eskertu dute

Hori izan da ezberdintasun nagusia COVID-19ak kutsatuta hil direnentzat...

Segurtasun neurriez harago, bai. Azken uneek markatu dute ezberdintasuna. Koronabirusik ez duten pertsona gehienak etxean hil dira eta haien gertukoek aukera izan dute beraiekin egoteko une latz horietan, baita hil osteko unean. Hiletak eta beilatokiak debekatuta egon dira batzuentzat zein besteentzat, eta, alde horretatik, oso gogorra izan da, nahiz eta egoera *normalean* hil.

Egoera zailen aurrean lan egiten duzue. Bizi izan duzue aurretik honen parekorik?

Lau urte daramatzat ehorztetxeko arduradun, eta ez dut horrelako ezer bizi izan. Aurretik ere oso lotuta egon naiz mundu honetara, gurasoek eramaten baitzuten Ojanguren ehorztetxea. Ez dut inoiz halako egoera ezohikorik gogoratzen, berria izan da denontzat, batbatean harrapatu gaitu eta testuinguru berrira moldatzea zaila izan da denontzat: bai guretzat, bai familientzat.

Hainbat ehorzte enpresak prezioak igo zituztela-eta neurriak hartu zituen Espainiako Gobernuak.

Martxo bukaerako neurria izan zen, hileta zerbitzuetako hainbat enpresa koronabirus garaian hileta zerbitzuak garestiago kobratzen ibili omen ziren eta. Ondorioz, hileta-zerbitzuetako enpresok martxoaren 14a baino lehen ezarrita genituen prezioak aplikatu behar izan ditugu. Gurean ez dugu halakorik antzeman, esango nuke hildako asko izan dituzten hirietan gertatutako fenomenoa izan dela, izatekotan. Gure kasuan, prezioak mantendu eta hainbatetan jaitsi ere egin genituen. Neurria hartu behar izana penagarria iruditzen zait; familiek egoera gogorra bizi dute berez, ez da probetxua ateratzeko une bat.

Faseka antolatutako konfinamendu-arintze honetan, nola espero da *normalitatera* buelta hileta zerbitzuetan?

Oraindik ez dago batere argi. Diotenez, bigarren fasean, beilatokiak irekitzeko aukera egongo da, baina pertsona kopurua murriztuta eta instalazioaren metro karratuen arabera. Neurri zorrotzekin jarraitu beharko dugula uste dut. Apaizekin ere egon gara, eta hileta elizkizunak egitea posible denean nola kudeatuko duten aztertzen dabiltzala diote.

"PROZESUA AZKARTU EGIN DA: LEHEN, 24 ORDU ITXARON BEHAR ZIREN ERRAUSTEKO; ORAIN, AURRETIK EGIN DAITEKE"

Eskarien igoera "nabarmena" Gipuzkoako Elikagaien Bankuan

"Profil askotariko" herritarren artean, laguntza eskaerak %35 areagotu direla azaldu dute Bergarako egoitzatik

J.O. DEBAGOIENA

Koronabirusak eragindako osasun krisiak eztanda egin zuenetik, ohikoa baina lan "dezente" gehiago du Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran duen egoitzan. Bertako arduradun Jose Antonio Agirrebeñak azaldu duenez, lehen bi asteetan emergentziazko egoeran zeuden familientzat gorde zituzten laguntzak, baina, egoera ikusita, azken asteetan beharra duen herritar orori laguntzen dabiltza.

Eskariaren igoera

Bergarako Elikagaien Bankuan eskaria %35 inguru igo dela azaldu du Agirrebeñak: "Igoera nabarmena da, herritar asko geratu dira diru sarrerarik gabe, eta hainbatek, gainera, dirulaguntzarik jasotzeko aukerarik ere ez dute".

Laguntza eskatzaileen profilaz galdetuta, "denetik" dagoela azaldu du: "Bertako jende asko gerturatu da laguntza eske. Egoera zaila da guztiontzat". Era berean, behar duen guztiarentzat ateak irekita dituztela gogorarazi dute Bergaran egoitza duen Gipuzkoako Elikagaien Bankutik.

Elkarteei laguntza

Lan egiteko moduaz galdetuta, gogorarazi du boluntarioek eskainitako sostenguari esker ari direla egoerari erantzuna ematen. Gipuzkoako Elikagaien Bankutik elkarte eta udaletara bideratzen dituzte produktuak, haiek bana ditzaten: "Gipuzkoan Caritasekin eta udalekin lan egiten dugu, gehienbat, guk jasotako material guztia biltzen dugu Oiartzun eta Bergaran ditugun biltegietan. Elkarteek bertatik jasotzen dute materiala, eta ostean, behar duten herritarren artean banatzen dute".

Biltegien egoerari dagokionez, oraingoz, duten eskariari aurre egiteko beharrezko materiala dutela azaldu du Agirrebeñak. Gaineratu duenez, "oso eskertuta" daude enpresa zein norbanako ugarik Elikagaien Bankuari emandako produktu eta dirulaguntzengatik.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/gmhz • onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

Ate Irekiak Online

Maiatzak 25 - 26 -27

JON ARANZABAL URCELAY Automatizazio eta robotika industriala- 2.maila

Zergatik aukeratu zenuen Automatizazio eta Robotika Industriala heziketa zikloa?
Informatikako ingeniaritza hasi nuen Mondragon Unibertsitatean, baina ingeniaritzaren maila nahiko altua zela iruditu zitzaidan. Bertan ikasgai bat neukan oso gustukoa, non elektronikako oinarri batzuk ikasten ziren. Hori dela eta, Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako zikloa egitea erabaki nuen, elektrizitatea, elektronika, automatizazioa, eta abar lantzeko asmoarekin.

Eta zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (MGEP)?
Oñatin bizi naiz, eta MGEP aukera ona iruditu zitzaidan. Autoa Oñatiko beste ikasle batzuekin partekatzeko aukera ematen zidan, eta etorkizunean duala egiteko asmoa neukanez, Oñatitik gertu lan egiteko aukera izango nuela pentsatu nuen.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer-nolako erronkak egin dituzue?
Oso gustura nago metodologia honekin. Horrekin asi aurretik, erronkara bideratuta dauden teoria klase batzuk jasotzen ditugu eta gero erronkarekin hasten gara. Teoria klaseak beharrezkoak iruditzen zaizkit, baina praktikak erronketan oinarrituta egotea oso ondo dago.

Hiru erronka egin ditugu. Lehenengoak elektronikarekin zerikusia izan du, batez ere: bozketa sistema bat egin ate logikoak eta elektronika erabiliz. Erronka honetan, arduinoan oinarritutako programazioa erabili dugu ebazpenerako. Bigarren erronkan, automata trinko bat eta armairu elektrikoa kableatu dugu gero simulagailu batean motorrak, zilindroak, argiak, eta abar pizten zirela ikusi ahal izateko.

Hirugarren erronka prentsa baten maketa izan da. Erronka honetan programaketa lan handia egin dugu industria automata indartsu bat erabiliz.

Dualean zaude; nola izaten ari da zure lan esperientzia?
Duala ULMA Construccion-en egiten ari naiz. Gustura nago, nahiz eta agian kasu batzuetan mekatronikako ziklo batekin lerrokatuagoa ikusi nire lana, mekanikarekin zerikusia duten gai asko lantzen dira eta. Esperientzia positiboa izaten ari da, lan mundua hurbilagotik ikusten laguntzen du eta baita ere arduratsuago izaten. Lehenengo momentutik, une oro, lankideak niri laguntzeko prest egon dira. Nire lana aintzat hartzen dute, eta nik egindako lan asko gero enpresan ezarri egin dira.

Eta bukatzeko, datorren kurtsoari begira, zeintzuk dira zure asmoak?
Mekanikaren munduan gehiago murgildu nahi dut; horretarako, Mekatronikako zikloa ikusten dut aproposa. Aurten Mekatronikako zikloa egiten ari diren lagun batzuek Automatizazio eta Robotika Industriala egin zuten aurretik eta gomendatu egin didate bide horretatik jarraitzea.

Mondragon Unibertsitatea · LABORAL kutxa · HETEL · Fp EUSKADI

ZABALIK

JOXEMARI MUXIKA ARRIETA

Zein dira ardurak?

Aurreko batean, aspaldian ikusi gabeko Iñaki eta Mikel gazteagotako lagunekin topo egin nuen. Hainbeste denbora generaman elkar ikusi gabe –30 urte, akaso–, ezen elkar ezagutzen genuela ziurtatzea ere kosta egin zitzaigun!

Hainbat urte dela soldatapeko lanetik erretiratu aurretik ere konpartitzen genuen gizarte ongizatearen ardurak indartsu jarraitzen duela konturatu ginen. Hauek denboraz irakurri eta lantzeko aukera dugu, eta solasean gai batzuk azaleratu ziren.

Mikelen iritziz, izurritearen ondoriozko egoeran norbanakoen eta merkantzien mota guztietako joan-etorriak geldialdian daude, garraiobide eta distantzia maila guztietan. Honen ondorioz, kutsadura emisioa nabarmen apaldu da –%40ko estimazioa–, eta, hortaz, ingurumena osatzeko bidean jarri omen da. Halere, jakitekoa litzateke etxeko –eta beste– hondakinen eta zaborren tratamendua eta ugaltzea –adibidez, maskarak eta eskularruak– ondo kudeatzen ari ote garen.

BIZITZA DUIN ETA OSO BATERAKO, INGURUNEA, KULTURA ETA HIZKUNTZA ETA BIZI-IRAUPENA ASEAK IZATEA

Iñakiren ikuspuntutik, etxetik asko irten gabe, balkoitik, beste kutsadura mota bat atzeman omen du: espainieraren inbasioa. Kultura arloak eta bere edukiek dute arduratua, oso kosmopolita garela esaten dugun aldi berean euskararen bazterketak gutxi asaldatzen ote gaituen iritziz. Euskararen erabilera etxetik hasi behar omen da, baina, azkenaldian, kontrako bultzada izan ei da: euskaldunen edo baskoen herria ote da hau?

Niri datorkidan galdera, ordea, hauxe da: 1.080 euroko pentsioaren eta 1.200 euroko gutxieneko soldataren eskaria egiten zutenak nola bizi ote dira? Soldata maila horretara iristen ez direnek, kaleratuak izan eta langabezian direnek edo bereziki abailduak diren emakumezko eta etorkinek bizimodua aurrera ateratzeko zein aukera ote dute?

Solasaldi haren ondorio argia izan zen bizitza duin eta oso baterako ingurunea, kultura eta hizkuntza eta bizi-iraupena aseak izatea beharrezkoa dela.

Konpartituak ote dira ardura hauek?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA

HANDIK ETA HEMENDIK

Itxialdia Garizuman

OSKIA UGARTE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Garizuma barne hausnarketarako garaia da eta itxialdi honetan, modu batean edo bestean, bakoitza bere neurrian, aspaldi ez bezala burua haustea egokitu zaigu, eta gure bizitzaren oinarriak non jarri ditugun aztertzea ere.

Geure ideiak janzteko sortzaile askok haien ekoizpenak elkarbanatu dizkigute sareetan. Esaterako, Maddi Barber zuzendariak Itoizko urtegiaren inguruan egindako *592 metroz goiti* film laburra lasai ikusteko aukera izan dut.

1996. urtean, Itoizko urtegiaren betetzearen aurka eta solidarioei atxikimendua adierazteko talde polit batek institutuan egin genuen itxialdia gogoratu dut. Orduko hark, oraingoak ez bezala, presiorako eta ezarritako sistema ezegonkortzeko tresna bat izan nahi zuen. Itoizko urtegia betetzerakoan heriotzaren eta bizitzaren arteko muga 592 kotan ezarri zuten. Iratik dakarren ur bolumenaren arabera, metro batzuk gorago edo beherago egon daiteke muga... [...]

Horrela bizi gara hiri eroso eta ziurretan, natura basati menderagaitzaren injerentziarik gabe.

Geure zilborraren gainean tolestuta bizi gara eta guregandik haratago dagoen guztia ukatzen dugu. Guztia kontrolpean dugu. Salbu gaude.

Ezustean, gure uretan harri bat erortzen da. Uhinak ugaldu, baretasuna apurtzen da eta gainezka egiten dugu. Krisialdia dator, edo, beste modu batez esanda, bizirik irauteko beharrezkoa ez den guztia galtzear gaudenean gertatzen den egoera. Anabasa honek ulertzen laguntzen du ere.

Bizimodu ziur hura bizitzaren beraren aurkako mehatxu zuzena zen. Naturaz goiti bizitzen saiatzen ari ginen.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza, Maite Igartua.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

Administrazioa Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia: Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Gure merkatuak %99,8 egin du behera pandemiarekin"

ANDER ARANBURU GORLA AUTO GROUP-EKO ZUZENDARI NAGUSIA

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE

Jakinekoa da koronabirusak gogor astindu duela arlo guztietan. Bereziki, ekonomiarekin zerikusia duten sektoreetan. Horietako bat da autoen salmenta. Kontzesionarioak eta tailerrak itxita daude alarma egoera ezarri zenetik. Hori horrela, apirileko datuak suntsigarriak izan dira.

Salmentek behera egin dute apirilean.

Ez dugu salmentarik eduki apirilean. 60 auto bakarrik matrikulatu dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Gure merkatuak %99,8 egin du behera. EAEn, hilero, batez beste, 4.000 auto matrikulatzen dira. Ez da egon beherakadarik. Esango nuke ez dela merkaturik egon. Ez matrikulaziorik ezta eskaera berririk ere. Izan ere, alarma egoera ezarri zenetik, gure jarduera ez zenez premiazkoa, itxita eduki ditugu kontzesionarioak eta tailerrak. *Online* salmenta martxan izan dugu, baina ez da mugimendu handirik egon. Bi hilabetez zerbitzua eman barik egon gara.

Ander Aranburu, bulegoan. A.A.

Nolakoa izan zen martxoa?

Lehen hamabostaldian lanean egon ginen, eta nahiko ondo. Bada, bigarrenean jaitsiera izan zen protagonista: %70 ingurukoa. Apirilean errekor negatibo guztiak hautsi ditugu.

Eta, egoera latz honi buelta emateko denbora asko beharko duzue?

Lehenengo hiruhilekoko datuak nahiko onak ziren. Beste urte batzuekin alderatuta, berdintsu genbiltzan. Bi hilabete gogor hauen ostean, eta positibo izanda, aurreikusten dugu urtea bukatuko dugula %35eko jaitsierarekin. Maiatzean %50ean hasiko gara lanean. Konfinamendua arintzeko faseak normaltasunez gertatzen badira, hilero berreskuratzen joango garela uste dugu, urte bukaerako jaitsiera ahalik eta arinena izan dadin. Gainera, os eskaintza interesgarriak egingo ditugu: %40ra arteko, deskontuak.

Pandemiak gizartearen arlo guztietan eragin duenez, nork izango du dirua auto berria erosteko?

Gorla Auto Groupen urtero 8.000 auto saltzen ditugu. Horietatik, zati handiena enpresetan egiten ditugun salmentak dira. Autoak gehiagotan aldatu behar dituzten bezeroak dira. Espero dugu enpresen beharrak antzerakoak izango direla. Horrekin parekatuko genuke partikularren salmentaren jaitsiera. Partikularren merkatua nahiko emozionala izaten da. Momentuan gustuko dugun autoa erosten dugu, aurretik daukaguna egoera onean egon arren. Orain, askoz gehiago begiratuko da poltsikoa. Horregatik aurreikusten dugu jaitsiera %35ekoa izatea. Partikularren salmentak %50 ingurukoak izan daitezke, baina, enpresei ematen diegun zerbitzuarekin arinduko litzateke jaitsiera hori.

Pentsatzen zenuten horrelako inpakturik izango zuenik Koronabirusak?

Ekonomiak krisiak edukitzen ditu. Ziklikoa izaten da hori. Hortaz, ekonomia ondo doan urteetan, etor daitekeen krisi hori prestatzen egoten gara. Oraingoa bezalako krisiekin ez daukagu aurretiko esperientziarik. Salmentak zerora jaitsi dira. Ezustean harrapatu gaituela esango nuke. Gure negozioan aurreikuspenak egin ditugu bi hilabetetan sarrerarik izan barik biziraun ahal izateko.

Nolako egoera duzue Lazpiurren?

Bi bezero mota ditugu automozioan: auto fabrikatzaileak eta TR 1,2 hornitzaileak. Bezero horiek itxita egon dira orain arte. Egun, urte hasieran kontratatutako lanarekin dihardugu. Bada, bi hilabetetan eskaera berrien sarrera %90 jausi da. Hortaz, eskaera berririk ez bada sartzen, arazoak edukiko ditugu.

ITURRI ONETIK

Bizarro taldearen lehen diskoa, kalean

Besteak beste, Potemkin –Lehen Danbaka Musika Lehiaketako finalista– taldean aritutako Iban Idigoras (bateria) eta Aixibar Urteaga (baxua) kide dituen Bizarro talde oñatiarrak gaur eman du argitara lehen diskoa: *Deshumanizazioa*. Oñatiko Zai Zoi Bele kolektiboko lokaletan grabatu dute, 2019ko maiatzaren eta 2020ko otsailaren artean. ALMEHUNA zigilupean argitaratu dute. Tommaso Galati (gitarra), Iñigo Palacios (gitarra) eta Aitor Regueiro (ahotsa) dira beste kideak.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-05-08

Greba, Arrasateko alkatea atxilotu izanagatik

Ino Galparsoro Arrasateko alkatea atxilotu izanagatik –"kautelazko neurriak apurtzearren eta agintari judizialari desobedientzia egitearren" deklaratu ostean–, greba orokorra egin zuten Arrasaten. Erantzun ezberdina izan zuen: erdiko denda eta tabernetan igarri zen gehien grebaren eragina; fabriketan, askotarikoa izan zen erantzuna. ETAk Arrasaten Isaias Carrasco erail eta bi hilabetera etorri zen alkatearen atxiloketa.

GOIENA

HAU BE BADOGU!

Txantxa ugari kirolarien inguruan

@xurze: "Herrietako sarreratan radarrak egongo balira, kontuz 'Hamarretako esprinta'-rekin. Zenbat Cavendish...".

@ihesean: "Ba ni ohean nago. Batzuk ez dugu sekula kirolarik egin, ez gara orain hasiko, ala?".

@JosuArraiz: "Ezin bada udalerritik atera, Atarrabiako ziklistek hobe dute trizikloa hartu. Atarrabia: 1'10 km2".

@ximonari: "Zer pentsatuko genuke 10 urte atzera esan izan baligute santakruzetan, larunbat goizaldean, gaupaseroak beharrean korrikalari eta ziklistak egongo zirela kalean...".

Iturbide egoitzako langile guztiei

IZASKUN BOLINAGA ETXEBARRIA
MARI KARMEN ETXEBARRIAREN SENIDEEN IZENEAN
ARRASATE

Ez dira garai errazak. Birus ezezagun bat gure herriko oroimen historikoaren parte handi bat desagerrarazten ari da.

Arrasateko Iturbide egoitza ere bortizki astindu du. Gogorra da egoera berri eta ezezagun honek zahar etxe askotan lanerako eta elkarbizitzarako sortu edo areagotu dituen baldintza zailak –osasunekoak, lan eta baliabideetakoak, emozionalak, eguneroko errutinen aldaketakoak, protokolo berrienak, kutsatzeko beldurrarenak...–.

Iturbiden ere egoera ezohikoa izanik ere, jakitun gara bertan lanean diharduzuen langileok egoiliarrekiko zuen ohiko maitasun, begirune eta profesionaltasunarekin eusten ari zaretela eta gure aitona-amonen azken egunak ere ahalik eta duinenak izateko zuen alde dagoen guztia egiten ari zaretela.

Horrela sentitu dugu guk gure amaren azken egunetan; distantzia fisikoa ahalik eta xamurrena izan zedin egin duzuen ahalegin guztiekin.

Zein garrantzitsua den egiten duzuen lana! Horrenbeste maite ditugun eta guztia zor diegun pertsonen zaintza...

Honegatik guztiagatik, doakizue gure eskertze sentituena egoitzako langile guztiei. Eskerrik asko, bihotzez!

Bide batez, besarkada handi bat gure amarekin batera bizi izan zareten egoiliar eta senide guztiei ere. Amaren azken urtean bere familia berri handia izan zarete eta gu ere etxean bezala sentitu gara zuenean.

Ea berandu baino lehen Garibaiko etxea osasun iturri bide den...

Bejondeizuela!

Urruntze soziala / Distantzia fisikoa

PEDRO ETXEBARRIA
ERRETIRATUA
ARETXABALETA

Seguru nago pertsona bati baino gehiagori niri gertatzen zaiona gertatzen zaiola: "urruntze soziala" entzuten dudanean, atsekabez entzuten dut, min ematen dit… ez dut ulertzen nola modan jarri den adierazpen hori. Eta, kontuz, egunero entzuten dugu gizartea zuzentzen duten pertsonen ahotan; eta herriaren adierazpen arrunt gisa zabaltzen da.

Urruntze soziala, gizarte arrakala, egoismoaren, harrokeriaren, xenofobiaren, homofobiaren, injustiziaren, aukera-desberdintasunaren, eta abarren ondorio da, eta, beraz, zentzugabekeria da urruntze soziala proposatzea.

Pentsatzen dut pertsonen arteko urruntasun fisikoa –1,5 metro edo 2 metro– dela esan nahi digutena, eta halaxe proposatzen digutena, guztiz bestelakoa.

Pentsatzeko eskatzen dizut, mesedez, eta, ondo iruditzen bazaizu, zure hizkuntza moldatu eta zure inguruan komunikatu.

Hitzak sortzaileak dira: zerbait ez da existitzen izena jarri arte; eta gero, hitzek gure pentsamendua adierazten dute eta moldatu egiten dute.

Iruditzen zait ezen, kalera irteten garenean, aldendu egiten garela, ez distantzia fisikoa gordetzeko bakarrik, baizik eta, badaezpada ere...; ezezagunekin begiradak gurutzatzeko beldurra izango bagenu bezala, kalean ezikusiarena eginez.

Urruntze soziala sortzen ari gara, distantzia fisikoa gordetzeaz gain.

Pertsona ausartek esaten dute krisi hau une aproposa dela gizarte-eredua aldatzeko, mundu hobea lortzeko. Urruntze soziala sustatzea eredua aldatzea da, eta, gainera, eredu zentralista, poliziala-eta bada, konturatu gabe egoera berri batean sar gaitezke, baina ez da bilatzen eta irrikatzen duguna.

Mundu hobe baten alde.

Selma Huxley, eskerrik asko!

JERARDO ELORTZA
LETAMENDI, GARAI ETA ARREGITARREN IZENEAN
OÑATI

Datorren uztailean beteko dira 46 urte Selmak eta guk, Tere emazteak eta biok, lehenbizikoz elkar ezagutu genuenetik. Iritsi berria zen Selma alargun gaztea Oñatira Mexikotik, Getxotik zehar, bere lau seme-alabekin: Tom, Oriana, Mikel eta Serenarekin. Plazako Kafe Zaharreko lehenengo pisuan bizi ziren; gu bigarrenera aldatu ginen orduantxe, gure umerik zaharrena, Urdin, jaio baino egun batzuk lehenago. Hiru urte geroago Irantzu jaio zenean ere, klinikatik etxera bueltatzean, Selma izan zen lehena gure alaba besoetan hartu zuena; eta hori ez zitzaion sekula ahaztu.

Zenbat egonaldi, berriketa eta afaritxo euren eta gure etxeetan!

Oñatin kokatu ziren urte luzeetan ez ezik, ondorengo hamarkadetan ere eutsi diogu gure arteko adiskidetasunari. Gure familiako beste hainbatek ere eduki zuten Huxley/Barkham-darrekin eta beren senideekin harreman estua: adibidez, Arantzazu eta Garbiñe gure ilobek, ingelesa praktikatu alde, udatan Chichester-era umezain joan zirenean. Orainago, berriz, beste iloba baten alaba, Irati Garai, Oñatiko Udalak sortu duen *Selma Huxley Barkham* izeneko bekaren lehenengo irabazlea izan da Jone Arrazolarekin batera.

Gure solasaldi ugarien bitartez jakin genuen Selma eta bere seme-alaben lanen eta gorabeheren berri. Hurretik azaldu zizkigun ikerlari britainiar-kanadar honek Oñatiko unibertsitate zaharreko protokoloen artxiboan eta beste toki batzuetan, pazientzia handiz, deskubritu zituen altxorrak: batez ere, Ternua eta Labrador aldeko ur-lurretan euskal arrantzaleek XVI-XVII. mendeetan balearen arrantzan izandako neke, pena eta pozei buruzko albiste baliotsuak.

Selmak artxibo-lan horietan eskuratu zituen informazio zehatzei eskerrak, lortu ziren gerora emaitza eta aurkikuntza oso garrantzitsuak: esaterako, 1565ean Kanadan hondoratutako *San Juan* itsasontziaren hondakinak atera ahal izan ziren 1978an Red Bay-ko uretatik; ezaguna denez, azken urteotan Pasaiako Albaola faktorian barku horren erreplika bat egiten dihardute; Unesco erakundeak 2013an bere Mundu Ondarearen zerrendan sartu zuen Red Bay-ko eremu arkeologikoa. Eta gu izugarri poztu ginen, Selmak samurtutako pistei jarraituz, Baionako Euskal Museoan 53 ahapalditan eta lapurtera klasikoan idatzitako Ternuari buruzko poema zoragarria topatu genuenean.

Mila esker, Selma, zure adiskidetasunagatik eta zurekin ikasi dugun guztiagatik.

Eta, Tom zena gogoan dugula, besarkada estu bat Oriana, Mikel eta Serenari.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA
Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bizente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA
Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA
Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Proba eskaera, oinezkoak "seguruago ibiltzeko"

EH Bilduk mugikortasunarekin lotutako proba bat egitea proposatu dio Gobernuari: Gelmako zuzeneko eta Garibai etorbideko errepideak asteburuan oinezkoentzat izatea nahi dute, oinezkoak segurtasunez ibiltzeko eta espazio horiek aisialdirako erabiltzeko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Ohar bidez azaldu dutenez, "beste hiri batzuek espazio bereziak sortu dituzte, segurtasunez ibiltzeko eta kutsatzeak gutxitzeko. Oinezkoentzako espazioak zabaltzea proposatzen dugu, herri barruan bi metroko segurtasun tartea errazago bete dadin eta umeek jolasteko leku gehiago eduki dezaten. Horrela, erdigunea oinezkoentzat bihurtu nahi dugu jende gehien egoten den orduetan. Krisi garaietatik onena atera daitekeela jakin badakigu, eta, egoera bereziek irtenbide bereziak eskatzen dituztenez, uste dugu datorren asteburua erabili dezakegula oinezkoek eta kirolariek espazioa irabaz dezaten", azaldu dute.

EH Bilduk egindako fotomuntaian, Gelmako zuzena autorik gabe. EH BILDU ARRASATE

Bi leku hauetan proposatu dute trafikoa kentzea: "Proposamen honek zuzenean eragingo lioke Garibaiko eta Gelmako errepideari, bi zuzen horiek oinezkoentzat prestatuz; erdialdean lasaiago jolastu ahal izango lukete haur eta gazteek, eta eremu bikainak lirateke, adibidez, patinekin ibiltzeko edo nagusiek paseoak egiteko".

Noranzko bakarreko bideak

Nafarroa etorbidea eta Zerrajerako etxeen atzealdeko errepidea, ordea, noranzko bakarrekoak izatea proposatzen dute, modu horretan libre geratzen den erreia bizikletentzako izateko. "Nafarroa etorbidean eta Zerrajerako etxeetako atzealdean auto gutxi dabil eta soberan geratzen den erreia bizikletazaleentzat oso erabilgarri bilakatu daiteke". Proba hori egiteko ordutegi bat ere proposatu dute: "Larunbat eta igandean, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:30era oinezko eta kirolariek eskertuko dute espazio gehiago". Azaltzen dutenez, probaldi horretan bermatu egin behar litzateke kale horietan garajeak dituztenek ibilgailuak bertan sartu ahal izatea. "Ondo funtzionatuz gero", herriko beste auzo batzuetara hedatu daitekeela uste dute, eta aukera ikusi dute ostalariengan eragina izateko. "Terrazarik ez duten taberna eta komertzioentzat aukera izan daiteke".

Gobernuaren erantzuna

Probari buruzko iritziaz galdetuta, esan dute gai hori –eta beste batzuk ere– osteguneko batzordean landuko dutela.

Informazioa ostalariei eta merkatariei

Beste ohar baten adierazi dute halako negozioek "beharrizan eta ezjakintasun maila handia" dutela egoera honetan, eta horri aurre egiteko informazio-gune bat jartzea eskatu; posible bada, "maiatzaren 11 baino lehen. "Herri mailako dirulaguntzen informazioa ematea, terraza-politiken argibideak, errealitate berriko neurrien inguruan informatzea, eta balizko peatonalizazio baten eraginak aztertzea". Horiek jarri dituzte adibide gisa. "Komertzio txiki batzuek ateak zabaldu dituzten arren, ugazaben artean ugariak dira zalantzak. Tabernen kasuan, maiatzaren 11n izango dute zabaltzeko aukera, eta ixtera behartuta sentitu ez daitezen egoerari aurre hartu behar zaio. Bide horretatik, tabernarien, ostalarien eta komertzio txikien beharrei erantzuteko informazio-gune bat zabaltzea proposatzen dugu, *errealitate berrira* igaro bitartean. Gure betebeharra da gure ostalari eta tabernariei informazio eraginkorra eta osoa ematea. Ezin dugu ahaztu COVID-19 gaitzak zuzenean eragiten dion sektore bat dela".

"Alderdi politiko guztiei jakinarazi diegu, beti, planteatu nahi dituzten gaiak dagokion batzordean planteatu ditzatela" erantzun dute Udal Gobernutik.

Elikagai Bankuaren banaketa martxan jarri dute berriz ere

Martxotik ez da zerbitzurik eman; Harreman GKEko kideak arrisku taldean daudenez, Zaintza Sareak jardungo du

X.G. ARRASATE

Caritasen, Zaintza Sare Herritarraren, Udalaren eta Harreman GKEaren ekimenez zerbitzua berriz jarriko da martxan, bihar. Arrasateko ia 600 herritarri eskaintzen die zerbitzua Elikagai Bankuak –525 heldu eta lau urtez azpiko 70 haur– eta martxoaren 11tik itxita egon da.

Orain arte, era honetan funtzionatu du Elikagai Bankuaren kateak: Caritasek beharrak zituztenen zerrenda osatzen zuen –eskatzaileen datuak Udaleko Gizarte Zerbitzuekin kontrastatuz–, Harreman GKEkoek lan logistikoak egiten zituzten –janari-sortak familiako kide kopuruaren arabera prestatu eta banatu– eta Udalak biltegia eta lokala ordaintzen zuen. Hilean behin egiten zuten elikagaien banaketa, La Merced ikastetxekoei alokatutako lokalean. Banaketa lanak egin izan dituzten Harreman GKEko kide gehienek 65 urte dituztenez, eta arrisku taldekoak direnez, jarduera eten zuten martxoaren 11n, eta ordutik ez da banaketarik egin.

"Larrialdi egoera honetan lehentasunezkotzat jo dugu ekimena berraktibatzea, behar gehien dutenei oinarrizko elikagaiak bermatuz. Sare Herritarreko boluntariook orain arte banaketa egin duten kideak ordezkatuko ditugu, arrisku taldekoak zirelako", azaldu dute Zaintza Saretik ohar bidez. Bertan, orain arte egindakoak aipatzen dituzte: erosketak egin, medikamentuak eraman, zaborra atera, etxeko lanen zerbitzua, edo Caritasen Bidean ekimenean lagundu, besteak beste.

"Parte hartzeko eskatu genien Zaintza Sarekoei eta baiezkoa eman dute; Udalak esker ona adierazi nahi die boluntario taldekoei", azaldu du Udal Gobernuak, ohar bidez –bi oharrak *Goiena.eus*-en daude irakurgai–. Adierazi dute babes neurriak jarriko dituztela boluntarioentzat: "Maskarak, gelak...".

Zer egin izena emateko

Etor daitekeen larrialdi ekonomikoarekin "eskatzaile kopuruak gora" egingo duela aurreikusten dute Caritasekoek, eta Elikagai Bankuan izena emateko pausoak gogoratu dituzte: "Deitu 943 79 18 87 zenbakira, 09:00etatik 13:00etara, astelehenetan, asteazkenetan edo ostiraletan".

GIPUZKOAKO GURUTZE GORRIA (TWITTER)

4.500 maskara, doan banatzeko

Bailarako Gurutze Gorriko boluntarioek egin dituzte banaketa lanak, Espainiako Gobernuak Gipuzkoan duen Ordezkariordetzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasaten banatzeko kopuru hori ezarri ostean. Aste honetan derrigorrezko bihurtu da maskaren erabilera garraio publikoan, eta herriko hiru geltokitan egin dute banaketa, goizez eta arratsaldez.

'Ekobulebar'-a egiteko, 2,5 milioi eta 18 hilabete

Gobernua lanean dabil hirigintzako proiektuen tramiteak ez gelditzeko. Horietako batzuen idazketak eta zuzendaritzak esleitzeko urratsak egin dituzte egunotan; San Andres eta Musakola bidegorriarekin lotuko dituen 'Ekobulebar'-a da horietako bat

Xabi Gorostidi ARRASATE

Hauek dira onartu dituzten hirigintza proiektuetako urratsak: Santa Teresa-Galizia kaleak lotuko dituen igogailu sistemaren proiektuaren idazketa, *Ekobulebar*-eko obra eta bere zuzendaritzaren esleipen prozedura, ospitale ondoan aparkaleku gehiago izateko Transportes Aranburu enpresa zegoen pabiloia eraistea eta Santa Barbarako ur-parkeko etxolan horma-irudi bat margotzea. "Koronabirusak geldiarazi gaituen honetan, Udalak buru-belarri jardun du lanean, telelana baliatuz, eta prest ditugu aurreikusiak zeuden obrak eta baita proiektuak aurrera eramateko tresna guztiak ere. Alarma egoera jaso bezain laster, epeak abian jarriko dira, eta ekonomia suspertzen lagunduko duten ekimen horiek aurrera eramango ditugu", azaldu dute.

Bi txirrindulari, taxiek eta autobusek darabilten errepidean. GOIENA

'Ekobulebar'-a

San Andres eta Musakola auzoak bidegorriarekin lotuko dituen egitasmoa 2017tik dago Gobernuaren mahai gainean, eta ahal bezain pronto esleituko dituzte lanak. Proiektua jada idatzita dago, eta aurrerago emango dituzte egitasmoari buruzko xehetasun sakonagoak, baina, bitartean, Gobernuak prest ditu lan horien zuzendaritza esleitzeko pleguak. "Garibaiko autobus geltokiari itxura berri bat emango zaio, motorrentzako eta bizikletentzako aparkalekuak eta taxi geltokia ere berregokituz". Horrez gain, Biteri eta Maalako biribilgune arteko zatia –gaur egun soilik taxientzat eta autobusentzat dena– oinezkoentzat eta bidegorriarentzat bakarrik utziko da; ibilgailuak –autoak eta autobusak– ezingo dira hortik igaro. Alfontso X plaza oinezko-gune bihurtuko da, "Seber Altube-Portaloia-Biteri oinezko-gune zabalarekin" bat eginez. Grupo San Juan aldera ematen duen erreka bazterra oinezko bihurtuko da, ibai ertzean egongune bat sortuz. Azkenik, Alfontso X plazan dagoen Biteriren estatua Biteri kaleko berdegunera lekualdatuko da.

Horma-irudia, ur-parkean

Santa Barbarako ur-parkeko txabolan horma-irudia egitea ere esleitu dute. Joana Mancisidorrek egingo du, ekainerako, eta 1.815 euro kostatuko da –BEZa barne–.

Gune horretan joango da hiru igogailuetako bat. XABI GOROSTIDI

Santa Teresako igogailua

Hiru igogailuko sistema ezartzeko proiektuaren idazketa esleitzeko lehiaketa abian da. 48.500 euroko aurrekontua ezarri du Udalak, BEZa barne, eta esleipendunak sei hilabeteko epean burutu beharko ditu lanak. "Genero ikuspegia barneratuko du", azaldu dute.

Autoen atzealdeko eraikin bat eraitsiko dute. XABI GOROSTIDI

Zalduspen, aparkaleku gehiago

Transportes Aranburu izenez ezaguna den eraikina eraitsi eta ingurua txukundu egingo dute, aparkalekuentzako espazioa lortzeko. Aurrekontua 175.000 euro da –BEZa barne–, eta lanek sei hilabete irautea aurreikusten dute Hirigintza Sailetik.

NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

Ezustetik ezjakintasunera

Euskal Herrian harrapatu ninduen konfinamenduak, joan-etorrietako batean, etorri izanagatik bueltatu ezinera. Modu batean edo bestean, guztiok ezustean harrapatu gintuen koronabirusak; eta ezustean baita, ondorioz, iritsi ziren bat-bateko debeku zorrotzak ere. Guztioi nahitaezko inpaktua eragin digu gure bizimoduan. Dela gure lan zein harreman pertsonaletan, dela gure etxeko ekonomian, dela gure bizitza eusten zuen edozein zutabetan... gure errealitateak moldatzen ikasi behar izan dugu. Erosotasun-gunerik izan badugu inoiz, ez da orain bizi duguna.

Eta nahiz eta "arintze" edo "normaltasun" prozesuaren atarietan egon, inor gutxi sentitzen da datorrenari forma antzemateko gai. Ezustean harrapatu gintuenera moldatzen hasiak bagara ere, gure etorkizun motzak sikiera izango duen tankera asmatu ezinik gabiltza. Eguneroko gertakarietan pausatuz, pausoei egun berri bakoitzaren erritmoa egokitzea tokatu zaigu. Baina ezjakintasun honi xarma topatzerik izango ote diogu?

Parot eta Arkauz presoentzat, gutunak eta atxikimenduak

Bi presoen egoera ikustarazteko ekintza sorta antolatu zuen Sarek, baina alarma egoerak atzera bota beharra eragin zien. Hala, elkartasun argazkien kanpaina jarri dute orain martxan; *#30urteaskoda #askida* traolak erabili behar dira, eta argazkiak *sarearrasate@gmail.com* helbidera bidali. Presoei gutunak bidaltzeko dei ere egin dute.

Txosnagunea jendez beteta, 2018ko San Juan jaietan. GOIENA

Beste modu batekoak izan beharko dute jaiak

2020ko sanjuanak bertan behera uztea erabaki du Arrasateko Txosna Batzordeak, "jaiak lasaitasun osoz ospatu ahal izateko bermerik" ez dagoela argudiatuz; Udala ere ari da gaia lantzen, eta Kultura Sailak hurrengo egunetan hartuko du erabakia

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Gaur-gaurkoz, ez daukagu jaiak lasaitasun osoz ospatu ahal izateko bermerik", azaldu du Arrasateko Txosna Batzordeak ohar baten bitartez. Idatzi berean, batzordeko kideek gaineratu dute "gogo eta ilusio guztiarekin" ari zirela jaiak antolatzen, baina gaur egungo pandemia egoerak erabaki hori hartzera behartu dituela, "bereziki" mintzen dituen erabakia dela esanda.

Hori horrela, aitortu dute asko kostatu zaiela jaiak bertan behera uztea. "Hala ere, aurten zentzuz eta erantzukizunez jokatzea tokatzen zaigula deritzogu; eta, ondorioz, jaien antolakuntza etetea", azpimarratu dute.

Egun horietan, zerbait berezia

Halere, ilusioari eutsi gura diote, eta, ezohiko eran bada ere, sanjuanak ospatzen saiatuko dira, nahiz eta oraindik ez duten aurreratu zer daukaten buruan: "COVID-19ak egoera zail honetan jarri gaituen arren, jaiak ospatzekoak ginen egun horietan zerbait berezia egiten saiatuko gara; aukera sortuko balitz eta segurtasun neurriek baimenduko balute". Horri gehitu diote, aurtengoa galduta ere, datorren urtekoa "indar gehiagorekin" hartuko dutela seguru, eta gogo hori islatzen duen egitaraua prestatzeari ekingo diotela.

Presoak gogoan

Bestalde, San Juan jaietan "presentzia berezia" izan ohi duten preso arrasatearrak ekarri nahi izan dituzte gogora. "Ekainaren 25ean egin ohi dugun manifestazioa berezia da guretzat, eta aurten ekimen berezi hori egiteko aukerarik ez edukitzeak ez du inondik inora esan nahi egoera zail honetan haietaz ahaztuko garenik. Horregatik, Unai [Parot] zein Iosuri [Arkauz] idaztera animatu nahi zaituztegu. Izan ere, aske behar luketen arren, kartzela zuloan jarraitzen dute; eta, bertan, konfinamendu honen baldintzak are eta gogorragoak dira: bisitarik ez, babes neurririk ez, eta abar".

EKAIN BUKAERAN, EGUN HORIETAN, ZERBAIT BEREZIA EGITEN SAIATUKO DIRELA AZALDU DUTE

Esker mezuak guztientzat

Ikasle Abertzaleak, Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz, Arrasateko Askapena eta Ttak dira batzordea osatzen duten eragileak. Eskerrak eman gura izan dizkiete "aurtengo egitarauan parte hartzeko edo laguntza emateko prest egon diren musika talde, eragile eta norbanako guztiei".

Udala, erabaki bat hartzear

Udalak ere laster erabakiko du 2020ko San Juan jaiekin zer egin. Gaia lantzen ari dira eta Kultura Sailak datozen egunetan hartuko du behin betiko erabakia.

Martxoaren 13an, terrazak jartzeko baimena etendakoan. GOIENA

Terrazak zabaltzeko prestatzen ari dira herriko tabernariak

Arrasateko Udalak terraza bakoitzak duen espazioaren bikoitza baimenduko du, oinezkoen ibilbidea bermatuz

E.A. ARRASATE

Ostalariek terrazak ireki ahal izango dituzte astelehenetik aurrera, espazio erdia erabiliz. Hala ere, Arrasateko Udalak terraza bakoitzak duen espazioaren bikoitza baimenduko du, kosturik gabe, betiere oinezkoen ibilbidea bermatuz.

Taupako terraza, esaterako, irekiko dute, ordutegian aldaketa txiki batekin, hori bai. Udalak hartutako neurriarekin, gainera, dituzten hamabi mahaiak jarri ahal izango dituzte. Egoera berria errentagarria izango ote den kezka eduki arren, irekitzearen alde egin dute. "Uste dut bezeroei zerbitzua eskaini behar diegula, eta hori egingo dugu", dio Beñat Zaitegik, Taupako arduradunak.

Iritzi berekoa da Kajoi tabernako Antonio Murillo ere. "Orain arte jende asko egon da aurpegia ematen, dendariak edo zuek kazetariok, adibidez, eta orain guri ere dagokigu hori egitea. Hasiera batean, ez dugu espero jende asko etorriko denik, baina hor egongo gara. Terrazaren espazioa bikoiztu ahalko dugu, behintzat, eta ia mahai guztiak jarri. Hori albiste ona da".

Udalak komertzioei laguntzea nahi du Ahal Dugu Arrasatek

Ahal Dugu Arrasatek proposatu du Udalak lortu eta finantzatzea merkatariendako maskarak, eskularruak, manpara edo bereizketa kristalak, gel hidroalkoholiko poteak, aurpegia babesteko maskarak, desinfektatzaileak eta laser termometroa.

"Epe motzean berriz zabaltzea ahal eta nahi dutenek inbertsioak burutu beharko dituzte euren establezimenduak egokitzeko", diote. Hori dela eta, Udalak egokitzapen lan horiek diruz laguntzea proposatzen dute.

Gobernuak dio alderdiei jakinarazi diela, "beti", planteatu nahi dituzten gaiak dagokion batzordean planteatu ditzatela eta bertan tratatuko direla.

Ezker Anitzak hainbat eskaera egin dizkio Udal Gobernuari

Ezker Anitzak ezohiko egoeraren harira hainbat gauza eskatu dizkio Gobernuari: besteak beste, San Juan jaietan erabiltzen ez den dirua "krisiaren eraginak pairatuko dituztenei" bideratzea, "egingarria" dela iritzita; segurtasuna bermatu dezaketen jaietako ekintza kulturalak egitea; garapen mahai bat osatzea merkatariekin eta ostalariekin eta Udalak egingo dituen ekintza instituzionalek alderdi guztien babesa izatea.

"Ezker Anitzatik egoera gogor hau lehenbailehen pasa dadila nahi dugu, gure komertzioa, ostalaritza, paisaiak eta jaiak lehenbailehen gozatzen hasteko", azpimarratu dute ohar batean.

Euskal Ligako Lehenengo Mailan ariko dira berriro

Euskadiko Errugbi Federazioko zuzendaritzak aste honetan egindako ezohiko batzar orokorrean hala erabakita, Kanpanzar ART mailaz igo da; martxora arte jokaturiko 16 partiduak irabazita, merezimendu osoz lortu dute arrasatearrek helburu zuten igoera

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hasiera batean ordura artekoa baliorik gabe uzteko asmoa izan arren, liga horiek bukatutzat ematea erabaki du Federazioak –senior maila eta 18 eta 16 urtez azpikoak–, ligak eten ziren momentuko sailkapenak aintzat hartuta. Horrela, Kanpanzar ART Euskal Ligako Lehen Mailara bueltatuko da, sailkapeneko lehen postuan zegoen eta.

Julen Barrutia entrenatzaileak pozik hartu du berria, eta merezitako lorpena dela azpimarratu. "Hasierako erabakia ez zitzaidan batere justua iruditu, baina hau pozez hartu dugu. Jokaturiko 16 partiduak irabazi ditugu, eta jokalariek erakutsi dute datorren urtera begira salto bat emateko prest daudela".

Igoera lortu arren, ez dira txapeldun izango, Federazioak erabaki duelako txapeldunik ez egotea. "Irabazle sentitzen gara, bai ni eta bai jokalariak. Polita izango litzateke liga irabaztea, baina ez dago gure esku. Hau guztia pasatzen denean ospatuko dugu zelanbait", dio Barrutiak.

Iruña R.C. taldearen kontrako partidua, 2019ko azaroan. IMANOL SORIANO

Erronkari aurre egiteko ilusioz

Badakite Lehen Maila gogorra dela oso, zentzu guztietan. Baina erronka horri aurre egiteko "gogo handiz" eta "ilusioz" azaldu dira jokalariak zein entrenatzailea bera. "Oso maila gogorra da, jokatu duenak ondo daki hori, baina horrela hobetzen da, erronka gogorrak hartuz eta horien aurrean haziz". Era berean, taldeko entrenatzaile izaten jarraitu gura du, aurten hasitakoari jarraipena emateko. "Jokalariei galdetegi bat egin nien eta nik jarraitzea gura dute. Ni ere ilusioz nago datorren denboraldiari ekiteko. Beraz, zuzendaritzak dauka azken hitza".

Irailean edo urrian hasi ohi dute denboraldia, baina, orain-goz, Federazioak ez du iragarpenik egin datorren urtekoa noiz hasiko den zehazteko.

Batzar orokorra, ekainean

Maiatzean ziren egitekoak, baina atzeratu egingo dute. "Euskadiko Errugbi Federazioak ere atzeratu egin du, eta ekainean egingo dute. Hori dela eta, guk itxaron egingo dugu haiek egin arte, eta bi aste geroago egingo dugu gurea", azaldu du Ane Agirre presidenteak. Ezin bada aurrez aurrekoa izan, modu telematikoan egingo dute.

2020-2021 denboraldiari begira

JULEN BARRUTIA
ENTRENATZAILEA

"Orain arte, etxean egiteko ariketak bidali dizkiet jokalariei, intentsitate altuko saioak. Orain, indar ariketak mantentzen eta denboraldiaurreko saioak egiten hasiko gara apurka, martxotik irailera arte denbora asko dago eta. Dena den, ez dakigu denboraldia irailean hasiko dugun ere".

ANE AGIRRE
PRESIDENTEA

"Federazioko zuzendari teknikoarekin berba egin dut asteon eta esan dit hau berriz martxan jarri ahal izateko arau asko aldatu beharko direla, horretan dihardutela lanean. Zalantza mordo bat dago oraindik airean eta hori izango da gure gerra orain. Oso zail ikusten dut denboraldia irailean edo urrian hastea".

XABI GARDOKI 'JABO'
KAPITAINA

"Asko poztu nau erabakiak. Jokalari gazteak ditugu, oso maila onekoak, eta erraz ibili gara aurten; beraz, zuzenena mailaz igotzea zen. Iaz ere aukera eskaini ziguten igotzeko, baina ezetz esan genuen, hain zuzen ere, taldea indartzeko eta gazteak zailtzen joateko. Orain, taktika aldetik ere asko irabazi dugu".



BEÑAT SALABERRI
JOKALARIA

"Hasierako erabakia ez zitzaigun gustatu, baina hau pozez hartu dugu. Igotzeko modurik onena ez da, politagoa litzateke partidu guztiak jokatu eta txapelketa irabaziz mailaz igotzea, baina helburua lortu dugu. Datorren urtera begira, gogotsu gaude, taldea gai ikusten dut partiduak borrokatu eta mailari eutsi ahal izateko".

Garagardo Azoka atzeratu egin dute

Ekainean egitekoak ziren, baina hori ere atzeratu egin behar izan dute. "Ikusiko dugu ea irailean edo urrian egiteko moduan gauden, egoerak baldintzatuko du. 400 pertsona baino gehiago sartzen dira karpan; beraz, zaila izango da", dio presidenteak. "Ezin badugu azoka egin, beste nonbaitetik atera beharko dugu denboraldia hasteko dirua. Lanean ari gara batzordean".

2019ko Garagardo Azoka. GOIENA

Entziklopedia biziari, adio

Azkoagako Salturralde baserriko seme Jesus Mari Elejalde, erreferente garrantzitsua familian, Aramaioko historiaren aurreko mendeko ikerlari sutsuena, fede sakoneko gizona eta sorterriko seme kuttuna; haren lana eta oroitzapena geratzen dira betiko

Jesus Mari Elejalde, jarrita, erdian, anaia-arreba eta gurasoekin. J.M.E. MONDRAGON

Jesus Mari Elejalde, aitarekin, baserriko lanetan. J.M.E. MONDRAGON

Julen Iriondo ARAMAIO

Otsailaren 20an, 85 urte betetzear, hil zen Jesus Mari Elejalde Plazaola, gizon maitatua herrian eta harekin harremana izan zutenen artean. 24 urterekin egin zen abade, eta, Oletan zein Ubidean jardun ostean, Ekuadorrera joan zen misiolari. Aramaiora itzuli, eta bertako parroko izan zen urte luzez. Aramaioko ondarea jasotzeko lan ugari egin zuen, eta zenbait liburu idatzi zituen; besteak beste: *Ermitas y caminos del Valle de Aramaiona* (1986), *Aramaioko udaletxea* (1988) eta *Ayer y hoy del Valle de Aramaiona* (1989). Ameriketatik sorterrira itzuli eta familiako etxean urte luzez bizi izan ostean, Gasteizko seminarioko erresidentzian eman zituen azken urteak.

Familian, arrastoa

Abadeagatik jarri zioten haren anaia zaharra Franciscok eta emazte Sebastiana Mondragonek euren semeari izena Jesus Mari. Jesus Mari Elejalde Mondragonek osabaren oroitzapen ederrak ditu, berarekin pasatutako momentuenak, eta bere hitzetatik ondoriozta daiteke eragin handia izan zuela beragan hark eta harekin izandako harremanak.

Izenaz gain, osabagatik omen du zur-lantzaile ofizioa ere: "Harengatik deskubritu nuen zer gustatzen zitzaidan; hari ere egurra gustatzen zitzaion. Gero, elizak konpontzen-eta ibili zen, eta nik prestatzen nizkion, eta lagundu". Horren aurretik, baina, mutiko zela, gogoan du nola beste noranzkoan zen laguntza. Jesus Mari Elejalde Mondragonek miresmenez hitz egiten du osabaren gainean hark zituen erlijio balio eta jardunari buruz ari dela, baina beste ezer baino lehen bere osaba zen Jesus Mari Elejalde Plazaola, eta gogoan ditu haren osaba-lanak: "Nire lehenengo goitibehera... Nik esan nion berari goitibehera bat nahi nuela, eta berak esan zidan: 'Laguntzen badidazu, bien artean egingo dugu'. Horrela hasi nintzen egur kontuekin zaletzen".

Jendearekiko oso hurbilekoa zen. Ilobak gogoan du nola antolatzen zituen auzolanak, "gotzaindegitik lortutako diruarekin", eta baita nola laguntzen zien ingurukoei, tramite eta bestelakoetan: "Lehen, ez zen egoten ingeniari asko, edo ez zen gaur egun bezala, joan zaitezkeela aholkularitza batera edo; orduan, jendea etortzen zitzaion ez dakit zertarako paperak prestatu behar zituela-eta, eta berak egiten zizkien, edo esaten zien nora jo behar zuten...".

Ekuadortik itzulita, abade izanda, Fagorren egon zen lanean hainbat urtez; horrez gain, trebea zen hainbat lanetan: "Elektrikari bazekien, iturgin ere egiten zuen, etxeko instalazioak, elizakoak... Orain, adibidez, esan didatenez, berak eramaten zuen Gasteizko seminarioko mantentzea, edo berak gestionatzen zituen gauza asko". Gogoan du baserriko lanetan ere nola jarduten zuen, eurekin baserrian bizi zela, Gasteiza joan aurretik, beste bat bezala, abade lanak amaitu ondoren.

Heriotzaren atarian, osabaren aldamenean izan zen azken egunetan Jesus Mari. Otsailaren 20an hil zen; COVID-19aren gaiak Euskal Herria bete-betean harrapatu aurretxoan, beraz. Azkenaldiko egoera bereziak izan du, dena den, ondoriorik kasu honetan ere: "Osabaren errautsak Azkoagako hilerriko hilobian sartzeko asmoa dugu; ea egoera hau pasatzen den, familia elkartu eta hori egin ahal izateko".

ABADE ZELA, FABRIKAN ERE LANEAN JARDUN ZUEN JESUS MARI ELEJALDEK

Pasio berak elkartuak

Josemari Velez de Mendizabalek adiskide zuen Jesus Mari Elejalde Plazaola, hura Amerikatik itzuli zenean pertsonalki elkar ezagutu zutenetik. Biak aramaioar, biak historiazale eta sorterriaren maitale, bazuten zerk lotu, beraz: "Aramaioko historia, kultura, eta abar beti maite izan ditut, eta beti izan ditut aztergai, eta Jesus Marik ere arlo berean ziharduen. Sarri ibili ginen biok elkarrekin, gure azterketak konparatuz eta elkarri lagunduz; nik neukana berari ematen nion, edo uzten nion, eta berak niri gauza bera".

Velez de Mendizabal eta Elejalde, gainera, elkarrekin, egun berean, izendatu zituen Aramaioko Udalak herriko seme kuttun, 1999ko irailaren 26an, eta horrek ere eragin zuen harremanean: "Areagotu egin genituen gure hartu-emanak, gure elkar-trukaketak, eta abar". Eta Elejalde Gasteiza joan zenean ere ez zen bien arteko kontaktua eten: "Astean bitan-edo Gasteizera joan behar izaten nuen nik ere, lan kontuengatik, eta sarri bisitatzen nuen bera bizi zen erresidentzian, eta jarraitu genuen, jarraitu genuen hil arte. Nire azken antzerki obra Gasteizen eman genuenean ere, etorri zen, gurekin egon zen eta... Harreman oso zabala izan nuen nik Jesus Marirekin; kultura gizon bezala, beharrezkoa zen berarekin egotea; Aramaioko kulturaren ildoetatik jotzeko, beharrezkoa zen Jesus Marirengandik edatea, eta ni egarri nintzenez, berarengana jo behar nuen ur horren bila". Eta gaineratzen du: "Askotan deitzen nion zerbaiten eske eta esaten zidan: 'Emadazu pare bat egun eta begiratuko dizut".

Hala ere, elkarlanean ez zuten lanik gauzatu: "Ez genuen inoiz ezertxo ere egin. Azkena, adibidez, Andra Mari kofradiaren gaineko nire liburuan, berak lagundu zidan, hitzaurrea berak egin zuen; nik baino askoz gehiago zekien berak, noski, kofradiari buruz, nahiz eta sekula ez zuen idatzi. Nik pasatu nizkion nire zirriborroak, berak ikusteko eta... Baina elkarrekin ez genuen inoiz ezer gauzatu: ni inoiz ez naiz izan beste inoren ez morroi eta ez maisu, eta berari ere gauza berdina gertatzen zitzaion". Nahiz eta gogoan duen Velez de Mendizabalek nola Elejaldek bere lan ezagunena egiterakoan, *Ayer y hoy del Valle de Aramaiona* izeneko liburua, laguntzaile izan zituen hainbat pertsona, zenbait kapitulu idatzi zituztenak, Periko Uribarrena, "maisu bat Araban, gaur egun", horietako bat: "Jesus Marik nolabaiteko eskola egin zuen, eskola ireki zuen Aramaion; izan ere, bere liburu famatuan, badira pertsonak Jesus Marirekin hasi zirenak eta berarekin lan egin zutenak; beraz, berak nolabaiteko eskola edo, behintzat, ildo bat ireki zuela esan nahi du horrek. Eta hor dauden izen batzuk oso inportanteak dira gaur egun, beste arlo batzuetan, baina bai".

1999AN IZENDATU ZUEN UDALAK ARAMAIOKO SEME KUTTUN, EGINDAKO EKARPENAGATIK

Aramaio eta ikerketa ziren Jesus Mari Elejalderen pasioak, eta bere zereginetarako lagundu zion, Velez de Mendizabalen ustez, elizgizon izaerak: "Normala den bezala, artxiboak-eta eskutik eskura zeuzkan, eta, beraz, ez zuen hain zaila egitea; baina orduak sartu behar zirela, derrigor: denok dakigu zen-



Jesus Mari Elejalde, gaztetan, abade. J.M.E. MONDRAGON

Jesus Mari Elejalde. J.M.E.MONDRAGON

Seme kuttun izendapen ekitaldi egunean. ARAMAIOKO UDALA

Aramaiori buruzko 'biblia'

Biblia legez definitzen du Josemari Velez de Mendizabalek Jesus Mari Elejalderen *Ayer y hoy del Valle de Aramaiona* liburua. Herriko historiako hainbat kontu izendatu eta gero –oinaztar eta ganboatarrenak; Limitaua-rekin lotutakoak; Santa Kruz apaizarenak...–, liburuaren aurkezpenean Juan Leibarrek dio Jesus Mari Elejaldek "hainbat misterio" argitu zituela lan hori argitaratuta, ordura arte "ezezagun" ziren hainbat dokumentu argitara atereaz: "Artxibategi eta liburutegietan, partikularren eskuizkribuetan eta jasotako lekukotzen bitartez egindako ikerketa lan handia da. Historia aurkezten digu, izen eta abizenekin, datekin eta sinadurekin, datuekin eta bere iturriak izendatuz". Eta jarraitzen du esaten: "Baiezta dezakegu Jesus Marik tentuz irakurri eta aztertu dituela Aramaiori buruz idatzi diren guztiak".

Elejaldek berak azaldu zuen liburuaren hitzaurrean hura idazteko egindako lana: "Pergamino zaharrekin ibili gara, mendetako eta hauts arteko loalditik atera ditugu. Bailarako bazter guztiak galdekatu ditugu, zuhaitz, harri eta bideko bihurgune bakoitza". Eta horrela izendatu zituen liburuan aurki zitezkeen gaiak: "Gure irudimenaren bitartez, haritzez eta pagoz bete ditugu mendiak, eta haietan, ehunka behi, behor, ahuntz, ardi eta txerri, bazkatzen. Entzun ahal izan dugu otsoaren ulua, neguko gau ilunetan, eta kanpai-hots alai edo tristeak egunsentian. Belztutako aurpegietako begi zuriz agurtu gaituzte ikazkinek, eta olagizonekin partekatu ahal izan dugu gure satoetako ardoa. Elizak eta dorreak jasotzen ikusi dugu, baita etxeak ere; bideak eta zubiak nola eraikitzen zituzten. Eta ikusi dugu bailarako jauna, galaz jantzia, erregearen gortean, edo anaien arteko borroketan odolez gorri; edo maitasun bila, xantaia, beldur eta zapalkuntza bidez".

Liburuaren bigarren edizioaren ale bat. J.I.

bat kostatzen zaigun datu berri bat ateratzea. Jesus Marik ere ordu mordoa sartu zituen bere ikerketa lanetan. *Ayer y hoy del Valle de Aramaiona* liburua da *biblia,* Aramaioko historiari buruz edo kulturari buruz zerbait jakin nahi duenak horra jo behar du, ezinbesteko liburua da".

Velez de Mendizabalen hitzetan, "XX. mendean, Aramaiori dagokionez, izandako ikerlaririk sutsuena" izan da Elejalde.

Abade lagunak ere hitz onak

Iñaki Oregi murgiarrak, berriz, abade lagun izan zuen; aurreko mendeko azken hamarkadan Aramaioko auzo batzuetan jardun zuen Oregik, eta kalean eta beste batzuetan Elejaldek. "Gizon jator bat" izan zela dio, "besteen alde lanean" ahalegina egin zuena, "Jesus jarraituz"; jendearekiko "hurbiltasuna" nabarmentzen du, eta "fede sakona", baita ere: "Jesus zuen eredu, bide. Beti zuen presente".

Dio "oso maitatua" sentitu zela Elejalderekin izan zen urteetan, eta "oso gustura" egon zela harekin: "Nahiz eta bera ni baino zaharragoa izan, hamabost urteko aldearekin, oso ondo konpontzen ginen, oso ondo egon ginen elkarrekin". Azkenaldian telefono bidezko tratua zuen lagunarekin: "Gaixotu zenean egin nion bisita, eta...".

Elejalderen izaera eta balio berezien adierazle da aurretik ere haren ilobak aipatutakoa, kooperatiban lanean ere ibili zela; Ekuadortik itzultzean izan zen, elizan laguntzearekin batera, fabrikan jarduten zuen: "Zen modu bat adierazteko, nahiz eta abade izan, lanean lortuko zuela ogia".

Aramaioko Udala

Aramaioko Udalak ere, azkenik, hitz onak baino ez, Jesus Mari Elejalde agurtzeko: "Bere bizitza, mundua, Euskal Herria, Aramaio,... ezagutu eta ikertzen eman zuen. Eta ekarpen handiak utzi dizkigu udalerrian. Horregatik izendatu zuten seme kuttun ere, bere garaian. Joan zaigu, bada, Jesus Mari Elejalde, Aramaioko seme kuttuna, abadea, historialaria, anaia, osaba,... baina berak egindako ekarpena gurekin geratzen da... Eskerrik asko, Jesus Mari!", zioen Lierni Altuna alkateak, Elejalde hil berritan.

"Larrialdietako laguntza eskaerak %53 hazi dira"

UNAI ELKORO ARETXABALETAKO ALKATEA

Debagoieneko alkateekin erronda egingo du Goienak datozen asteotan. Oraingoan, Aretxabaletakoak dihardu udal aurrekontuez, izurritearen kudeaketaz…

Aretxabaletako alkatea udaletxeko bere gelan. ENEKO AZKARATE LASPIUR

Eneko Azkarate ARETXABALETA

Pandemiak diru sarreretan eta, ondorioz, udal aurrekontuan nola eragin duen kontatu du Unai Elkoro alkateak. Udako jaiez ere jardun du.

Baina koronabirusak hankaz gora jarri du guztia, 2020. urtea ez ezik, agintaldia bera ere baldintzatuaz. Zenbateraino baldintzatu du aurtengo aurrekontua?

Aurreikusten dugu %20ko doikuntza bat egin beharko dugula aurrekontuari dagokionez. Bi milioi euro inguru dira gure aurrekontuan. Gainera, hau ez da konponduko aurten. Datorren urtera begira ere aurreikusi beharko da halako edo antzeko jaitsiera bat aurrekontuan. Eta okerrera ere egin dezake egoerak. Horrek ez du esan nahi %20 gehiago zorpetuko garenik. Ezin dugu hori egin. Iazko gerakin bat dugu 2.600.000 eurokoa.

Dagoeneko iragarri duzue hainbat obra potolo atzeratu egingo dituzuela; horien artean dago Santa Kurtz kaleko berrurbanizatze lanak.

Bai, hala da. Horiek baztertu egin ditugu. Saneamendu lanak, urbanizazio lanak… bertan behera geratu dira, oraingoz. Bi milioi euro inguruko lanak ziren. Asmoa zen aurten egiten hastea, baina 2022ra arte atzeratuko dira lan horiek, seguruen.

Beste inbertsio batzuk ere ezingo dituzue egin. Esaterako?

Hainbat inbertsio txiki atzeratu egingo dira: txakurren gunea, bizikleten gunea, futbol zelaiko argiak… Inbertsioak, oro har, atzeratu egingo dira, lehendik abian edo abiatzear zeudenak izan ezik. Ez da momentua inbertsioetarako.

Ze beste gastu edo partidatan igarriko da?

Gizarte laguntzek ez dute murrizketarik izango; kontrakoa, premiak handiagoak izango direlako. Gastu sozialak handitu egingo dira. Hori izango da gure lehentasuna.

Krisiak gogor jo du sektore guztietan eta gizarteko sektore ahulenei eragin die, batik bat. Igarri duzue hori?

Bai, bai, zuzen-zuzenean, gainera. Larrialdiko laguntzak eskatzera Udalera datozenen kopurua bikoiztu egin da apirilean. Guztira, 30 espediente tramitatu dira. %53, berriak. Hau da, krisi aurretik laguntzarik jasotzen ez zutenak. Eta besteei ere gehitu egin zaie laguntza.

Ze profiletako jendea da?

Jatorriz, latinoamerikarrak –venezuelarrak, boliviarrak, kolonbiarrak…–. Paperik bakoak. Egoera normalizatu bakoak, baina gurean, Aretxabaletan, bizi eta lan egiten dutenak. Orain arte ez dira etorri izan, lana izan dutelako. Etxeak garbitzen, tabernetan, ume-zaintzan… Baina orain, bat-batean, lan barik geratu dira eta larrialdietako laguntzak eskatzeko premian daude.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errentarik ere ez dagokie horiei?

Ez. Hori kobratu ahal izateko, gutxienez, hiru urtez egon behar duzu erroldatuta.

Osasun etxe berriarekin zer gertatuko da?

Atzeratu egingo da, baina ez da gure kontua bakarrik, Osakidetzarena ere bada. Hortaz, ezin data zehatzik esan. Hil honetan jakingo dugu zerbait.

Komentuko lanekin zer gertatuko da?

Aurrekoarekin lotuta dago. Edozelan ere, aretoa bazegoen aurreikusita egitea eta uste dut horri heldu ahalko diogula. Proiektua eginda dago. Agintaldi honetan egin gurako genuke. 200 bat laguneko edukiera izango du eta erabat diafanoa da, erabat karratua.

Santa Kurtz kaleko bidegorriaren lanak hasita daude. Aurrera jarraituko dute?

Iaztik datoz, 2019an adjudikatuta, eta lanak hasita ditugu. Horrekin aurrera egingo dugu. Iazko gerakinetatik deskontatuta daude lan horiek. Lanak bide onetik doaz eta abuztutako amaituta edukitzea nahiko genuke. Bestalde, Andra Mari auzuneko plazan badira garaje batzuk, urte asko daroatzatenak itoginekin, eta horiek berritzen badituzte, Udalari egokituko litzaioke gaineko urbanizazioa egitea. Heldu egin beharko diogu, ezinbestean.

"KRISI HONEGATIK, BI MILIOI EURO INGURU GUTXIAGO IZANGO DUGU, GAUR-GAURKOZ, AURREKONTUAN"

"URTE AMAIERARA ARTE, 80.000 EURO EMANGO DITUGU HERRIAN GASTATZEKO"

"JAIAK EGITEAREN ALDEKO GARA ETA BAGABILTZA LANEAN, EKITALDI JENDETSUAK SAIHESTUZ"

Harremanetan zabiltzate herriko dendari txiki eta ostalariekin?

Bai, etengabe; haien elkarteen bidez, bereziki.

Zeintzuk dira haien kezka eta eskaera nagusiak?

Batez ere, kezkak argitu nahi dituzte. Dirulaguntzen gainekoak, berriro irekitzeko baldintzen gainekoak… Esate baterako, terrazak dituzten tabernari askok dauzkate zalantzak eta ez dakite merezi ote zaien irekitzea, hasierako baldintzetan. Baina ez irekitzea erabakitzen badute, euren erabakia izango da, ez larrialdi egoerak behartutakoa. Eta erabaki horrek negozioendako eta langileendako ze ondorio izan ditzakeen galdetzen dute. Ez daukagu erantzunik. Galdera asko eta erantzun ziur gutxi.

Udalak ze neurri zehatz hartu du herriko komertzio eta ostalari txikiei laguntzeko?

Erosketa-bonuak jarriko ditugu salgai: 50 –10 bonu bostekoak– eta 5 eurokoak –10 bonu 50 zentimokoak–. Azken hauek, taberna edota litxarreria saltokietan erabiltzeko ere. Erabiltzaileak 35 ordaindu eta Udalak beste 15 jarriko ditu. %30eko deskontua egingo da herrian gastatzeko. Astelehenetik aurrera. Hilero, 10.000 euro jarriko ditu Udalak, urte amaierara arte. 80.000 euro, guztira. Epe-muga bat edukiko du: maiatzetik urte amaierara bitartean. Helburua da bertako komertzioa sustatzea, aretxabaletarrek bertan gastatzera bultzatuz.

Hemengaz! kanpaina ere egin duzue. Udala izan da bultzagilea?

Udaletik bultzatu da, dendariekin batera. Plataforma digital bat egin da, bideo batzuk ere bai, Gabonetako kanpainan-eta egiten dugun moduan... Plataforma hori hortxe geratuko dela uste dugu. Krisi egoera baten sortu da, baina aurrerantzean ere hor egotea espero dugu, beste erabilera batzuk emateko.

Foru Aldundiarekin egin dituzue batzarrak. Ze mezu heldu zaizue Ogasunetik?

Mezu nagusia, Foru Funtsetik %20 edo %25 gutxiago helduko zaigula. Maiatz amaieran zehaztuko da. Baina errebisatzen joango da eta okerrera ere egin dezake aurreikuspenak. Aretxabaletako udal aurrekontuaren erdia dator Foru Funtsetik. Herri txikiagoetan, akaso, aurrekontu osoa da. Hortaz, ia milioi eta erdi euro gutxiago jasoko dugu.

Langabezia tasa, Aretxabaletan, %6,61 zen urte hasieran; %6,81 martxoan; eta 7,48 apirilean. Zeintzuk dira Aretxabaletako enpresa nagusiak eta zein da haien egoera?

Copreci, Fagor Ederlan, Mondragon Assembly, CVL... Fagor Ederlanek autogintzan dihardu eta geldi dago sektore hori. Lan gutxi dute eta orain hasi dira berriro, mantso-mantso. Kostako zaio. Coprecin ohikoa baino lan jardun txikiagoa dute. Mondragon Assembly-k eutsi dio nola edo hala, besteak beste, maskarak-eta egiteko makinengatik... CVL itxita dago... Industriaren alorrean, ehuneko ehunean lanean gutxi daude. Dena den, aretxabaletarren %70ek baino gehiagok herritik kanpo egiten dute lan, ondoko herrietan gehienek. Duela 25 urte, askoz ere enpresa gehiago zeuden. Nahiz eta populazioak gora egin duen azken urteetan.

Kultura sortzaileak ere larri dira. Ezer berezirik aurreikusi duzue?

Aurreikusi dugu partida bat kultura sortzaileendako edo haien emanaldietarako, baina areto itxietan baino gehiago, kaleko ekitaldiei begira eta udara begira: uztailetik aurrera. Abuztuan, beste urte batzuetan baino mugimendu handiagoa aurreikusten dut Aretxabaleta bezalako barruko herrietan.

Jaietan jende gehiago ibil daiteke?

Izan daiteke, bai. Gaur-gaurkoz, jaiak egitearen aldeko gara eta bagabiltza antolatzen. Oso zaila da hainbat gauza orain kontratatzea, ziurgabetasun egoeran gaudelako, baina, beste modu batera bada ere, jaiak egingo ditugu. Oso jendetsuak izan ohi diren ekitaldiak, herri bazkariaeta, akaso, ezingo ditugu egin edo beste modu batera egin beharko ditugu... Makala altxatuko den galdetzen zidan orain hurrengoan herritar batek. Ba, akaso, bai, baina ezingo da horrenbeste jende batu plazan.

Aldez aurretik gordetako diru kopurua izango duzue jaiak antolatzeko?

Unai Elkoro, udaletxe aurrealdean, martitzenean. E.A.L.

"Erantzun bila datoz herritarrak, eta, askotan, ez daukagu erantzunik"

Zaila da Aretxabaletaren tamainako herri bateko alkate batek larrialdi egoera honen ondorioak kudeatu beharra. Bereziki, egoera horren ondorioz "goitik behera" hartzen diren erabakiak kudeatu beharra. "Pazientzia handiarekin ari gara, nazka-nazka eginda gaudelako hainbat jokabiderekin eta horrek sortzen digun ziurgabetasunarekin, egun bat eta bestea buletin ofizialari begira. Ezin da prentsaren aurrean atera eta erabaki batzuen berri eman, oraindik erabakiak ofizialak ez direnean. Nahasmen handia sortu du horrek eta geuk ordaindu dugu zati baten, geu garelako herritarrengandik gertuen gauden agintariak. Galdera askoren erantzun bila datoz herritarrak, eta guk, askotan, ez daukagu erantzunik", dio.

Etxeko balkoian, disko jartzaile

Jaiegunak edo aisialdi orduak konfinamendutik ondo daroatzala dio. Sukaldean aritzea gustuko du, "baita erosketak egitea" ere. Osterantzean, etxean sarean bilatzen ditu albisteak edo alabarekin jolasean aritzen da... "Azkar joaten da eguna. Kirolzalea ez naiz eta ez dut apenas kirolik egin. Kiloak hartu ditut", dio.

Zapatu gauak alaitzeko herritar batzuek hartutako ekimenean erabat murgildu da. "Nik neuk ere jarri dut musika balkoian. Udaletxetik hartu nuen musika ekipoa eta atera izan naiz zapatu iluntzeetan musika jartzera. Jendeak gustura hartzen du. Argiak-eta jarrita ditut oraindik balkoian. Laster kendu beharko ditut".

Gogorrena zer den galdetuta, zera dio: "Gertukoak agurtu ezin izana. Niri ez zait halakorik gertatu, baina hori oso gogorra da familiarren bat galdu duenarendako. Hori ez dugu ondo kudeatu". Edo jendeak ikustea kalean 94 urteko bat eta horregatik protesta egitea. "Zer egingo diozu, ba? Etxera bidali?".

Ez, murritzagoa izango da. Eta ez dugu aurreikusten musika kontzertu masiborik, beste urte batzuetan erreferentzia izan direnak. Beste talde mota bat, kalerik kale ariko dena... Halakoak bai. Oraindik ez daukagu erabat erabakita formatua, baina egoerak baldintzatuko du dena.

Zergatik jo du horren gogor koronabirusak Aretxabaletan, eta Leintz aldean, oro har?

Gasteiztik gertuago egotearren eta harako dugun joeragatik, seguruen. Gainera, lurraldeko lehen kasuak ere Leintz aldean atzeman ziren. Arrasate da koronabirus kasu gehien dituen Gipuzkoako bigarren herria, Donostiaren atzetik. Eta Aretxabaletak ere asko ditu, daukan populazioarendako. Hildakoak ere asko izan dira Arrasaten; batez ere, Iturbide zaharren egoitzan. Aretxabaletan ez dira heriotza asko izan.

Tabernak irekitzen hasiko dira astelehenean.

Bai; bagabiltza haiekin harremanetan erraztasunak emateko: espazioa zabaltzeko, terrazarik ez duenari edukitzeko baimena emateko eta terrazak edukitzearren kobratzen ditugun tasak kentzeko.

Koronabirusaren pandemiarekin zalantzak agertu izan dituzu. Ez dela ondo kudeatu?

Aldrebes jokatu dugu denok: erakunde publikoek, osasun erakundeek, zientzialariek... Gauzak aldatzen doaz, bai, baina datuetan oinarrituta. Eta ez dira datu fidagarriak egon. Hartu diren neurriak gogorrak izan dira, hori bai. Aste honetan jakin dugu Frantzian koronabirus kasu bat atzeman zutela abenduan; orain jakin dute edo orain eman dute aditzera...

'ALKATEAREKIN BERBETAN' ATALAREN BABESLEA

Konfinamenduan pantailak gehiago erabili dira

Gure lehentasuna: osasuna eta prebentzioa

Kontsultatu argi urdinetik babesteko lente eta ukipen lenteen eskaintza

multiópticas

ASTELEHENA – LARUNBATA

09:30 – 13:00

Arratsaldeak: kontsultatu

Tel.: 943 79 29 95 ARRASATE

Tel.: 943 76 15 75 BERGARA

Herritarren beharrei erantzuteko ekimenak

Alarma egoerak ekarri duen itxialdiaren ondorioz hainbat herritarren egoera ekonomikoak okerrera egin du eta egunerokoari aurre egiteko zailtasun handiak dituzte; horiei lagundu nahian dabiltza lanean Caritas, Udala eta Hankabeltz urdaitegia

Mirari Altube ARETXABALETA

Martxoaren 23an hasi zen Aretxabaletako Caritas dirulaguntzak ematen horren beharrean dauden hainbat aretxabaletarri; eta ordutik, astelehenero banatzen dute asteko laguntza. Elikagaien Bankuak, Udalaren bitartez, eta Hankabeltz urdaitegiak, ostera, elikagaiak banatzen dihardute.

Hankabeltz urdaitegiko Antonio Tamayo elikagai poltsa gertatzen. IMANOL BELOKI

Errenta ordaintzeko "kezka"

"Eskola itxi zutenean, eta ondorioz eskolako jangela, konturatu ginen hainbat familiak zailtasunak izango zituztela; izan ere, ez da gauza bera bi heldu elikatzea edo horiez gain beste bi edo hiru ume", dio Paloma Martinezek, Caritaseko ordezkariak. Lehen, zortzi bat familiak jasotzen zuen laguntza, eta orain, hamabost inguru dira: "Hegoamerikarrak dira gehienak. Orain-tsu arte, soldata bat izan dute, garbitasun edo zerbitzari lanak eginda. Baina orain, diru-sarrera barik geratu dira, paperik ez dutelako, kontraturik ez eta laguntza jasotzeko aukerarik ere ez. Eta etxean, ostera, gastu asko". Zenbat lagunen ardura duten etxean kontuan hartzen dute laguntzaren zenbatekoa zehazterakoan. Aretxarte merkatarien elkartearekin adostuta bonu batzuk ateratzeko asmoa ere badute. "Elikagaiak dituzten dendetan erabiltzeko izango lirateke, eta, horrela, laguntza alde bientzat izango da".

Eguneroko gastuekin batera askoren kezka errenta zelan ordaindu dela gaineratu du Martinezek: "Eta jasotzen duten laguntza guztia hara bideratzen dute. Ulergaitza izan daiteke batzuendako, baina alokairuaren kontraturik ez dute sarritan, eta beldur dira". Egunek aurrera egin ahala gero eta lagun gehiagok deitzen dietela adierazi du. Horretarako telefono zenbakia hauxe da: 688 76 80 84.

ARDURAPEAN DUTEN LAGUN KOPURUA KONTUAN HARTZEN DA LAGUNTZA ZEHAZTERAKOAN

Udaleko Gizarte Zerbitzuekin harreman estuan dihardute lanean, eta hara bideratzen dituzte hainbat; laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenak, esaterako.

Mikrokredituen aukera

Mikrokredituak eskatzeko aukera ere badu Caritasek, adibidez, hozkailua hondatu eta berria erosi gura duenarendako. Behar den diru kopurua zehaztu eta itzultzeko epea adosten da eskatzailearekin: "Emandako diru guztia ez da itzultzen, zati bat dirulaguntza eran doalako. Horren gaineko argibideak eskatzeko deiak izan ditugu, baina gero, inork ez du eskatu. Hain zuzen, gerturatu direnak izan dira negozioa berpizteko dirua behar dutenak".

Caritasi lagundu gura izanez gero, kontu korronte bat dute zabalik; hona hemen: 3035 0002 19 0020021045.

Elikagai Bankua, hilean behin

Caritasek ez du banatzen elikagairik; hori Elikagai Bankuak egiten du Udalaren bitartez. Gizarte Zerbitzuek adierazi dute hilean 30 bat lagunek jasotzen dutela. "Une honetan, COVID-19 gaitza dela eta, astero egiten zen freskoen banaketa ez da egiten; hilerokoa bakarrik".

Hankabeltz, elikagaiak banatzen

Hankabeltz urdaitegia, ostera, oinarrizko elikagaiekin osatutako poltsak banatzen dabil apirilaren 21a ezkero –kilo erdi arroz eta pasta, dozena erdi arrautza, 250 mililitro olio eta litro bat esne–. "Astero 50 inguru banatzen ditut, gehienak astelehenetan", dio Antonio Tamayo ugazabak. Eskertuta agertu da laguntza helarazi dioten herritarrekin: "Elikagaiak ekarri dizkidate eta dirua ere bai".

Tamayok hala jarraitzeko asmoa du. "Egunean bizi zen jendeak laguntza behar du, egun batetik bestera diru-sarrera barik geratu delako. Eta hori edonori pasa dakioke".

NIRE USTEZ

MIKEL ARROIABE

Leihoak

Mantso zihoan denbora niretzat, leihoan jarrita euriari begira, eta jendeak zion: mutil horrek amets bat bakarrik dauka…

Pantailek burmuinari kalte egiten ziotela esaten genuen, baina leiho horiek ireki behar izan ditugu gizarteak aurrera egingo bazuen, behintzat. Ostegun eguerdia zen ikasleak etxera bidali genituenean. Hogeita-piku urtetan erabilitako irakaste metodoak bazterrean utzi eta egun bakarrean telelanerako urratsa egin genuen. *Meet, Jitsi*… Izen berriak. Irakasleok gure etxeko leihoa ireki dugu parez pare eta ikasle guztiak sartu zaizkigu.

Kuadrillako poteoak ere bide bera jarraitu du, leiho birtualetan, zerbeza eskuetan egon gara ostiralero. Itxialdiak Aretxabaletatik kanpo harrapatu nau eta leiho bati esker AZ Gaubelakoen juergak jarraitu izan ditut.

Izan dira leiho gaiztoak ere, zelatarienak eta salatarienak. Izan dira komunikazioa ahalbidetu duten leihoak ere, euskal *txiolandia,* tokiko komunikabideak... Eta ezin ahaztu kulturgileek musu-truk eskaini dizkiguten emanaldiak; benetan maite zaituztegu.

MIRARI ALTUBE

Jendetza kirola egiten

Etxetik irteteko gogotsu zeudela erakutsi dute herritarrek; izan ere, jendetza elkartu da zapatuaz geroztik bidegorrian eta herri inguruko auzoetan. Apotzaga-Etxebarri, Izurieta, Kurtzebarri, Muru zein Urkulu aldera jo dute askok, aparteko eguraldia lagun. Dena den, gehienek bidegorria hautatu dute iluntzeetan joan-etorriak egiteko.

'#GariAtxabaltara' argazkiak bidaltzeko azken eguna da gaur

Etxetik etxera #GariAtxabaltara ekimenaren baitan, lelo hori duen argazkia atera eta sare sozialetara igotzeko eskatu du Aretxabaletako Sarek. Hona bideak: Whatsapp: 657 77 58 39; posta elektronikoa: *atxabaltakosare@gmail.com*; Instagram: *atxabaltakosare*; eta Twitter bitartez: *@Atxabalta1*. Horretarako azken eguna gaur da, maiatzaren 8a. Jasotako guztiekin bideo bat egingo dutela adierazi dute.

Valentziako Picassenteko kartzelan dagoen Garikoitz Garcia Arrieta aretxabaletarraren aldeko ekimenarekin bat egiteko eskatu diete herritarrei. "Bisitan joan ezin diren senideekiko elkartasun keinuak inoiz baino beharrezkoak diren honetan,euskal presoen eta iheslarien eskubideen alde jarraitzen dugula adierazi nahi dugu", esan dute Sareko kideek.

Terrazak handitzeko aukera eskaini du Udalak

Herriko hamahiru bat tabernak ateak irekiko dituzte astelehenean, zerbitzua terrazetan emateko baldintza beteta. Beste batzuek zalantza asko dituzte eta ez dute erabakirik hartu, oraingoz, eta hilaren 25a arte itxoingo duenik ere badago

M.A. ARETXABALETA

Ateak irekitze unerako gertatzen hasi dira herriko tabernak eta jatetxeak. Horretarako aukera izango dute datorren astelehenean, hilaren 11n, terrazetan zerbitzatzea erabakiz gero. Eta hori aprobetxatuko dute herriko hamahiru batek; hona hemen astelehenean ateak irekitzea erabaki dutenak: Bedarreta, Exprex, Orly, Buket, Danona, Iosu, Ogiberri, Arlutz, Izartu, Aretxabaleta okindegia, Atseden, Azkena taberna eta Anduaga jatetxea.

Aulkiak gertu Durana kalean, Danona tabernako terraza prestatzeko. MIRARI ALTUBE

Terrazak handitzea aztergai

Oraindik erabakirik hartu ez duten hainbat ostalaritza zerbitzu daudela adierazi du Nerian Perezek, Aretxarte merkatarien elkarteko zuzendaritzako kideak eta Dagda tabernako ugazabak: "Langileak ERTEan izanez gero zer gertatuko den laguntzekin eta beste hainbat kezka dituzte, eta horiek argitu ahala zabalduko dute". Beste batzuek, ostera, maiatzaren 25a arte itxita izatea erabaki dute. "Nik ez ditut irekiko ateak, oraingoz. Terrazak eguraldiaren menpe ere badaude eta...", adierazi du Perezek.

Astelehenean abian jarriko den lehenengo fasean, terrazak %50 bete ahal izango dira. Hori jakinik, Udalak erabaki du tabernariei terraza horiek handitzeko aukera eskaintzea. "Lurraren erabilpena erraztu gura dugu; betiere, baldintzak beteta", adierazi du Unai Elkoro alkateak eta gaineratu, dagoeneko agertu dutela interesa batzuek: "Hirigintza Sailekoak jarriko dira horiekin harremanetan, zein aukera dituzten aztertzeko eta proposamenik egokiena egiteko". Interesa duen beste tabernariren bat egonez gero udaletxera jotzeko eskatu du.

Hainbat jatetxe ere zabalik

Herriko hainbat jatetxek etxerako zerbitzua eskaini dute azken asteotan; Atsedenek eta Buketek, esaterako. Horiek, orain, ateak zabalduko dituzte, baita Anduaga jatetxeak ere. Bertara joan ahal izango dira bezeroak enkarguak jasotzera eta jarritako terrazetan kontsumitzera.

Basabe jatetxeak, ostera, hainbat enpresatako langileendako gertatu ditu bazkariak azken asteotan, eta hala jarraituko duela adierazi du.

Hainbat neurri hartuta irekiko dute parrokia astelehenean

Elizkizunetan parte hartzeko maskara eta eskularruak jantzita eroateko gomendatu diete herritar guztiei

M.A. ARETXABALETA

Erlijiorako erabiltzen diren guneek ateak irekitzeko baimena dute astelehenetik, hainbat baldintza beteta. Leintz barrutiko kideek aditzera eman dute parrokia ireki egingo dutela, eta horretarako zenbait neurri hartuko dituztela.

Elizan sartzerakoan, sarrerako mahaitxoan egongo den gel hidroalkoholikoarekin eskuak igurtzi beharko dituzte herritarrek. Era berean, emango den dirulaguntza mahaian bertan dagoen saskian utzi beharko dute.

Elizkizunak ohiko egunetan eta ordutegian esango dituztela iragarri dute; hau da, astelehenetik zapatura bitartean 19:00etan, eta domeketan, 12:30ean. Elizkizunetan parte hartzeko maskara eta eskularruak jantzita joatea gomendatu dute.

Astegunetako mezak kaperan esan izan dituzte; hemendik aurrera, parrokiaren espazio handian izango dira, herritarren artean distantzia handiagoa bermatze aldera. 50 bat lagunendako lekua egongo da.

Denboraldia bukatutzat eman du UDAk, kirol ekintzei dagokienez

Elkartea osatzen duten sailek neurrien gaineko argibide zehatzak jasoko dituztela zehaztu dute

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleta kirol elkarteko zuzendaritza batzordeko kideek jakinarazi diete elkartea osatzen duten kirolariei, entrenatzaileei, gurasoei eta bazkide guztiei 2019-2020 denboraldia bukatutzat eman dutela kirol jarduerei dagokienez; eta horren arrazoia da koronabirusak eragindako krisia. "COVID-19 gaitza dela-eta bizitzen ari garen alarma egoera honek kirolean ere eragin zuzena izan du, eta, ondorioz, baita UDAn ere", adierazi dute ohar bidez.

UDAk hainbat sail batzen ditu –futbola, areto futbola, karatea, gimnasia erritmikoa eta pilota–, eta, bakoitzak dituen berezitasunak kontuan izanik, hartutako neurrien gaineko argibide zehatzak jasoko dituztela adierazi dute.

Eskerrak ere eman gura izan dizkiete egunotan bidelagun izan dituztenei: "Eskerrik asko bide zail honetan gure ondoan egoteagatik; horrek lanean jarraitzeko indarra ematen digu, inoiz baino ilusio eta gogo handiagoarekin".

Asteburuei zentzua emateko emanaldiak

Aretxabaletako zenbait herritar leiho eta balkoietara irten dira konfinamenduko asteburuetan, instrumentuak eskuetan dituztela, bizilagunei musika pieza bat edo beste eskaintzera. Orokorrean, erantzun "positiboak" jaso dituztela adierazi dute

Imanol Beloki ARETXABALETA

Musikak onura ugari ditu. Zientziak frogatu du musikaren onurak harrigarriak direla bai psikologikoki eta baita fisikoki ere: erlaxatzen laguntzeaz gain, sentsibilitate emozionala garatzen du, estresa gutxitu... Hori horrela, zenbait aretxabaletarrek musikari bezala dituzten abileziak herritarrei erakutsi nahi izan dizkiete, eta, horretarako, leiho eta balkoietara irten izan dira konfinamendua hasi zenetik, instrumentuekin batera, kanta bat edo beste jotzera. Entseatzeko aprobetxatzeaz batera, bizilagunak entretenitzeko eta ondo pasatzeko helburuarekin atera dira hauek herritarren aurrera, eta trukean herritarrengandik jaso duten txalo zaparrada eta feedbacka ezin hobea izan dela adierazi dute protagonistek.

Manex eta Kaiet Repecho anaiak saxofoiekin etxeko balkoian. ANA ZURBANO

Jarraitzeko gogoz

Kaiet eta Manex Repecho anaiak domekero ateratzen ari dira balkoira saxofoiarekin pieza bat eskaintzera, 20:00etako txaloen ostean, eta gustua hartu diotela egitasmoari adierazi du beraien ama Ana Zurbanok: "Egoera zein zen ikusita, herritarrei zerbait eskaini gura zieten nire semeek, eta, lehenbizi, seme nagusia, Kaiet, irten zen kantu bat jotzera, eta anaia txikia batu zaio hurrengo emanaldietan. Erantzun ona izan du egitasmoak, eta entretenituta egoten dira, asko entseatzearekin batera. Errege Kopako asteburuan, esaterako, zapatuan, Realaren ereserkia jo zuten saxofoiarekin, eta domekan, berriz, UDAko ereserkia. Horrez gain, *Despacito* eta *Dance Monkey* kantuak ere jo izan dituzte, besteak beste. Joan den domekan izan behar zen azkenengo emanaldia, baina seme txikiak jarraitzeko gogoa zuela esan zidan. Gogotsu daude; beraz, oraingo domekan ere irtengo dira balkoira kantaren bat jotzera".

'Txara-bermu' egitasmoa

Unai Iturriotz aretxabaletarra, bestalde, semeekin irten izan da balkoira; bera trikitiarekin eta semeak tronpa eta tronpetarekin. Lehenengoz beraiek hasi arren, egitasmoa Txarapea auzoko bi blokeetako bizilagunen artera zabaldu izana azpimarratu du: "Aberri Egunean semea eta biok irten ginen balkoira bi abesti jotzera, eta herritarren erantzuna oso ona izan zen. Txalo zaparradaz gain, irrintzi asko entzun genituen, batak besteari erantzunez... Hala, kale bereko lagunekin hitz eginda, Txarapea auzoko goiko kaleko bi blokeetako bizilagunen artean dauden zenbait musikari batu, eta *Txara-bermu* izena jarri diogun ekimenarekin hasi ginen. Bizilagun bat, adarra jotzen kantuari hasiera emanez; beste batzuk, aldiz, ukeleleaz, baxuaz, bateriaz, edo aita-semea gitarrekin... Guztira, hiru domekatan egin dugu, eta joan den domekako saioarekin eman diogu amaiera egitasmoari".

Aita-semeak txistuarekin

Jokin Antxia eta Martin Antxia, berriz, txistua jotzen izan dira konfinamendua hasi zen bigarren asteburutik. Txandakatuz aritu dira biak, eta herritarren erantzuna ederra izan dela adierazi du Martinek: "Txistulari elkarteko kide batek Facebook sare sozialean zabaldu zuen zerbait egiteko deia, eta hala hasi ginen. Diana estiloan, aita 09:30ean irteten hasi zen balkoira, eta gero, ni, 10:30ean. Bakoitzak 5-10 minutu egiten genituen, eta pieza tradizionalak jo izan ditugu, batez ere. Hala, zenbait zapatu eta domekaren ostean, erabaki genuen joan den asteburuan izatea azkena. Hala ere, hemendik aurrera ikusiko dugu izango den besterik ala ez, baina egoera hau guztiz bukatzen denean uste dute egingo dugula zerbait ospatzeko".

Tradizionaletatik haratago

Txistuarekin, batez ere, pieza tradizionalak jotzen aritu diren arren, bestelako kantak ere jo izan dituela adierazi du Martinek: "Kanta tematikoak ere jotzen izan naiz. Derbi egunean, Realaren eta Athleticen ereserkiak jo nituen, Aberri Egunean zenbait euskal kanta ezberdin, Arabako patroiari eskainitako ereserkia San Prudentzio egunean... Eta, beste egun batean, La Polla Records eta Kortatu taldeen kantak ere jo nituen. Azken finean, asteburuei zentzu bat emateko eta dibertitzeko egitasmo moduan hartu dugu, eta bizilagunen erantzunarekin pozik geratu gara".



Martin Antxia balkoitik txistua jotzen. JON ANDER ALBERDI

Portasolgo jaietako antzinako argazkiak batzen ari dira

1950etik aurrera ateratako argazkiak dituen herritarrak 'Portasolekojaiak@hotmail.com' helbidera bidali ditzake

I.B. ARETXABALETA

Portasol auzoko jai batzordea hasita dago lanean uztailera begira, eta jaietako antzinako argazkiak eskatu dizkie herritarrei; 1950etik aurrera ateratakoak gura dituzte. Antzinako erretratu horri poltsikoko telefonoarekin argazkia atera eta honako helbide honetara bidali behar da: *Portasolekojaiak@hotmail.com*.

Iurgi Etxebarria Portasol auzoko jai batzordeko kideak esan du dagoeneko jaso dituztela banaka batzuk eta deialdia egin dutenek ahalik eta azkarren jaso nahi dituztela: "Deialdia orain hamabost egun egin genuen, eta, jaietarako denbora dezente geratzen den arren, jasotako materialari forma emateko eta zer egin erabakitzeko denbora izan nahi genuke. Oraingoz, jaso ditugu zenbait argazki, eta VHSn grabatutako 1986ko bideo bat ere bidali digute. Azken hau, dagoeneko herri guztira zabaldu dena...".

Portasolgo jaiak. IURGI ETXEBARRIA

Animalien araudiaren aldaketei ekarpenak egiteko epea, zabalik

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantzaren zazpi artikulu eguneratu ditu Udalak, eta horiei ekarpenak egiteko epea zabalik dago, maiatzaren 15a arte. 16 urtetik gorakoek egin ditzakete iradokizunak, Udalaren webgunearen bitartez –*Aretxabaleta.eus*–; izenabizenak eta NA adierazi behar dira horretarako.



Ixkur ile-apaindegian, gazte bati ilea moztu berri ateratako *selfie*-a. EIDER KORTAZAR

"Itxarote-zerrenda amaigabea da"

Astelehena ezkero zabaldu daitezke ile-apaindegiak. Eskoriatzan, Ixkur ile-apaindegiko Eider Kortazarrek adierazi du "egoera konplikatua" den arren itxarote-zerrenda luzea duela, eta momentu honetan hori ez dela txarra gaineratu

Imanol Beloki ESKORIATZA

BOE Estatuko Aldizkari Ofizialean domeka arratsaldean argitaratu zuten moduan, ile-apaindegiak astelehenetik ireki daitezke, eta Eskoriatzan, zenbaitek ordutik hasi dute euren jarduna. Herritarrek "pozik" hartu dutela argitaratutako adierazpena adierazi dute zenbaitek, baina orain lanez lepo daudela gaineratu gura izan dute.

Astelehenetik zabalik

Ixkur ilea-apaindegiko Eider Kortazarrek adierazi duenez, martxoaren 14tik itxita izan du ile-apaindegia, eta astelehenetik lan pila batekin ari da: "Egoera konplikatua da. Baina ondo ari naiz eramaten. Nik astelehenean ireki nituen Ixkur ile-apaindegiko ateak, gehienok bezala, eta bakarrik ari naiz lanean. Sekulako itxarote-zerrenda daukat, eta aste honetarako ez naiz ordurik ematen ari martitzenetik, dena beteta daukadalako. Gainera, bezeroak banan-banan sartu behar dira, eta horrek ez du lana errazten... pazientziaz hartu beharko dugu guztiok".

"Ixkur ile-apaindegiaz gain, Apaindu ile-apaindegiko Itziar Oyarzabalek eta Kiribil ile-apaindegiko Ainara Martinezek ere astelehenean ireki zituzten ile-apaindegiak. Villar ile-apaindegiko Bea Romerok martitzenean... horiek nik dakizkidanak", adierazi du Kortazarrek.

Etxez etxeko zerbitzua

Horrekin batera, erabakia hartzea kostatu zitzaion arren, etxez etxeko zerbitzua eskaini duela adierazi du Kortazarrek: "Zenbait bezerok ezin dute beraien burua garbitu, eskuak ez zaizkie iristen, eta, hasieran zer gertatuko zain egon nintzen arren, azken bi asteetan eskaini dut etxez etxeko zerbitzua. Beharrezkoa dute zenbaitek, eta eskaini beharreko zerbitzua da. Hala, beharrezko neurri guztiak hartuta egin dut."

ILE-APAINDEGIAK HORNITZEKO ZENBAIT MATERIALEN LAGUNTZA ESKAINI DIE UDALAK

Udalaren laguntza

Eskoriatzako Udalak ile-apaindegiak hornitzeko zenbait materialen laguntza ere eskaini diela adierazi du Kortazarrek: "Ibiltariak-eko Jon Pagalday eskoriatzarrak 3D inprimagailuarekin maskarak egin dizkigu komertzio guztioi, doan. Horrekin batera, joan den egubakoitzean deitu zidaten udaletxetik, ile-apaindegian genuen panoramaren berri izateko eta materialik behar nuen edo ez jakiteko. Badakit hainbat joan direla udaletxera material bila: maskarak, gela... Azken finean, material faltagatik ezin zabaldu izatea ekidin guran, laguntza oso ondo etorri da."

Uraren kudeaketa, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku

EAJren eta Eskoriatzako Elizateen Elkartearen baiezko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin onartu zuten

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako udalbatzako kideek ezohiko osoko bilkura telematikoa egin zuten joan den eguenean, eta udal webgunetik online jarraitzeko aukera ezarri zuten arren, zuzeneko emisioarekin arazoak izan zituzten eta ezin izan zen jarraitu *streaming* bidez.

Hainbat gai tratatu zituzten, eta zenbait erabaki hartu. Esaterako, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea uraren ziklo osoa izan zen onartutako puntuetako bat; EAJren eta Eskoriatzako Elizateen Elkartearen baiezkoarekin eta EH Bilduren abstentzioarekin onartu zuten.

EH Bilduk hainbat ekarpen egin zituen puntu horretan, baina horiek batzordeetan landu beharrekoak direla adierazi zion Josu Ezkurdia Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak. Honako hau adierazi zuen ezohiko osoko bilkura amaitu ostean: "EH Bilduk egindako zenbait ekarpen baikorrak izan dira, baina, beste batzuetan gertatu izan den moduan, proposamenak batzordeetan landu behar direla adierazi diegu, eta ez osoko bilkuran...".

EH Bilduren abstentzioa

Nestor Arana EH Bilduko zinegotziak, bestalde, honako hau argudiatu gura izan zuen: "Ur kudeaketa integralaren inguruan alde gauden arren, Udalak uraren kontsumoa murrizteko eta politika sozialak aplikatzeko eskumena galtzen ditu. Horretaz gain, herritarrei garbi azaldu behar zaie ez dela sinatu, hasieran esan zen moduan, herritarrei faktura %10 jaitsiko zaienik edo Marulanda, Zarimutz edo Marinera ura eramatea Gipuzkoako Ur kontsortzioak ordainduko duenik. Horretaz gain, prozesu honetan Mazmela ere kontuan hartu behar dela aldarrikatu dugu. Azkenik, Udal Gobernuak aipatzen duen herritarren parte hartze edo batzordeetako parte hartze sistemarekin kexu gara. Ez dute parte-hartze egokia bermatzen; horregatik, ekarpenak osoko bilkurara eraman behar izaten ditugu".

Aho batez onartuak

Puntu honez gain, Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileari eskumen arlo bat ematea onartu zuten aho batez. Hain zuzen ere, jasangarritasun energetikoarena. Hori horrela, Hirigintza batzordean landuko dituzte hemendik aurrera jasangarritasun energetikoari dagozkion gaiak.

Horrez gain, *Gipuzkoako eskalada-guneak–berrekipamendua eta mantenimendua 2017-2020*–proiektuan parte hartzeko konpromisoa onartu zuten. Hau ere aho batez onartu zuten. "Eskoriatzan, Atxorrotxen dugu eskalatzeko gune bat, baina arautu barik zegoen. Hala, orain, araututa dago gune hori...", adierazi gura izan du Josu Ezkurdiak.

Kirol jarduerak edo paseoak egiteko baldintzak

Maiatzaren 2tik aurrera gauzatu ahal diren kirol jardueren edo paseoen gaineko informazioa ezarri dute udal webgunean. Eskoriatza 5.000 biztanletik beherako herria izanik, ez du adinkako ordu-mugarik, eta jarduerak 06:00ak eta 23:00ak bitartean gauzatu ahal dituzte. Hori horrela, aprobetxatzen ari dira herritarrak. Esaterako, Atxorrotxeko eguna pasa berri, askok aprobetxatu dute bertara igotzeko.

Herritarrei zuzendutako honako mezu hau helarazi gura izan dute Eskoriatzako Udaletik: "Orain arte eskoriatzarrok taxuz bete ditugu eskatutako baldintza eta neurri guztiak. Badakigu gure herriak kirola egiteko aukera ederrak eskaintzen dituela eta kirolzale asko dagoela Eskoriatzan. Baina jarrai dezagun, orain arte moduan, erantzukizunez jokatzen, lehenbailehen normaltasunera iritsi ahal izateko".

Iaz, San Pedro jaietan, Fernando Eskoriatza plazan egindako herri bazkarian. GOIENA

Sanpedroak bertan behera uzteko proposamena

Batzorde informatzailean San Pedro jaiak suspenditzea proposatu dute aho batez. Horrekin batera, maiatzaren 19an, herriko talde eta eragileekin batuko dira Eskoriatzako udal ordezkariak, kultura eta komertzioa biziberritzeko asmoz

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Kultura batzordeak aurtengo San Pedro jaiak bertan behera uztea proposatu du; izan ere, edukiera mugak, autobabeserako bitartekoak eta Espainiako Gobernuak koronabirusaren hedapena geldiarazteko ezarritako gainerako neurriak direla eta, ezinezkoa da ekitaldi masifikatuetan betetzen direla bermatzea. Gainera, aurten diru-bilketan jaitsiera handiak espero direla adierazi dute Udaletik, pandemia eragiten ari den ezohiko gastuei gehituta, udal aurrekontuak baldintzatuko ditu, eta aurrekontu horiek nabarmen doitu beharko dira. Hori dela eta, jaietako partidaren zati bat COVID-19aren ondorioak arintzeko erabiliko dela gaineratu dute, eta beste zati bat etorkizunean antolatuko diren jardueretarako izango dela, betiere guztien segurtasuna bermatuz.

Hala ere, ez dute baztertzen ekintza bat edo beste egingo denik, baina ez dira izango orain arte moduan egindako festak.

Ekintzaren bat edo beste

"Gauza sinbolikoren bat egiteko aukera izango delakoan gaude San Pedro jaietan. Hala ere, ez dakigu zein egoera izango den egun horietan", adierazi du Antonio Regañok. Hala ere, ekintza jakin batzuk egingo dituztela gaineratu du: "Adibidez, musika banda irteteko prest agertu da, eta hori posible litzakeela uste dugu...".

Ezohiko batzordea

Martitzenean egindako batzorde informatzailean jaiak bertan behera uzteko erabakia aho batez hartu zutela adierazi du Antonio Regaño zinegotziak. Horrekin batera, Kultura batzordeak ezohiko batzorde bat sortzea ere proposatu zutela gaineratu du eta maiatzaren 19rako bilera bat deituko dutela azpimarratu du Eskoriatzako kultura talde eta eragileekin. Hala, ekitaldien agenda bat egin nahi da, eta herria biziberritu. Horrela, alternatibak bilatu nahi dituzte, herritarrek ekitaldi ludiko eta kulturalez goza dezaten eta, ahal den neurrian, tokiko ekonomia bultza dadin.

HERRIKO TALDEEKIN BATUKO DIRA UDAL ORDEZKARIAK, KULTURA BIZIBERRITZEKO

'Eskoriatza bizirik' kanpaina

Eskoriatza bizirik izeko kanpaina jarriko dutela abian ere gaineratu gura izan du Regañok. "Eusko Jaurlaritzak jai eta kultura ekitaldien mugei eta betebeharrei buruz emango dituen jarraibideak ezagutu ondoren, maiatzaren 19an egingo dugu guk bilera elkarte eta eragileetako kideekin. Hala, kultura egiteko modu parte-hartzaile berri bati hasiera emanez".

CARLOS GARCIA

Harrera beroa etxera bueltan

Edwingen sarkoma deritzon tumore bat antzeman zioten Carlos Garcia eskoriatzarrari, eta, ebakuntza guztiak amaituta, kimioterapia tratamendua ez denez uste bezain eraginkorra izan, azken ebakuntzarako laguntza ekonomikoa eskatu, eta lortu du. Nafarroako Unibertsitateko ospitalean egunak egon ostean, txalo zaparrada ederra eskaini diote etxera iristean.

EskoXtrem mendiko bizikleta martxa ez da egingo uztailean

Uztaileko lehen asteburuan egin ohi den EskoXtrem Eskoriatzako mendiko bizikleta martxa ez egitea erabaki dute antolatzaileek. Aurtengoa 31. edizioa izango zen, eta prestatzen ari ziren senda berriak eta listoia maila bat gorako asmoa bertan behera geratu zaie. Horrekin batera, aurtengo kartelerako irudia ere prest zuten, baina ez egitea erabaki dute. Antolatzaileek honako mezu hau idatzi dute: "Pena handiarekin, baina aurtengo edizioa %99 bertan behera geratzeko aukera dago. Ibilbide zoragarria geneukan prestatuta. Eskerrik asko, Karmelo Oñate, gertatu duzun kartelerako irudiagatik. Ederra benetan".

Ainize Lizarraldek hainbat ariketa saio eskaini ditu

E-Goitek kirol zerbitzuaren bitartez, Ainize Lizarralde Manuel Muñozeko kirol aholkulari eta koordinatzailea bideoak egiten ari da etxean egin daitezkeen zenbait ariketa saiorekin, eta horiek *Eskoriatza bizirik* Youtube kanalean ikusi daitezke.

Entrenamendu funtzionala lantzeko egin daitezkeen ariketa ezberdinen berri eman du bideo batean. Berotzeko ariketak, entrenamendu funtzionala eta luzaketak eskainiz. Horrekin batera, hiru kanta oinarri, zunba saioa ere eskaini du. Normalean zunba saioetan dantza ez azaldu arren, zenbait pauso ere irakasteko aprobetxatu du.

Lanen entrega-epea domekan amaituko da

Domeka honetan izango da Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako playback txapelketara begira lanak entregatzeko azken eguna. Saridunak zeintzuk izan diren, berriz, maiatzaren 15ean jakinaraziko dute Facebook sare sozialaren bitartez

Imanol Beloki ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako Playback txapelketara bideoak bidaltzeko azken eguna maiatzaren 10a da, domeka. Dagoeneko jaso dituzte zenbait lan, eta Inkernu tabernako langileek egindako bideoa eskegi dute sare sozialetan, eskoriatzarrak egitasmora batu daitezen.

"Inkernu tabernakoek umorezko bideoa egin dute, eta parte hartu gura duten herritarrek estilo bereko bideoak bidaliko dizkigutelakoan nago. Hala ere, sorpresaren bat edo beste egon daiteke... Uste dut oso aberasgarria dela halako txapelketa, egitasmo edo bestelakoak antolatzea, ekintza kulturalak fisikoki albo batera dauden une honetan. Guk ere nostalgia puntu bat izango dugu asteburuan, orduan ginen-eta ospatzekoak Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna. Beraz, ea lan txukunak jasotzen ditugun, eta irabaz dezala onenak. Hala ere, horiek ikusten dibertituko garela ez dut zalantzarik".

Inkernu tabernakoek egindako laneko une bat. ATXORROTX KULTURA ELKARTEA

Saridunak, maiatzaren 15ean

Domekan bukatzen da lanak entregatzeko epea, eta irabazleak zeintzuk diren, berriz, maiatzaren 15ean jakinaraziko dute, Atxorrotx Kultura Elkartearen eta Inkernu tabernaren Facebook orrialdeetan: "Saridunen iragarpenarekin batera, jasotako lan guztiak igotzen hasiko gara bi orrialdeetara, jarraitzaile guztiek ikusi ditzaten".

Herritarrei, animatzeko eskatu

Familian, lagunartean edo bakarka grabatutako bideoak txapelketara aurkezteko eskatu gura izan dute Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek: "Asteburuan izango dute azken txanpa herritarrek beraien lanak aurkezteko. Hala ere, aurrez esan moduan, zenbait baldintza bete beharko dira: lanak horizontalean grabatuak izan beharko dira, parte hartzea eskoriatzarren artera mugatuko da, eszenaratzea baloratuko da... Hala, aukeratutako kantuak euskara hutsean izatea funtsezkoena izango da. Guztira, hiru sari egongo dira, gero hauek Eskoriatzako Axtroki Merkatari Elkarteko dendetan gastatu beharko direnak, eta lanak *inkernu@atxorrotx.eus* helbide elektronikora bidali beharko dira.

"Orain, agian, animatuko gara bertakoa ezagutzen"

LIBE RAMILA GATZ MUSEOKO LANGILEA

Martxoaren 13an itxi zituen ateak Gatz Museoak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Konfinamenduak eta alarma egoerak gogor astindu dute Leintz Gatzagako Gatz Museoa ere. Martxoaren 13an itxi zituen ateak, eta ordutik barruko lanak egiten ibili diren arren, ez dituzte bisita gidaturik jaso. Urteko garairik onena galdu dute. 370 bisitari gutxiago izan dituzte.

Gatz Museoarentzat sasoi ona izanda, galera handia izan da museoa itxi behar izana?

Guretzat urteko garai onenak dira martxotik ekainera arte bitarteko egunak: ikastetxeetako irteerak izaten ditugu, erretiratuen bisitak asteburuetan, udaberria da eta irteerak egitera animatzen gara... Beraz, kalte handia izan dugu.

Bisitez gain, salmentan ere eragin handia, ezta?

Urtarrilean eta otsailean gogor jardun genuen gatza ekoizten. Bisita gidatuetan eta baita bailarako eta Gipuzkoako hainbat dendatan egiten den gatz salmenta moteldu egin da. Museoa itxita dagoenez, bertan ezin dugu saldu, dendetara ezin zara joan zure produktua saltzera ez dutelako denborarik, eta salmenta puntu asko ere itxita daude; beraz, egoera gogorra da.

Egoera latza izan arren, alde positiborik ba al du egoera honek?

Azken egunetan, orain arte urteak emandako datu eta kopuruak zenbatzen ari gara. Konfinamendu-arintzeari aurre egiteko aukerak aztertzen ari gara, eta etorkizuna ez da oso baikorra.

Libe Ramila. MIREIA BIKUÑA

Orain, denok konturatu gara bertako merkatari txikien lana zein den, eta *0 kilometro* horri eutsi behar diogu. Orain arte. gipuzkoarra bertatik ezin denean irten, agian, animatuko gara bertakoa ezagutzen.

Noiz irekiko dituzue ateak?

Maiatzaren 11 entzuten da, baita maiatzaren 25a... Herenarekin hasiko gara lanean. Herritarrak ere ez dakit animoz egongo diren leku itxi batera sartzeko. Mendira edo hondartzara, seguruenik, bai, baina museora? Ez dakit nik...

Zer duzue esku artean orain?

Museoko teknikariok batzarra egin dugu udal arduradunekin eta Gazitzen elkartearekin, B planak topatze aldera. Bisita gidatu birtualak egiteko proposamena jarri dugu mahai gainean, baina, oraingoz, baztertu egin dugu aukera hori.

Mendiaz gozatzen

Joan den domekan ospatu zen Atxorrotx mendiko eguna, eta, ordutik, Eskoriatzako mendi inguruetan aritzeko aprobetxatu du herritar askok. Honako hau adierazi du Mikel Zubizarreta eskoriatzarrak: "Paseoan, korrikan edo bizikletan aritzeko gogo biziz geunden horiek disfrutatzen ari gara, eta jende asko ikusten da mendian. Hala ere, ez da esajeratua...".

GARTZI GOROSABEL

Leintz Gatzagako MTB martxa ez da egingo aurten

Dorleta Txirrindularien Lagun Elkarteak antolatutako Gatzagako MTB martxaren hemezortzigarren edizioa ekainaren lehenengo aste bukaeran egin nahi zuten, baina antolatzaileek ekitaldia ez egitea erabaki dute.

"Antolakuntza aldetik lan handia ematen du, eta, ezjakintasuna nagusi, uste dugu ez dela proba egiteko unea. Lehen, Gatzagako jaietan egiten zen ekitaldia, irailean, eta, bizpahiru urte dela, ekainaren lehenengo asteburura aldatu genuen. Hala, orain, atzeratzeak ez du zentzurik. Beste proba batzuk ere badaude, eta denak pilatu daitezke. Beraz, data errespetatuta, urtebeteko saltoa egingo dugu. Hala, denbora izango dugu hobeto antolatzeko eta berrikuntzak ondo pentsatzeko", adierazi du Beñat Agirreurreta Gatzagako MTB martxako antolakuntza taldeko kideak.

Barrenkaleko Titarak mertzeria denda asteon, maiatzaren 11n berriro ere irekitzeko lokala atondu ostean. JOKIN BEREZIARTUA

Bonuak eskertu dituzte, ateak berriz ireki eta fase erabat berriari ekiteko

Oñatiko irabazi asmorik gabeko Magnet kooperatibaren 'Kuttuna.org' izeneko bonuen plataformari esker, herriko 59 denda eta zerbitzu-emaile hasi dira lehen salmentekin; asteon, gutxi batzuek ireki dituzte ateak, asko hilaren 11ko irekierara begira daude

Jokin Bereziartua BERGARA

Alarma egoeran funtsezkoak ziren jarduerez harago, komertzio eta zerbitzu batzuk hasi dira gutxika euren ateak irekitzen edo irekierarako prestatzen. Hala, maiatzaren 2tik aurrera komertzio txikiari beste laguntza bat emateko bonuen sistema bat jarri zuen martxan Udalak.

Herritarrek erosten dituzten bonuen zenbatekoaren %20 diruz laguntzen du Udalak; betiere, bonua 200 eurora artekoa bada –25 eurokoa da bonuen gutxieneko balioa–. Hain zuzen ere, erosleak, 40 eurotan eskuratuko luke 50 euroko bonua; edo 160 eurotan 200 eurokoa. Bestetik, laguntza erosketa ezberdinetan banatu eta ahalik eta establezimendu kopuru handienera hel dadin, pertsonako 400 euroko muga ezarri da bonuak erosteko. Erosketa bonua eskuratu gura duenak izena eman behar du *www.kuttuna.org* webgunean. Ostean, txartela erositakoan, PDF formatuko fitxategi bat helduko da erosleen posta elektronikora, eta dokumentu hori erakustea beharrezkoa izango da komertzioetan deskontua aplikatzeko. Bestetik, jadanik erosketa bonua eskuratua zutenek haren balioaren %20ko laguntza jasoko dute, bonuaren balioa %20 handituz.

Lehen bost egunetan, 37.300 euro

Ekimenak izan duen harrerarekin "oso pozik" daude Udala eta Bedelkar, eta horretarako datu esanguratsu batzuk eman dituzte: maiatzaren 2an martxan jarri zenetik maiatzaren 6ra arteko datuen arabera, 37.300 euro saldu dira bonutan, 480 erosle izan dira eta herriko 59 denda edota zerbitzu-emaile batu dira ekimenera, oraingoz.

LEHEN BOST EGUNAK DATUTAN: 37.300 EURO SALDUTA, 480 EROSLE ETA 59 ZERBITZU-EMAILE

Batzeko aukera dago oraindik ere

Oraindik ekimenera batu ez diren merkatariek *www.kuttuna.org* webgunean sartu beharko dute, *Merkataria zara?* atalean. Bertan, komertzioaren profilari dagozkion datuak bete beharko dira, ordainketa sistemarena salbu; izan ere, Udalak kudeatuko du hobaria duten bonuen ordainketa, eta, era berean, Udala egingo da salerosketa komisioaren kargu. Edozein argibide jasotzeko: 943 77 91 00 edo *garapena@bergara.eus*.

Udalak sustatu, Bedelkarrek baliatu



AINHOA LETE GARAPEN EKONOMIKORAKO ZINEGOTZIA

"Oñatiko irabazi asmorik gabeko Magnet kooperatibaren bidez jarri dugu martxan; bonu sistema ezberdinak begiratu genituen, eta honi onura handia ikusten diogu, dendariak unean bertan jasotzen duelako dirua. 20.000 euro bideratu ditugu; beharra balego, kopuru hori handitu egingo genuke".



MAITANE AZKARATE BEDELKARREKO PRESIDENTEA

"Bizi dugun garai latz honetan edozein laguntza dator ondo. Bonuak oso harrera ona ari dira izaten, oraingoz; ezin da ahaztu itxita gauden bitartean diru sarrera bat izateko modu ia bakarra dela. Diru sarrera barik eta gastu finkoek bere horretan jarraitzen badute, negozio batzuek behin betiko itxi beharko dute".

Gobernua, aurrekontua berrikusten

Udal Gobernuak atzo aditzera eman zuen urtarrilaren 27an onartu zen udal aurrekontua berrikusten ari direla: "Begi bistakoa da krisi honek eragin ekonomiko handia izango duela, eta hori ere bada lehentasun Udalarentzat. 2020rako onartutako aurrekontuek ez dute gaur egungo egoera islatzen. Diru sarrerak asko jaitsi zaizkio Udalari, eta gastu eta lehentasun berriak azaldu dira. Lehentasunak zehazten ari gara, egoera berriari modu errealista eta eraginkorrean aurre egiteko. Guztiz baldintzatuko du krisialdi honek aurrekontua, eta COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezko baliabideak jarriko dira". Egoera okerrena bizi dutenei begira, dirulaguntza batzuk martxan daude; Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, kasu.

Tokiko merkataritza laguntzeko bonuen sistemarekin pozik daude, eta bestelako neurri batzuen "bideragarritasuna" aztertzen ari dira; aurrerago zehaztuko dituzte neurri horiek. Aisialdirako ere "lanean" ari direla diote: "Aldaketa nabarmenak egin beharko dira. Hainbat agertoki aurreikusten ari gara, horien aurrean nola jokatu zehazteko. Jaiak, kultura, kirola eta bestelako aisialdia egoera berrira moldatu beharko dira, baita Udalaren azpiegiturak ere". Azkenik, herritarren laguntza ezinbestekoa izango dela diote: "Krisi honek gogor joko du; herritarren, komunitatearen garaia da. Erabaki dezagun zein Bergara nahi dugun, eta jo dezagun guztiok horrantz".

EAJko Elena Lete, Lander Arregi, Esther Ortiz de Zarate, Maite Agirre eta Joseba Elosua, agerraldi telematikoan. JOKIN BEREZIARTUA

Udal gerakina krisirako bideratzea eskatu dute

Altxortegiko gerakineko 2.300.000 euroak COVID-19ari aurre egiten laguntzeko baliatzea eskatu dio EAJk Udal Gobernuari; partida zehatzak proposatu dituzte zortzi lerrotan, eta baita "hasieratik" erakutsi duten laguntzarako prestutasuna berretsi ere

Jokin Bereziartua BERGARA

2019ko udal aurrekontuko gerakina, 2.300.000 euro ingurukoa, COVID-19ak eragindako krisia ahalik eta gehien arintzeko bideratzea eskatu zion EAJk Udal Gobernuari, martitzenean. Horretarako "neurri zehatzak" proposatu dituzte jeltzaleek, zortzi dirulaguntza lerrotan banatuta. "Gure herritarrak babestu behar ditugu, eta haien ongizatea bermatu. Era berean, Bergara berriz martxan jartzeko plana zehaztu behar da", esan zuen Elena Letek eguazten arratsaldean, lehenengoz egin zuten prentsa agerraldi telematikoan.

Hiru ardatz nagusi planteatzen ditu EAJk: gizarte arloa, arlo ekonomikoa eta kultura arloa. Proposatzen dituzten zortzi dirulaguntza horietatik zazpitarako diru-kopuru zehatz bat dute aurreikusita; hau da, zazpi partida horien batuketak gaur egun Udalak duen iazko aurrekontuko gerakina emango luke emaitza moduan: 2.300.000 euro.

Hirugarren adinaren zaintza

Honako hauek dira nabarmendu dituzten zortzi lerroak: hirugarren adina; tokiko merkataritza; herriko negozioetan trukatzeko bonuen programa indartzeko proposamena; ostalaritza, autonomoak eta enpresa txikiak; kultura eta kirol taldeei bideratutako laguntza eta aholkularitza; langabezia programak eta nekazaritza auzoetarako zuntz optikoa.

COVID-19ak gehien kaltetu duen hirugarren adinari begira, esaterako, 400.000 euroko partida proposatzen dute. Honela azaldu dute partida horren arrazoia: "Eguneko zentroak itxita dauden bitartean eta Mizipiruldek egoiliar berririk hartzen ez duen bitartean, zerbitzua beharrezkoa duten herritarrei laguntza izan dezaten".

880.000 euro bertako komertziora

EAJrentzat "lehentasunezkoa" den beste sektore bat da tokiko merkataritza, eta bi laguntza lerro proposatzen dituzte. "Ateak berriro ireki ahal izateko" laguntza, batetik; 470.000 euro bideratzea proposatzen dute jarduerok itxita egon diren bitartean izan dituzten gastuei aurre egiteko, eta 130.000 euro lokalak COVID-19aren aurrean egokitu ahal izateko neurriak ezartzeko.

Gainera, Udal Gobernuak maiatzaren 2an martxan jarri zuen bonuen programa (ikus 28. orria) indartzea eskatu du EAJk: "20.000 euroko programa ez da nahikoa da eta batzuei bakarrik bideratzen zaie". Horregatik, proposatzen dute onuradun ezberdinak definitzea: langabeak, ERTEan edo aldi baterako lan erregulazioan dauden langileak, hirugarren adinekoak eta egoera larrian dauden familiak. Eta, komertzioaren irekiera errazteaz gain, herritarrei Bergaran erosteko aukera bermatuko litzaieke horrela, EAJren arabera; 280.000 euro bideratzea proposatzen dute. Jeltzaleek "argi" dute 2020ko udal aurrekontuak ez duela gaurkotasunik eta "plan integral bat" eskatzen dute, gainerako erakundeekin elkarlanean.

"Baldintza gabeko" laguntza

Apirilaren 5ean, EAJk laguntza eskaini zion Udal Gobernuari, "inongo baldintza barik eta eskaera zehatz bat" eginda: "Eskatu genion udal aurrekontuaren birmoldaketa egitea agertoki ezberdinetara egokituta, lehentasun berriak zehaztea, eta beste hainbat lanketa elkarlanean garatzea". Diotenez, ez dute erantzunik jaso eta alarma egoerak bere horretan jarraitzen duenez "proposamen zehatzak" aurkitu dituzte asteon. "Hasieran esandakoa berresten dugu: gure lanerako prestutasuna, esperientzia eta ezagutza izango du Udal Gobernu honek krisi honi aurre egiten saiatzeko", gaineratu dute.

NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

Hartu-emanak

Ez dut COVID-19aren gainean hitz egin nahi, baina gure bizitzen erdigune bilakatu denez, nekez pentsa dezaket birusaren itzalaren eraginik gabe. Harremanen gainean hitz egin nahi dizut gaur. Hartu-emanak, ederra da zentzu literala, eta ederra benetan hartu-emanak direnean. Ez da gai berria, inolaz ere, baina asko aldatu dira harremanak azken sasoian, nire kasuan –zuetako askorena ere izan liteke–. Egunero inguruan nituen pertsona asko erabat desagertu dira: ezagunak, egunero kafea ateratzen zidana... Aspaldi galduta zeuden batzuk agertu dira ere osasun eta familiaz galdezka, *harremanak* berrartuz... Harreman berriak edo gertuagokoak sortu dira; gure patioko bizilagunekin sortutakoak kolore asko eman die nire egun ilunenei...

Kurioscak gertatzen diren mugimenduak, eta hauen atzean daudenak: beharrak, beldurrak, maitasuna, ardura, laguntasuna...

Buelta batzuk eman ostean eta besteen tokian jartzeko ariketa egin ostean, betiko ondoriora heldu naiz. Saia zaitez ezer ez itxaroten, daukazunaz gozatzen eta nahi duzuna lortzeko borrokatzen.

Zaindu zaitez eta zaindu itzazu zure hartu-emanak.

Udaleku irekiak apar festa fresko batekin borobildu zituzten iaz; ziurtatzeke dago halako irudiak aurten errepikatuko diren. JARDUN

Udako ekitaldietaraino heldu da birusaren itzala

COVID-19ak urteroko udako eskaintza ere baldintzatuko du, eta Udalak udaleku irekietarako eta kirol campuserako prozedura bakarrik ireki du; ordainketarik ez da egingo antolatzeko bermea jaso arte, baina izena ematea derrigorrezkoa izango da

Jokin Bereziartua BERGARA

COVID-19aren itzala heldu da dagoeneko udako ekintzetaraino, Udalaren urteroko udako eskaintza baldintzatuko du-eta "erabat". Egitekotan, udaleku irekiak eta kirol campusa izango dira egingo diren bakarrak.

Gainera, Udalak asteon iragarri duenez, bi jarduera horiek egingo diren ere ez dakite gaurgaurkoz: "Azken urteetan baino eskaintza urriagoa izango da aurtengoa, eta eskainiko ditugun bi ekimen nagusiak ere ez dakigu aurrera eraman ahal izango ditugun. Martxan jarri ditugun bi ekimenetako batean izena emateko, umearen datuak bete behar dira, orain ez delako ordainketarik egin beharko. Aurrerago, ekainaren 8tik 19ra bitartean, udaleku irekiak eta kirol campusa aurrera eramateko moduan bagaude eskatuko da ordainketa egitea. Horretarako izena eman dutenekin posta elektroniko bidez harremanetan jarriko gara".

Azken eguna, maiatzaren 24a

Udaleku irekiak antolatzeko aukera balego, ekainaren 29tik uztailaren 24ra izango lirateke eta ordutegia ohikoa litzateke: 10:00etatik 13:00etara. Azken urteetako ohiturari eutsiz, aurten ere aukera legoke hiru edo lau asteko udalekuetan izena emateko. 2008 eta 2017. urteen artean jaiotako umeek hartu ahalko lukete parte eta ordainketa egin beharko litzateke ekainaren 8tik 19ra bitartean –epez kanpoko ordainketarik ez litzateke onartuko–, eta gurasoekin antolaketa-bilera ekainaren 18an egingo litzateke, Seminarixoan (18:00). Udaleku irekietan izena emateko azken eguna maiatzaren 24a da.

HEZITZAILEEN POLTSA ERE MARTXAN DAGO; CURRICULUMA BIDALI BEHAR DA HILAREN 24A BAINO LEHEN

Udalaren webgunera jo behar

Kirol campusa udaleku irekien data berberetan egingo litzateke, eta ordainketarako zein izenematerako datak ere berberak dira. Partaideen adina aldatuko litzateke, kirol campusa 2009an, 2010ean edo 2011n jaiotako umeei dagoelako zuzenduta. Bietarako izena eman behar da *www.bergara.eus* webgunean.

Jardunen hezitzaile poltsa

Ez da udalekurik hezitzaile barik, eta, horregatik, Jardunek lan poltsa martxan jarri du, badaezpada. Begirale titulua, EGA edo baliokidea eta aisialdian esperientzia izatea baloratuko dute, eta curriculumak bidali behar dira *udalekuirekiak2020@gmail.com* helbidera –titulu eta egiaztagiri guztiekin batera–, maiatzaren 24a baino lehen. Formakuntza saio bat egingo lukete dena prestatzeko, ekainaren 6an, eta derrigorrezkoa litzateke saio horretara joatea. Oraingoz, dena zalantzan dago.

GORA ETA BEHERA

GOIENA

Bidegorriko zuloak estali izanaz eskertuta

Konfinamendua arindu den egunotan, herritar batek dioenez, "asko" erabiltzen da Labegaraietako bidegorria ordu zehatz batzuetan; aurretik zeuden zuloak estali izana eskertu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Nork bere jaietako zapia egiteko aukera egongo da aurten

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkartea / BERGARA

Pentekosteak normaltasunez ospatzeko aukerarik izango ez badugu ere, jaietako zapiak Internetez zabalduko ditugu aurten (*www.jardun.eus*). Batetik, aurreko edizioetako zapiak jarriko ditugu gure webgunean deskargatzeko eta margotzeko. Bestetik, zapi zuri baten eredua ere jarriko dugu, nork bere diseinua egin dezan. Zapien salmenta diru iturri garrantzitsua da guretzat, eta ekarpen sinbolikoa egitea eskertuko genizueke: ES48 3035 0009 12 0090088140 (Laboral Kutxa).

Bestalde, bingo herrikoia antolatzea ere erabaki dugu maiatzaren 21erako. 18:00etan hasiko da eta gehienez 20 pertsonak parte hartu ahal izango dute, *Jitsi* aplikazioaren bitartez. Saria Euskal Herriko produktuak izango dira.

OHARRAK

Bergararren Arreta Zerbitzua: ordutegi aldaketa

Telefono bidezko arretaren ordutegia aldatu egin dute (010). Astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 15:00etara bitartean. Asteburutan udaltzaingora deitu ahalko dute herritarrek (092).

Etxealditik Euskaraldira: "Bizipenak partekatu!"

Euskaraldirako Bergarako lantaldeak *#EtxealditikEuskaraldira* ekimenera batzeko dei egin die bergararrei, sare sozialen bidez: "Hausnarketa, jolasa, bazkaria, erosketak... euskaraz egiten ditugu egun hauetan. Partekatu zure bizipenak gurekin!".

Angeluko erailketa matxista salatzeko oharra

Duintasuna elkarteak bat egin du Oneka euskal emakume pentsiodunen plataformaren azken oharrarekin. Angelun 89 urteko senarrak 83 urteko emaztea erail izana gaitzetsi dute. "Etxean konfinaturik egoteak emakumeok gizonak baino gehiago zigortzen gaitu; emakume asko erasotzailearekin bizi dira".

Campusa eta Mahonero Eguna, bertan behera

2019-2020 denboraldia bukatutzat eman, eta BKEko futbol saila hurrengo denboraldira begira dago lanean. Hala, Mahonero Eguna eta futbol campusa bertan behera utzi dituzte.

Gazteei alokairuarekin laguntzeko, 35.000 euro

Gazteen emantzipazioa sustatu eta etxebizitza alokatu dezaten dirulaguntza berriak iragarri ditu Bergarako Udalak. 35.000 euro bideratu dituzte, 2019an baino 5.000 euro gehiago. Abenduaren 31ra bitartean egin daiteke eskaera, udal webgunean

Jone Olabarria BERGARA

Gazteen etxebizitza alokairuak laguntza programaren baitan, 35.000 euroko diru-partida bideratuko du 2020. urtean ere Bergarako Udalak gazteen emantzipazioa sustatzera. Hala, alokairu gastuei aurre egiteko, iaz baino 5.000 euro gehiago gordeko ditu Bergarako Udalak.

Urteko programaren aurrekontua agortu edo gastua konprometitu arte eskatu ahal izango da; gehienez, 2020ko abenduaren 31ra arte. Udaletik jakinarazi dutenez, dirulaguntza agortuko balitz, horren berri emango litzateke udal webgunean dirulaguntzen atalean argitaratutako iragarki baten bitartez.

Lorentxokoko etxeak Bergaran, artxiboko argazki baten. GOIENA

Bete beharreko baldintzak

Dirulaguntza eskatu ahal izateko, 18 eta 30 urte –biak barne– bitarteko adina izan eta Bergaran ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat izan behar da alokatua.

Horretaz gain, onuradun diren bizikidetza-unitateko pertsona guztiek dirulaguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatuta egon beharko dute eta bizikidetza-unitateko pertsona batek gutxienez 10 urtetan Bergaran erroldatuta egon beharko du, nahiz eta era ez jarraituan izan. Azken bi urteetan etenik gabe erroldatuta egon izana ere onartuko da.

Diru-sarrera muga

Diru-sarrerei dagokienez, bizikidetza-unitatea pertsona bakarrak osatzen badu, 7.455,14 eta 28.000 euro gordinen artean egon beharko dira diru-sarrerak laguntza jaso ahal izateko. Pertsona bik edo gehiagok osatzen dituzten etxebizitzen kasuan, 7.455,14 eta 39.000 euro gordinekoa izango da tartea. Udaletik azaldu dutenez, kontuan hartuko diren diru-sarrerak 12 hilabete jarraituko diru-sarrerak izango dira.

2019AN JASO ZIREN 15 ESKAERETATIK 13 ONARTU ZITUZTEN, 28.335 EUROKO KOSTUAREKIN

Etxebizitzen balorazioa

Diruz lagunduko diren etxebizitzek Bergarako udalerrian kokatuta egon behar dute, eta bizigarritasun-baimena izan. Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak bete beharko dituzte.

Dirulaguntza onartzeko orduan ez dira onartuko sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak, berralokairuak edo logelen alokairuak. Ezta ere *Bizigune* programaren barruan dauden alokairu-etxebizitzak edota *Gaztelagun* programaren dirulaguntzak jasotzen dituztenak. Ez dira onartuko herrigunean 600 euroko alokairua gainditzen duten etxebizitzak, 550 eurokoak hirigune historikoan eta Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Ola eta Labegaraietan. Osintxun ezin ditu 450 euro gainditu.

NEKANE MUÑOZ
GAZTEA

"Orain bi urte eskaria egin, eta eman ziguten. Iaz ez genuen eskaerarik egin, baina aurten ere eskatuko dugu. Bada dirulaguntza garrantzitsu bat".



MAIALEN MARAURI
GAZTEA

"Iaz eskatu genuen lehen aldiz dirulaguntza hau, eta onartu egin ziguten. Aurten ere egin dugu dagoeneko eskaera, eta hala izatea espero dugu".

Eguazteneko hitzaldi telematikoko une bateko irudia. BERGARAKO SORTU

Bergarako egoera aztergai Eskola Herritarraren azken bi saioetan

Astelehenean, hilak 11, egingo dute kulturgileak eta langileak ardatz izango dituen azken hitzaldia

J.O. BERGARA

Bergarako Sortuk eta Iratzar Fundazioak elkarlanean antolatutako Bergarako Eskola Herritarraren edizio berriak lau hitzaldi antolatu ditu apirilean eta maiatzean zehar. Lehenengo biak eginda, COVID-19 gaitzaren krisiak Bergaran izan dituen eta eragingo dituen ondorio ekonomiko, politiko eta sozialak izango dira ardatz Bergarako Eskola Herritarraren azken bi saioetan.

Era telematikoan

Joan den eguaztenean, maiatzak 6, hasi zen, eta datorren astelehenean, maiatzak 11, egingo duten hitzaldiarekin emango diote amaiera *COVID19: Kapitalismoaren eta Faxismoaren birusa?* lelopean antolatu duten Eskola Herritarrari. Arratsaldeko zazpietan hasita eta Bergarako Sorturen Youtube kanalaren bidez, Bergarako komertzio, baserritar, langile eta kulturgileak izango dira oinarri.

Balorazioa

Antolakuntzatik balorazio positiboa egin dute eguazteneko saioak emandakoaz: "Herriko komertzioen, tabernen eta langileen ikuspegi orokorra landu genuen. Azpimarratzekoa da egoera txarra den eta izango den arren, langileen eta merkatarien arteko elkartasuna sendotu egin dela".

Jakinarazi dutenez, jardunaldien ostean saioa Youtubeko kanalean gordetzen dute, eta herritar askok gerora ikusi ohi dituzte saioak, zuzenean jarraitu barik.

Kultur sortzaileak

Astelehenerako antolatu duten hitzaldiak langile eta kultur sortzaileen egoera izango du hizketagai; 19:00etan.

Teknologia berrietan trebatzeko aukera KZgunearen eskutik

KZguneak eskaintzen duen zerbitzua mantendu eta zuzeneko hitzaldi batzuk emango ditu maiatzean Youtubeko kanalaren bidez, ordutegi desberdinetan. Hala, maiatzean zehar, astean bi hitzaldi planifikatu dituzte gai teknologikoei buruz.

Asteon egin dituzte lehen bi hitzaldiak, eta datorren asterako *Heziketa eta segurtasuna Interneten* eta *Zure ordenagailua birus eta bestelako mehatxuetatik babestu* saioak antolatu dituzte. Lehena maiatzaren 12an egingo dute, 18:00etatik 20:00etara. Bigarren saioa maiatzaren 14rako aurreikusi dute, 11:00etan hasita.

Aurrez aurreko hitzaldietan ez bezala, hauek ez dute aldez aurretik izena emateko beharrik. Youtuben sarrera librea da. Era berean, urrutiko laguntza-zerbitzua abian dagoela gogorarazi dute, zalantza teknologikoetarako laguntza eskaintzeko.

Iazko udan Senegalgo Dionewar herrira egindako bidaiaren irudi bat. NDANK NDANK ELKARTEA

Diru bilketa, Dionewar herrian jakiak erosteko

COVID-19 gaitzak eta horrek eragindako krisiak Senegalgo Dionewar herrian izan ditzakeen ondorioak apaldu eta elikagaiak erosteko kanpaina abiarazi Ndank-Ndank elkarte bergararrak. Domekara arte egongo da zabalik donazioak egiteko epea

Jone Olabarria BERGARA

Kultura-aniztasuna eta garapenerako lankidetzarako Ndank-Ndank elkarte bergararrak Senegalgo Dionewar herriko familiei oinarrizko produktuak ziurtatzeko diru bilketa kanpaina bat abiarazi du. Ndank-Ndank elkarteko kide Eli Dominguezek azaldu duenez, elkarteak berak 300 euro bideratu ditu proiektu horretara eta herritarrek ere laguntzeko aukera dute, dirua dohaintzan emanda.

Erantzun "positiboa"

Astelehenean, hilak 4, abiarazi zuten diru bilketa, eta, elkartetik aitortu dutenez, bergararrek emandako erantzuna "positiboa" izan da: "Bi egun daramatzagu eta dagoeneko 500 euro inguru batu ditugu herritarren partetik. Lortutako diruarekin elikagaiak erosiko ditugu; gehienbat, arroza, olioa eta barazkiak. Behar gehien dituzten herriko familien artean ere diru apur bat banatzea da asmoa".

Kutsaturik ez herrian

Elkartetik jakinarazi dutenez, Senegalen COVID-19 gaitzak 1.200 lagun inguru kutsatu ditu, oraingoz, baina Dionewar herrian ez dute kasurik atzeman. Azaldu dutenez, kasuren bat izango balitz egoera "zaila" izango litzateke: "Segurtasun eta higiene neurri zorrotzak hartu dituzte herrian, baina denak batera bizi dira komunitatean. Astean pare bat aldiz joaten da medikua bertara. Koronabirus kasuren bat agertuz gero, egoera zaila izango litzateke".

COVID-19 gaitzak hartutako bidea ikusita Senegalgo Gobernuak ere neurriak hartu dituela azaldu dute, eta, ondorioz, herriko mugetatik ezin irtenda daude Dionewarko biztanleak.

HERRITARREN %80 ARRANTZATIK BIZI DIRA; HERRITIK EZIN IRTETEAK ERAGIN HANDIA DU LANEAN

Bizimodua, arrantzatik

Elkartetik azaldu dutenez, herritarren %80 arrantzatik bizi dira herrian, eta mugitzeko debekua dela-eta haien jardun ekonomiko nagusia gauzatzeko zailtasun ugari dituzte: "Desplazamenduetan ezarritako debekuen ondorioz, ezin dute ohiko eran arrantzatu, eta ondorio ekonomiko latzak izan ditzake horrek".

Epea zabalik

Domekara arte, hilak 10, diru bilketan parte hartzeko epea zabalik egongo da. Laguntza eskaini nahi duten herritarrek hainbat bide dituzte: elkarteko kontuetara dohaintza eginda, ES58 2095 5070 70 91193948 23 (Kutxabank) edota ES86 3008 0169 52 2459228025 (Nafarroako Rural Kutxa). Bizum bidez ere egin daiteke, 679 32 42 99 zenbakian (Ainhoa).

Agorrosin Berrirako proiektuaren lehen zirriborroa. IZASKUN LARZABAL

Orain dela urtebete sinatu zuten Agorrosin Berrirako hitzarmena

COVID-19ak eraginda, Agorrosin Berriaren proiektua testuinguru berrira moldatzeko zain dago BKE

J.O. BERGARA

Agintaldi honek beharko luke Agorrosin Berria errealitate bihurtzeko agintaldia; belar naturala kendu eta artifiziala jartzeko lehen fasea, behintzat. Hala jasotzen du 2019ko maiatzaren 13an osoko bilkuran onartu zen hitzarmenak: kanpoko finantzaketa barik eta udal aurrekontuetatik gordeta, beranduenez 2023rako gauzatu beharko litzateke lehen fasea.

Testuinguru berria

COVID-19ak, baina, "airean" laga ditu Agorrosin Berria gauzatzen hasteko epeak. 2020ko kontu publikoek 54.450 euro gordeta zituzten proiektua idazteko, baina aurrekontu horietan onartutakoa ere zalantzan dago. Testuinguru ekonomiko berrian, Udalak eta BKEk egungo egoera aztertu eta norabide berria finkatu beharko dute.

Bi aldeek iaz sinatutako akordioaren arabera, Udalak konpromisoa du 2021eko aurrekontuetan dagokion partida ekonomikoa datorren urtean obraren lehen faseari ekiteko bideratzeko; hau da, belar naturalaren ordez soropil artifiziala jartzeko, eta argiztapen-dorreak eta perimetro-sarea jartzeko.

Beste hitzarmen baten zain

Bergara kirol elkartetik Udalaren zain daudela azaldu dute: "Proiektuaren idazketa lehiaketara aterata egon beharko litzateke". Larrialdi egoerak behartuta beste hitzarmen bat sinatu beharko den susmoa dute: "Proiektua idatzita egon arte ezin da zehazki kostua jakin, eta, hortaz, ezinezkoa da epeak finkatzea hori barik". Ezin da ahaztu Agorrosin udalekotzeko negoziazioek 30 urte iraun dutela, gutxienez.

Azokako ordutegiak errespetatzea eskatu du Udalak

Azokaren irekiera-ordua 08:00ak izan arren, Udaletik adierazi dute ohitura dagoela ordu hori baino lehen salmentekin hasteko. Hori dela eta, Udalak onartuta dauden ordutegia gogorarazi du.

Hala, lanegunetan ordutegia 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara da. Zapatuetan, berriz, 08:00etatik 14:00etara. Salmentaordutegia baino bi ordu lehenago sartu daitezke saltzaileak azokara, eta ixteko ordua baino ordubete geroago irten.

08:00ak baino lehen bezerorik ezingo da sartu, eta, beraz, azokako saltzaileek ezingo dituzte eskariak erantzun.

Horregatik, Udaltzaingoak ez ditu azokako ateak 08:00ak arte irekiko eta saltzaileei ohartaraziko zaie 08:00ak arte ezin direla salmentarekin hasi. Debekatuta dago jendea azokako eraikinera sartzea.

131.384 euroko superabita 2019an

Iraitz Lazkano alkatearen esanetan, emaitza "oso onak" dira, baina horrek ez du kentzen Elgetako Udalaren egoera ekonomikoa "oso prekarioa" ez denik. Uste du, gainera, koronabirusak eragindako krisialdiak "murrizketa itzelak" ekarriko dituela

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Udalak asteon aurkeztu du 2019ko likidazioa. Gastuen betetze maila %96,31 da. "Azken hogei urteotako handiena", esan du Iraitz Lazkano alkateak. Sarreren betetze maila %89,41 da. "Espero genuena baino gehiago batu dugu. Aurreko urteko gerakina kontuan hartzen ez bada, aurreikusitakoa baino %2,98 gehiago batu dugu".

Emaitza "oso onak" direla esan du Lazkanok, baina kezkatuta dago etorkizunak ekar dezakeenarekin. "Gauza bat da kontu ekonomikoak zorrotz eta zuzen eramatea, eta horretan gabiltza, baina horrek ez du kentzen Elgetako Udalaren egoera ekonomikoa oso prekarioa ez denik. Oraindik ere ordaintzeko dauden kalte-ordainek dezente baldintzatzen dute aurrekontua. Iaz amaitu genuen bat ordaintzen, eta espero genuen aurten diru gehiago edukitzea, baina ez da kasua izango".

Krisialdi berri bat

Zalantzarik ez dago koronabirusak eragindako krisialdiak ondorio ekonomikoak ekarriko dituela, eta zaila da zenbatekoak izango diren zehaztea. "Ez dago datu zehatzik, baina lehenengo aurreikuspenak iritsi dira", esan du alkateak. Diputazioak egindako estimazioa da foru fondotik %20-25 gutxiago helduko dela. "Elgetaren kasuan, 200.000 euro gutxiago dira (...) Lehenagotik aurrekontu oso estua genuen, eta askoz ere gehiago estutu beharko dugu. Neurri batean, eskerrak 2019ko aurrekontuko gerakina dugun. Aukera emango digu planifikatutako gauza batzuk egin ahal izateko". Hala eta guztiz ere, Lazkanok oso argi du ezingo direla urte honetarako aurreikusitako egitasmo guztiak gauzatu. "2020a justu-justuan bizirauteko urtea izango da. Diru sarreretan egongo den murrizketa itzela izatea aurreikusten dugu, eta ez dugu zerbitzuetan murrizketarik egingo. Hori argi daukagu. Beraz, bestelako dirulerroetan estutu beharko dugu".

Diru-laguntza gutxiago

Diru-laguntza lerro batzuk ere bertan behera geldituko direla aurreikusten da. "Batzuk bertan behera gelditu dira dagoeneko", jakinarazi du alkateak. "Esaterako, landa-bideendako diru-laguntza lerroa. Espero genuen aurten 15.000 euroko inbertsioa egitea eta 5.000 euroko diru-laguntza jasotzea. Bada, ziurra da dagoeneko 5.000 euro gutxiago jasoko ditugula; izan ere, dirulerro hori bertan behera gelditu da. Aurreikusten ditugun diru-laguntza guztiekin berdina gertatzen bada, dena dago arriskuan", ohartarazten du alkateak.

Aurrekontua berriz aztertzen

2020rako aurreikusita dauden zein inbertsio egingo diren eta zeintzuk ez aztertzeko dago oraindik. "Inbertsioetako batzuk diru-laguntzetara lotuta daude, eta ez dakigu egongo diren edo ez. Horrek ia foru fondoak beste baldintzatzen du aurrekontua. Eta jasotzen ditugun mezuak dira kultura ekitaldiak mantendu egin behar direla, lehen sektoreari zuzendutako lerroak mantendu egin behar dira... Dena mantendu behar da, baina helduko da %20 gutxiago".

Zorpetzeko asmorik ez

Udal Gobernuak ez du gehiago zorpetzea aurreikusten. "Udala ezin da zorpetu ez bada inbertsio bat egiteko, eta une honetan dagoen ezjakintasun egoeran nekeza ikusten dut halako zerbait egitea", dio Lazkanok. Gaur egun, zor bizia –Udalak banketxeekin duen zorra– udal aurrekontuaren %29,72 da. Datu horretatik kanpo gelditzen dira ordaintzeko dauden kalte-ordainak. "Bagoaz ordaintzen, baina 656.235,91 euro da kontzeptu horiengatik oraindik ere ordaintzeko duguna".

Iaz egindako inbertsio nagusiak

Artekaleko lana	25.740,61 euro.
Bolatokiko haur parkea	22.525,36 euro.
Baserritarren batzordeko lanak	15.624,49 euro.
Eskolako aterpea	15.602,87 euro.
Antzokiko lurra	14.876,21 euro.
Ospitale zaharra eraistea	14.338,50 euro.
Kableatua berritzea	12.870,17 euro.
Gaztetxeko teilatua	11.816,50 euro.
Koadro elektrikoak berritzea	11.754,29 euro.
Zerbitzaria-lainoa	8.257,40 euro.
Eguzki plakak	7.223,70 euro.
Brigadako lan-tresnak	6.687,76 euro.
Irisgarritasun lanak	5.728,42 euro.
Domingo Iturbeko lursaila	5.550 euro.
Gizarte zerbitzuetako inbertsioak	4.958,01 euro.
Haurreskola-ludotekako argiak	4.519,41 euro.
Eskolako inbertsioak	2.719,30 euro.
Pilotalekuko argiak	1.556,54 euro.

Zabaldu edo ez erabakitzeko zalantza handiak tabernariek

Gehienek itxita jarraituko dute; Patxi tabernak eta Rincon de Lolak, ordea, astelehenean zabalduko dute

L.Z.L. ELGETA

Itxialdia luze doa, eta, baldintza gogorrekin bada ere, negozioak zabaltzeko aukera badago. Tabernari gehienek, ordea, irizpide argiagoak eskatzen dituzte. "Zer gertatuko da autonomoen kuotekin? Zabaltzeak ekar dezake dirulaguntzak galtzea? Zabaldu ostean berriz itxi behar badugu, zer gertatuko da?". Erabakiak egun batetik bestera aldatzen direla salatzen dute, eta inprobisazioa handia dela.

Elgetako tabernariek buelta asko eman dizkiote kontuari. Bezero batzuek zabaltzeko eskatzen dute, baina arlo ekonomikoarekin kezkatuta daude. Patxi tabernako Iñaki Gorostizak eta Rincon de Lola tabernako Maria Cobosek astelehenean zabaltzea erabaki dute, azkenean. "07:00etan irekiko dut. Lanera joan aurretik kafea hartzen duten bezeroak ditut, eta zerbitzu hori ematea erabaki dut. Ez dut langilerik eta etxean periodikoa irakurtzen egotea baino nahiago dut zerbitzua eman", esan du Iñaki Gorostizak.

Maria Cobok, berriz, aproba egiteko zabalduko du. "Leihotik emango dut zerbitzua, eta nik bakarrik. Hasiera batean, 09:00etatik 13:00etara zabalduko dut. Ikusiko dugu ze mugimendu dagoen eta eguraldiak laguntzen duen. Galerak izango ditut, baina etxean buruari bueltak ematea baino nahiago dut zerbait egin".

Gainerakoak, itxita

Azken orduko iritzi aldaketarik ez badago, Haizeak, Bolatokiak eta Maialdek itxita jarraituko dute. "Mila buelta eman dizkiogu kontuari, baina ez dugu ikusten", adierazi du Haizeako Bittor Gallastegik. "Arlo ekonomikoa dago, baina baita ere osasunarekin lotutako gure erantzukizuna. Jendeak errespetatuko ditu ezarritako baldintzak? Zaila ikusten dugu guk hori kontrolatzea". Terrazetan, oraingoz, bi metroko distantzia errespetatu behar da, eta baldintzarik ez dagoela uste du.

Iritzi berekoa da Bolatoki tabernako Mari Carmen Salas: "Jendeak ulertzea espero dut. Langileak aldi baterako lan erregulazioan dauzkat, eta kalkulatzen dut hirugarren fasera arte ezingo dudala ganoraz lan egiteko moduan zabaldu".

L.Z.L.

Falta diren bi langileak gogoan

Zaldibar Argitu plataformak deituta, lore eskaintza eta burrunba egin zituzten Elgetan eguaztenean. Egun hartan bete ziren hiru hilabete Eitzagako zabortegian luizia gertatu zela, eta ordutik daude desagertuta Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze. Leihoetatik eta balkoietatik egin zuten burrunba Elgetan. Lore eskaintzak, berriz, herriko plazan izan ziren.

Antzuolarrak lehen paseoaz gozatzen zapatu eguerdian bidegorrian. MAIDER ARREGI

Pilaketaren bat izan ezik, herritarrak arduratsu

Eguraldi paregabea lagun, lehen paseoaz eta kirol jardueraz gozatu dute antzuolarrek ordutegi tarte murrizturik gabe; kuadrillaren bati edo besteri Ertzaintzak kargu hartu arren, normaltasuna da nagusi eta herritarrek arduratsu jokatzen dihardute

Maider Arregi ANTZUOLA

Asteburuak utzitako irudia izan da: herritarrak askatasun egoera *berriaz* gozatzen. Antzuola moduko herri txikiek –5.000 biztanletik beherakoak–, gainera, ordutegi tarte gabe paseoa edo kirola egitera irteteko aukera dute. Horregatik, antzuolarrek Salvador Illa Osasun ministroak jakinarazitako neurri arintzailea oso ondo hartu dute. Betiere, antzuolarrek gogoratu behar dute bi metroko distantzia mantendu behar dutela, etxekoren batekin paseoan egin dezaketela soilik eta kirola bakarka egin beharko dutela. Eskuak garbitzearen higiene neurria ere zorrotz bete beharko dute.

Zazpi asteren ostean, aske

Herritar asko amorratzen zeuden kalera irteteko neurria noiz iritsiko zain; eta zazpi asteren ostean, kalera irten dira, eguraldi paregabea lagun. Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak adierazi du herritar asko irten dela kalera, baina asteburua ondo joan dela: "Kirola egiten eta paseatzen jende asko ibili da; baina, oro har, nahiko txukun, esan dezakegu. Kalean ere, gehiengoa ondo, baina bestelako irudiak ere ikusi dira: umeak elkarrekin, kuadrillaren bat edo beste elkartu eta tragoari ematen, Ertzaintzak ere esku hartu zuen uneren batean... Benetan, ez nuen horrelakorik espero; are gutxiago, bezperan boluntario talde batek distantzia gordetzeko azpimarratzen zuten eskuorriak etxez etxe buzoietan banatu genituela kontuan hartuta".

Landatxoperen aholkuak

Adinekoek ere arnasa hartzeko aukera dute eta Landatxoperen zuzendaritza taldeak ondorengo aholkuak eta azalpenak eman nahi izan dizkie: "Antzuolarrok tarte zehaztu gabe, goizeko seietatik gaueko hamaiketara bitartean, kalera irteteko eta paseatzeko aukera dugu. Jarduera hauek bakarrik edo etxebizitza berean bizi den beste pertsona batekin egin ditzakegu, eta, beste inorekin topo eginez gero, orain arteko distantzia mantentzen jarraituko dugu. Gogoratu egunean behin irten gintezkeela eta paseatzeko kasuan gure etxetik kilometro bateko erradioan ibili gintezkeela denbora mugarik gabe".

OSASUN LARRIALDIARI AURRE EGITEKO "OSO GARRANTZITSUAK DIRA ENPATIA ETA AUZOLANA"

Ladantxopek gaineratu du une hauetan optimista izatea zaila dela, bereziki zenbaitek egoera zaila bizi baitu: "Familia besarkatu ezinik; kezka edo egonezinez; gaixotasunen batekin... askotariko egoerak bizi dituzte adinekoek. Baina presente dugu zein garrantzitsuak diren elkartasuna, enpatia eta auzolana larrialdi honi aurre egiteko".

Eztalako aldagelak datorren astean eraisten hastea adostu dute. MAIDER ARREGI

Datorren astean hasiko dituzte aldagelen eraisketa lanak

Denboraldi berria hasten denerako prest izango dira aldagela berriak; lanak abuztu bukaeran amaituko dira

Maider Arregi ANTZUOLA

Artzamendi enpresa hasi da, asteon, obra abiatzeko beharrezkoa duen makineria eta materiala Eztalara eroaten. Aldagelak eraisteko lanak, ordea, datorren astean hastea adostu zuten asteleheneko batzarrean.

Lehenik, ordea, Artzamendiko langileek aldagela barruak hustu beharko dituzte: "AKEk bere gauzak atera ditu aldageletatik. Enpresak, aldiz, ur-bonbak eta galdara atera beharko ditu barrutik. Egoera onean daude eta gorde egingo dira berriro erabiltzeko", kontatu du Ibon Gezalaga Antzuola Kirol Elkarteko presidenteak.

Denboraldi berrirako prest

Abuztu amaierarako aldagelak prest egongo dira eta obra amaituta egongo da.

Aldagela aurrefabrikatuek, berriz, Eztalan segituko dute, behin-behinekoz, berriro erabili behar badira ere. "Ez ditugu kenduko; izan ere, muntaia lanak garestiak dira eta ez dakigu berriro erabili beharra izango ote dugun. Alokairua ordaintzen jarraituko dugu, berriro erabili beharra suertatzen bada ere".

NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ HISTORIALARIA

Egiten duguna gara

Ez da erraza bizi dugun ezohiko garai honi bizkarra ematea eta beste zerbaitez hitz egitea. Beraz, ez noa gaixotasunaz eta berak eragindako heriotzaz, doluaz, telelanaz, krisiaz... hitz egitera, baizik eta *egoera berriak* zabaltzen dizkigun aukerak aprobetxatuz ariketatxo bat proposatzera. Azkar eta argi esanda, datorrenerako norbanako bakoitza ze konpromiso hartzeko prest dagoen hausnarketatxoa sustatu nahi dut. Ez dut eragin globala izango duen konpromiso bat hartzerik eskatzen, egon badaudelako, eta ugari, baizik eta lokalaz, herri mailakoaz, eta herriko arlo ezberdinekin lotu litekeen konpromisoaz ari natzaizu. Ariketa sinplea da, betetze maila norbanako posibilitatearekin lotuta dagoena. Beraz, har ezazu boligrafoa eta orri zuri bat. Zerrendatu bertan herriaren onerako zer egiteko prest zauden. Zerrenda horretatik, ondoren, lehentasunak adierazi eta aukeratu bat, eta, hemendik ateratzen garenean, ekin! Kontua ekitea da. Egin. Egiten duguna gara. Eta egite edo ekite horretan lekua hartzea. Nork daki; agian, bidean topo egingo dugu. Zaindu.

Larrea jatetxea itxita. GOIENA

Tabernako ateak irekitzeko zalantzekin

Mox tabernak, esate baterako, terraza dauka, baina euria eginez gero ez dauka aterpe edota eguzki-oihalik, eta baldintza horietan ezingo luke taberna ireki. Larrea tabernako jabeak, berriz, eguaztenerako oraindik ez zeukan erabakia hartuta

Maialen Regueiro ANTZUOLA

Koronabirusaren krisiak eragindako geldialdiaren ostean, datozen egunetan herriko merkatari zein ostalariek beraien negozioetako ateak zabaltzea aurreikusten da. Asteon, esate baterako, konfinamendu-arintzearen 0 fasea izan da, eta, horrekin batera, ile-apaindegiek ateak irekitzeko aukera izan dute, araututako segurtasun eta babes neurriak hartuta izan bada ere. Gauzak horrela, maiatzaren 11n, astelehena, konfinamendu-arintzearen 1. fasean murgilduko da gizartea, eta fase horretan, besteak beste, tabernak izango dira protagonista.

Tabernarien zalantzak

Tabernari askok ez dituzte 1. faserako ezarritako arauak ulertzen, eta, taberna bakoitzaren egoera ezberdina denez, askok ezingo dituzte astelehenean ateak zabaldu araututako baldintzetan. Izan ere, ostalaritzan, terraza duten tabernek izango dute irekitzeko aukera, %30eko ahalmenarekin. Hori dela eta, terrazarik ez duten tabernek ezingo dituzte negozioak zabaldu. Mox tabernako jabeak, esate baterako, bere egoeraren berri eman du: "Irekitzeko izugarrizko gogoa daukat eta jende askok galdetzen dit astelehenean zer egin behar dudan. Nik taberna ireki nahi dut, baina eguraldi txarra egiten badu ez daukat aterpe edota eguzki-oihalik terraza estaltzeko; beraz, terraza ez da erabilgarri egongo eta ezingo dut taberna zabaldu". Terrazaren ahalmenaren harira, berriz, honako hau azaldu du: "Mahai dezente dauzkat, baina ez dakit baimendutako espazioa baino gehiago hartzeko aukerarik izango dudan". Horiek, denda den, ez dira Mox tabernako arduradunaren zalantza bakarrak, ateak irekitzeak mereziko duen ere hausnartu du eta: "Taberna zabaltzea erraza da, baina, agian, gastu gehiago izango ditugu etekinak baino, eta, horregatik, ez dakit mereziko duen egoera honetan zabaltzea. Gainera, neurriak hartu beharko ditugu eta horrek ere gastu bat ekarriko du". Antzuolako taberna horrek, esate baterako, asteburuetan etxera eramateko zerbitzuarekin funtzionatzen jarraitu du alarma egoera ezarri zenetik, eta horri esker negozioa ez da eten.

TERRAZA DUTEN TABERNEK IZANGO DUTE IREKITZEKO AUKERA %30EKO AHALMENAREKIN

Larrea tabernak ere terraza dauka, eta, araudiak esaten duenaren arabera, astelehenean irekitzeko baimena izango du. Hala ere, jabeek eguaztenerako oraindik ez zuten erabakia hartuta: "Zalantza asko ditugu, eta datozen egunetan hartzen diren neurrien arabera erabakiko dugu zabaldu edo ez".

2018ko San Isidro feria. GOIENA

San Isidro eguna online bidez ospatzea aurreikusten dute

Jai batzordeak maiatzaren 27an du bilera egiteko asmoa, eta bertan hainbat erabaki hartuko dituzte

M.R. ANTZUOLA

Koronabirusak eragindako krisiak jai eta ekitaldi asko bertan behera uztea ekarri du; hori da, hain justu ere, antzuolarrek hain gustuko duten San Isidro egunaren adibidea. Apiril hasieran hartu zuten antolatzaileek eta udal arduradunek maiatzaren 16ko jaia bertan behera uzteko erabakia, baina eguna gerturatu ahala eta jaiak beste modu batera ospa daitezkeela ikusita, sanisidroak online bidez ospatzeko erabakia hartu dute, Garazi Larrea zinegotziak azaldu duenez: "Beste herri batzuetan jaiak online bidez ospatzen ari direla ikusi dugu, eta egun honi aukera bat ematea erabakia hartu".

Egitaraua osatzen

Larreak aipatu bezala, jaia antolatzen dihardute, eta baita egitaraua osatzen ere: "San Isidro egunez ohikoak izaten dira feria edota herri bazkaria, eta horiek ezingo ditugu aurrera eraman, baina beste hainbat ekintza antolatzen ari gara. Horietako batzuk baliteke presentzialak izatea eta beste batzuk online bidez izango dira".

Antzuolako jaiak

Herriko jaietarako bi hilabete gelditzen badira ere, jai batzordea ari da aurtengo jaien harira lanean. Larreak azaldu du jai batzordea Aste Santu ostean elkartu zela eta bilera hartan zalantza asko sortu zirela: "Ohiko jaiak ezingo ditugu ospatu, baina jaiak beste modu batera antolatzeko aukera ez dugu baztertu. Maiatzaren 27an, jai batzordeko kideek beste bilera bat egingo dugu eta bertan erabaki berriak hartuko ditugu, nahiz eta jakin egoera aldakorra izango dela".

Parrokiako ateak zabalik maiatzaren 11tik aurrera

Ia bi hilabete igaro dira Antzuolako parrokiak mezak bertan behera utzi zituenetik. Antiguako Amaren elizako ateak ere itxita egon dira aipatutako epean, baina, maiatzaren 11tik aurrera, bi elizek ateak zabalduko dituzte.

Beste sektore batzuetan gertatuko den bezala, elizan ere herritarrek segurtasun eta babes neurriak hartzea ezinbestekoa izango da.

Gauzak horrela, hilabetean zehar hainbat hitzordu izango dira bai Antzuolako parrokian eta baita Antiguako Amaren elizan ere. Maiatzaren 12an, eta 14an, adibidez, Antiguako Amaren elizan izango da meza, 19:00etan. Maiatzaren 13an, berriz, parrokiako kaperan izango da, 19:00etan hasita. Azkenik, maiatzaren 17an, parrokian izango da meza, ohiko ordutegian; 11:00etan, alegia.

Selma Huxley, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan, Oñatin, 2017an. GOIENA

Selma Huxley Barkham hil da

XVI. mendeko 'San Joan' baleontzia Kanadako uretan kokatu eta hango eta hemengo arrantzaleen arteko harremana eta historia ikertu zuen. Lotura estua izan zuen Oñatirekin, gertukoa izan da familia osoa, eta herritar askok sentitu du haren heriotza

Oihana Elortza OÑATI

Diplomatikoak, ikertzaileak, zientzialariak eta idazleak zeuden familia bateko alaba zen Selma Huxley Barkham. Ingalaterran jaio eta Kanadako arkitekto batekin ezkondu zena. Hango Gobernuak emandako beka batekin etorri zen Oñatira, hemengo artxiboak erakarrita, Kanadaren eta Euskal Herriaren artean egondako itsas harremana ikertzera. 20 urte egin zituen Oñatin.

Historiako irakasle ona

1973ko uztailean iritsi zen; 46 urte, lau seme-alaba eta alargun. Egun Pago Uso elkartea dagoen etxean bizi izan zen, lehengo Kafe-zarran. Lehenengo pisuan beraiek eta Jerardo Elortza eta bere familia bigarrenean: "Harrezkero izan dugu harremana. Gogoan dut oso ederra zela, eta kementsua. Berak bakarrik gura zuen aurrera egin. Bizilagunak ginen, eta biok historiazaleak, eta askotan egoten ginen elkarrekin. Baionako museora joan ginen behin eta Ternuako bertsoak topatu genituen han. Nevadan, Renon, ere izan ginen batera hiru eguneko jardunaldi batzuetan. Bera Oñatin egon den aldi bakoitzean elkartu gara berarekin eta gure senide batzuk izan dira bere etxean, Ingalaterran. Seme-alabekin ere harreman ona dugu".

Sheila Fritz-ek ere ez du inoiz ahaztuko Selma Huxley Barkham.

1973AN ETORRI ZEN OÑATIRA, HEMENGO ARTXIBOAK ERAKARRITA, ETA 20 URTE EGIN ZITUEN

"1976an heldu nintzen ni Oñatira AEBetatik, eta historiako irakasle izan nuen Selma. Oso oso irakasle ona zen. Erraz hitz egiten zuen eta oso erakargarriak ziren bere eskolak. Bidaiak ere egiten genituen, gainera, historiari lotutakoak. Gogoan dut Burgosera joan ginenekoa". Fritz-ek ere harrezkero gorde du harremana Huxley Barkham sendiarekin. Duela lau urte Oñatin egin zioten omenaldian ikusi zuen bera azkenengo aldiz.

Omenaldi hartan hunkitu egin zela onartu zuen Selmak berak. Izan ere, lagun asko zituen Oñatin, lotura estua zuen herriarekin, oroitzapen asko. Eta berak herriarekiko zuen maitasun bera zioten berari herritar askok. Bere heriotzaren berri jakin zenean herritar batek baino gehiagok sentitu zuen pena, batez ere Oñatin bizi izan ziren 20 urte haietan egindako lagunak, berak zein bere seme-alabek.

Omenaldi horretan eman zuen orduko Udalak Selma Huxley Barkham bekaren berri. "Emakume handia zen. Bere bizitza abentura bat, eta lana, berriz, garrantzitsua oso. Errekonozimendua merezi zuela iruditu zitzaigun, eta horregatik erabaki genuen bekari bere izena jartzea. Berak egindakoa eskertzeko modu bat izan zen, aitortza bat", du gogoan orduko alkate Mikel Biainek. Emakume historialarien ikuspegitik ikerketan egiteko beka da, hain

ARANTZAZUKO INGURUA ASKO GUSTATZEN ZITZAION, ETA HAN HARTZEN ZUEN OSTATU

zuzen ere, Selmaren izena daramana. Berdintasun Sailetik dago bideratuta eta bi urtean behin ematen da.

Egungo Oñatiko Udalak ere helarazi dizkio bere doluminak Huxley Barkham familiari eta "jakin-nahi horri bide egiten jarraituko" dutela gaineratu, "gure historiaren eraikuntzan jarraitzeko konpromiso sendo horretan".

Arantzazura beti

Selmak bazituen ohitura batzuk Oñatira etortzen zen aldiro egiten zituenak. Artxiboa bisitatu eta lagunekin egon ziren horietako bi. Eta Arantzazura joatea beste bat. Asko gustatzen zitzaion inguru hori eta Sindikan ostatu hartzeko ohitura zuen. Duela lau urte ere, omenaldia jaso zuen egun haietan, hantxe egon zen.

"Benetako ikerketa egin zuen, sakona, hasieratik muturreraino"

RAMON MARTIN PROTOKOLO ARTXIBOKO ARDURADUNA

Ramon Martinek ez zuen ezagutu Selma Huxley ikerlaria Oñatin bizi izan zen urteetan, gero baizik. Hona etortzen zen bakoitzean Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikora joaten zen.

Nolakoa zen Selma Huxley Barkham?

Oso apala. Asko zekien, asko. Baina izugarri umila zen. Benetan atsegina eta aberatsa zen harekin hitz egitea. Haren lana ere ezagutzen dut, noski.

Ze garrantzi du berak egindako lanak?

Oso handia. Arrasto bati heldu eta ikerketako muturreraino heldu zen; ikerketa sakona egin zuen. XVI. mendeko *San Joan* baleontziaren kokagune posible bat topatu, egiaztatu, Kanadan aztarnategiak aurkitu.. benetako ikerketa egin zuen emakume horrek. Gainera, gaur egungo baliabiderik gabe.



GOIENA

Diozu bere lanak erakusten duela ikerketa historikoak eragin soziala izan dezakeela?

Bai, hala da. Bere lan horri esker ezagutzen dugu Albaolan egiten ari diren *San Joan* baleontzia. *Ternua* hitza ere lehen baino ezagunagoa da ordutik.

Nola hasi zen bera Kanadaren eta Euskal Herriaren arteko itsas harremana ikertzen?

Bere senarrak behin Abaltzisketan istripua izan zuen, eta horrela ezagutu zuen Euskal Herria. Ternuako hiri batean egin zituen ikasketako praktikak Selmak eta marinelen historia ezagutu zuen han. Eta biak elkartu zitzaizkion, arrantzaleak eta Euskal Herria.

Zer ikasi dugu bere lanen bitartez?

Kanadako eta Euskal Herriko itsas historiaren kosmobisio bat eman zigun. Aspektu askotatik egin zuen ikerketa: geografikoki kokatu zituen ontziak, bakailaotara ez ezik baleetara joaten zirela ere ikasi dugu, hango inuitekin izandako harremanak ere jaso zituen... Oso ikerketa borobila egin zuen.

Irma Juaristi, martitzenean, berea den Chic arropa dendan. A.A.

Bonuen bigarren sorta ere agortzear dago

Udalak ontzat jo du 'Kuttuna.org' egitasmoak izan duen harrera. Txanda elkartea ere pozik dago laguntzarekin eta herritarren erantzunarekin, eta lanerako prest daudela adierazi du; astelehenetik aurrera ohiko ordutegia izango dute dendek

Oihana Elortza OÑATI

Kuttuna.org egitasmoaren barruan, 20.000 euroko dirulaguntza lehenengo eta beste horrenbestekoa eman zuen gero Oñatiko Udalak, herritarrek erosketa bonuetan erabiltzeko. Bigarren dirulaguntza hori ere agortzear dago. Hori gertatzean, 200.000 euroko balioa duten erosketa bonuak saltzea lortuko da momentua horretan.

Amaitu egingo da

Aurrekontua amaitzearekin batera web plataformaren bidez Oñatiko saltokietan bonu erosketa egiteko aukera eten egingo da eta bezeroek ezingo dituzte bonu gehiago erosi. "*Kuttuna.org* plataforma COVID-19ak eragindako alarma egoeraren ondorioz itxi beharra izan duten saltokiek konfinamendu epean diru-sarrera batzuk izateko helburuarekin sortu zen, eta momentu honetan, beste fase batean sartzear gaudenean, egitasmoari amaiera emateko ordua heldu dela uste du Udalak. Gaineratu du ikasketa prozesu bat izan dela eta balorazioa egiteko unea heldu dela orain. Hala, behin-behineko balorazioa positiboa dela esan du.

Hiru zutabeko egitasmoa

Denda txikiak saiatu dira ahal izan duten moduan aurre egiten egoerari, Chic dendako Irma Juaristiren kasuan bezala, esaterako: "Aurreztutako dirua erabilita eta mailegu eran dauden laguntzak eskatuta. Herritarren erantzuna oso ona izan da eta horrek ere lasaitasuna ematen du". Neurri bereziak eta arauak beteta zabaldu du denda astean Juaristik: "Egun askoan izan dugu itxita. Neurri honekin, aurrez txanda emanda irekitzeko aukera izan dugu eta herritarren erantzuna oso ona izan da. Horrela lanean hastea positiboa da. Behin arropa probatuta, plantxa bertikalarekin desinfektatzen dugu". Eta gaineratu du: "Eskerrak eman gura dizkiet Magnet kooperatibak jarritako egitasmoari, Udalaren inplikazioari eta herritarren erantzunari".

OÑATIN 900 ERABILTZAILEK EROSI DITUZTE BONUAK, HERRIKO 66 DENDA GUZTIRA

Izaskun Olabe ile apaintzailea aurrez ibili da protokoloa lantzen eta prest zegoen negozioa zabaltzeko; 80 pertsonako itxarotezerrenda zuen astelehenean. Maiatzeko hiru asteak beteta ditu. Aste honetan bezero bakarrarekin egin du lan. Erabiltzen duten materiala desinfektatu egiten dute, eta lokala garbitu.

Txandak ere eskertzen du Udalaren laguntza eta herritarren elkartasuna, eta astelehenetik aurrera dendak ohiko ordutegietan zabalduko dituztela gogorarazi, hartu beharreko neurriak hartuta.

GI-2630 errepidea, biribilgunea egin gura den puntua. O.E.

Garibaiko biribilgunea egitea sinatuko dute Udalak eta Ulmak

Bi zati izango ditu proiektuak eta alde bakoitzaren lanak zeintzuk izango diren jaso dute hitzarmenean

O.E. OÑATI

Garibai auzoko sarrera erraztuko duen eta Munazategi eremuko industrialdeko sarrera-irteera hobetuko duen biribilgunea egiteko proiektua izenpetuko dute Oñatiko Udalak eta Ulmak. Biribilgune horrek ibilgailuen abiadura ere motelaraziko du.

Munazategi sektorea garatu ahal izateko sarbidea egokitu beharra zegoen eta onena biribilgunea egitea izango zela ikusi zuten alde biek. Baina biribilgunea ez dago hirigintzako arau orokorretan aurreikusita, eta horien aldaketa eta hitzarmena egitea onartu zuen aho batez udalbatzak apirileko osoko bilkuran. Izaro Elorza alkateak azaldu duenez, bi zati izango ditu proiektuak: "Biribilgunearen proiektua Ulmak eramango du aurrera Aldundiarekin batera, eta hori egiteko lurren desjabetzeak Aldundiak egingo ditu. Bigarren fasea izango da biribilgunetik beste bide bat egitea Garibai auzorantz, eta hori Udalak egingo du". Behin dena egindakoan, Aldundian aurkeztuko dute, behin betiko oniritzia jasotzeko.

Sinadura bilketa hasi dute 5G teknologia Oñatin ez jartzeko

Ixutu Begixak taldeak abiarazi du eta "kaltegabetasuna frogatu arte" ez ezartzeko eskatzen dio Udalari

O.E. OÑATI

Ixutu Begixak taldeak sinadura bilketa bat hasi du, Udalari eskatzeko 5G teknologia Oñatira iritsi ez dadin; ez, behintzat, "kaltegabetasuna" frogatu arte.

Change.org webgunean zabaldu du taldeak sinadura bilketa, eta hauxe da eskaera: "Udalak metropoli-eremu osoan 5Gko instalazioak geldiaraztea, azterketa independenteak egin arte, agerian gera dadin 5Ga ez dela inola ere kaltegarria pertsonen, beste espezie batzuen eta ingurumenaren osasunerako". Izan ere, Ixutu Begixak taldeko kide Joseba Lopezen esanetan, "osasunarendako kaltegarria da teknologia berri hau", eta Udalari eskatzen diote hori kontuan izateko eta egin dezakeena egiteko 5Ga Oñatin ez ezartzeko. "Gasteizera heldu da, adibidez, 5Ga, eta beste hiri askotara ere bai. Baina honen aurkako ahotsak Europa osoan ari dira entzuten eta oñatiarrei ere eskatu gura diegu gaiaren inguruko informazioa topatzeko eta horren gainean irakurtzeko", azaldu du Ixutu Begixak taldeko kideak.

Bingo irekia antolatu du Auzokok eguaztenerako

Oñatiko Auzoko egitasmoko kideek ez ezik, Gasteizkoek, Soraluzekoek, Ibarrakoek, Arrasatekoek eta Eskoriatzakoek ere hartuko dute parte telematikoki egingo duten bingoan. Ez da ohiko bingoa izango, zenbaki gutxiago eta kolore gehiago izango ditu

Oihana Elortza OÑATI

Koronabirusaren krisiak ekarritako egoerara moldatu behar izan du gizarteak, gutxi edo asko, eta Auzoko egitasmoak ere horixe egin du. Oñatiko Auzoko taldeak, esaterako, bideo-deien bidez, modu telematikoan, egiten ditu orain saioak. Eta saio bereziak prestatzea ere pentsatu dute. Esaterako, datorren eguaztenean jokatuko den bingoa.

Joan den martitzenean online egindako saioa. AUZOKO OÑATI

Aurrez eman behar da izena

Bingo berezia izango da. Izan ere, Oñatiko taldeko kideek ez ezik, beste herri batzuetako partaideek ere jokatuko dute. "Hori da. Oñatiko Auzoko taldekoak diren kideak egongo dira, baina baita Gasteizkoak, Eskoriatzakoak, Arrasatekoak, Ibarrakoak eta Soraluzekoak. Denok batera konektatuko gara eta elkarrekin jolastuko gara. Euskaraz, noski", dio bingoa prestatzen ari den Iratxe Arresek.

Euskara ikasteko, euskaraz berba egiteko eta, bide batez, herria eta herritarrak ezagutzeko egitasmoa gura du izan Auzokok; batez ere, kanpotik datozen lagunendako. Horiekin batera, herritarrak, auzotarrak, elkartzen dira taldean euskaraz berba egiteko, eta eguaztenerako bingoan ere parte hartzeko aukera izango dute. "Bai, eta bestelako herritarren bat ere konektatu ahal izango da, bingo irekia izango da. Hori bai, aurrez eman behar da izena. Eta horretarako, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 661 74 35 01", dio Arresek.

Izen-ematea gaur, egubakoitza, irekiko dute eta 11ra arte egongo da zabalik. Maiatzaren 11n kartoiak banatu zaizkio dinamizatzaile bakoitzari, horiek parte hartzaileei 12an banatuko dizkiete kartoiak, marrazteko tartea izan dezaten. Eta 13an, eguaztena, hasiko da bingoa, 17:30ean.

ORAIN, ASTEAN BI SAIO EGITEN DITUZTE, ONLINE, AUZOKO OÑATI TALDEKO KIDEEK

Batetik hogeira

Parte-hartzaileek margotu egin beharko dituzte kartoiak, ez delako ohiko bingoa izango. "99rainoko zenbakiak izan beharrean, 20raino egongo dira bakarrik, baina kolore askotan. Bi kontzeptu horiek landu ditugu eurekin: 1etik 20ra arteko zenbakiak eta koloreak. Eta bien arteko konbinazioak erabilita beteko ditugu bingoko kartoiak", azaldu du Iratxe Arresek.

Herri ezberdinetako partaideak izango dituen lehen ekitaldi telematikoa izango da hau, baina ez azkena; gehiago ere badituzte buruan. "Auzoko egunari begira ere pentsatu dugu zerbait egitea. Aurten Gasteizen zen ospatzekoa jaia, ekainean. Bertan behera gelditu da hori, baina, beste modu batean bada ere, gustatuko litzaiguke ekitaldiren bat egitea".

'Ikusi mendizaleak' abestia

Horrelako ekintzak antolatzearekin batera, ohiko jardunari eusten diote Auzoko Oñati taldean, sare bidez bada ere. Esaterako, astean bi saio egiten dituzte online. "Paseora joateko aukera dago orain eta adibidez aurreko saioetan egon gara lantzen mendiarekin lotura duten hitzak, eguneko irteera mendi aldera eginez gero hitzekin gogoratzeko. Horrez gain, joan den martitzenean, *Ikusi mendizaleak* kantua abesten eta ikasten aritu ginen", dio dinamizatzaileak. Horrela moldatzeko, baina, derrigorrezkoa da wifia izatea, eta Udalak horren beharra duten ikasleei ematen dien SIM txartelaren moduko bat erabiltzen du Auzoko Oñati taldeko kide batek ere, taldekideekin batera eskolak jarraitzeko eta auzotarrekin harremanak mantentzeko. "Auzotarrak ere sartzen dira astean birritan egiten ditugun saioetan. Horietako batzuk etxetik ari dira orain lanean eta ezin izaten dute beti konektatu, baina tarteka bai eta ona da hori, harreman hori ez etetea gura dugu denok eta", dio Auzokoko Iratxe Arresek.

Bertan behera utzi ditu Oñatzek 50. urteurreneko ekitaldiak

Oñatz dantza taldeak erabaki du 2020rako zituen jarduera guztiak etetea eta datorren urtera atzeratzea

Goiena komunitatea

Oñatz dantza taldea / OÑATI

Ilusioz eta arduraz ekin genion duela urtebete Oñatz Dantza Taldearen 50. urteurrena antolatzeari. Ideiak bildu, lantaldeak sortu, ardurak banatu... Hamabi hilabetez ulertu, bizi eta hauspotu dugu gure iraganaren, orainaren eta etorkizunaren funtsa: euskal kultura, transmisioa eta elkarlana. Nork esango zigun, baina, urtarrileko eta otsaileko ospakizun ederrek ezin izango zutela jarraipenik izan martxotik aurrera. Uztaila bitarteko egitaraua bertan behera utzi ostean, erabaki genuen heldu zitzaigula zirt edo zart egiteko unea. Zin dagigu ez zela erabaki erraza izan. Apirilaren 29an bildu ginen urteurrenaren koordinatzaileok eta 16 lantaldeetako arduradunak, eta aho batez ondoko erabakia hartu genuen: ospakizunaren parte garen guztiontzat onena dela pentsatuta, 2020. urterako aurreikusita geneuzkan jarduera guztiak 2021. urtera atzeratzea. Ez diogu agur esango, gero arte baizik. Eta zuri, gorulari, eskerrak. Eutsi goiari!

Egoerara moldatuta ospatuko dira San Migel Txiki jaiak bihar

Egungo egoerara moldatu dute aurtengo San Migel Txiki jaietako egitaraua. Mezuari ere buelta eman diote: *Gaur komerixak eta bixar juergia*.

Aurten, egun bakarrean eta Internet eta sare sozialak erabilita ospatuko dituzte aurtengo San Migel Txiki jaiak. Youtubeko eta Instagrameko auzoko kanalak erabiliko dituzte jaien jarraipena egiteko. Hasteko, Jerardo Elortzaren *Gure auzoa* bideo emanaldia egongo da, 11:30ean. Eta horren segidan, txistularien goiz-eresia eta bertso saioa. Eguerdian, auzoko balkoietan hartuko dute marianitoa eta egingo dute bazkaria; baita emakumeen brindisa ere. Arratsalderako, mozorrotzea proposatzen dute, eta horrela parte hartzea mus txapelketan, dantza erakustaldian eta disko festan. Txalo zaparradarekin bukatuko da jaia, 20:00etan.

NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA

Bizkotxoak eltzean edo labean?

Bizkotxo bat egin nahi dut. Bizkotxo bat egingo dut. Ez dabil Youtube. Osagaiak: hiru arrautza, olioa, azukrea, irina, legamia, limoi-azala eta gatza. Has gaitezen: lehenengo, irina limoi-azalekin nahastu. Beste ontzi batean, arrautzak legamiarekin nahastu. Gero, irinera jogurta bota eta jogurtaren potean arrautzak bota. Hau eltzean sartu bost minutuz –edo 32... zuen erritmora–. Ostean, potea desintegratu ez bada, barrukoa plater batean hustu. Labeko plakan irina eta jogurta jarri, limoi azalarekin eta gatzarekin batera. Labera sartu. Nahi duzun denbora eduki. Guztia berriz eltzean nahastu. Azukrea falta da! Ba, eltze barrukoa platerera atera eta gainetik azukrea bota azala pixka bat goxatzeko.

Horra hor bizkotxoa! Sorpresa. Ez da espero zenutena? Agian, osagaiek ez dute bizkotxo on bat bermatzen. Hau ez dadin berriz gertatu: behar dugu sukalde dezente bat, tresna egokiak, kalitatezko osagaiak, sukaldari bikainak eta bizkotxo-jale hobeak. Baina, batez ere, behar dugu errezeta liburu on bat. Metaforarena gosea asetzeko da.

'Ttap' berritua eskuragarri!

+

Gora beherak

'Gorabeherak'
websailarekin!

ttap
Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan

DESKARGATU Play Store-n

DESKARGATU APP Store-n

Garazi Erostarbe txirrindulari oñatiarra Azpeitiko errepideetan dabil egunotan entrenatzen. GARAZI EROSTARBE

Malen Ruiz de Azua, Kurtzetxikin, bizikletarekin. MALEN RUIZ DE AZUA

Txapelketarik ezean, erabaki dute ez estutzea

Kirol jarduera ezberdinetan erreferente diren ibarreko lau lagunekin izan da GOIENA, baina horietako bakarrak du konfinamenduko fase honetan kirola edozein ordutan egiteko baimena, Eneko Carrascalek. Arrasateko atletak, baina, ez du hori aprobetxatu

Xabier Urzelai ARRASATE

Gainontzeko herritarren moduan, jarraian datozen lau lagunek sei aste egin dituzte konfinamenduan. Euren kasuan, baina, 2020 honetara begira kirol helburu eta erronka zorrotzak zituzten egutegian gorriz adierazita. Eta COVID-19aren erruz bertan behera geratu dira denak, edo gehienak.

Euskal selekzioko mendi lasterkari Iñigo Alzolak Espainiako Kopa zuen begiz jota. Garazi Erostarbe Sopela Women's Team taldeko ziklistak lehenengo denboraldiari egin behar zion aurre talde berriarekin. Valencia Sport taldeko atleta Malen Ruiz de Azuak aire libreko denboraldia zuen begiz jota. Eta Real Sociedad taldeko atleta Eneko Carrascalek ere asmo bera zuen, salto hirukoitzean ekain inguruan *hegan* egin gura zuen. Bada, beste urtebetez itxaron beharko dute. Ahaztu aurretik, lau kirolari horietatik Eneko Carrascalek bakarrik du edozein ordutan entrenatzeko baimena, elite mailako kirolari moduan kontsideratu duten bakarra izan da.

ENEKO CARRASCAL REAL SOCIEDAD TALDEKO ATLETA

"Oraindik ez dut aprobetxatu edozein ordutan entrenatzeko daukadan baimena, azterketei eman diet lehentasuna"

Eneko Carrascal da lau lagun hauen artean kirola edozein ordutan egin dezakeen bakarra, estatuko elite mailako kirolarien artean dago Realekoa: "Baimen horiek nahiko kontraesankorrak dira; pentsa, duela hiru urte junior mailako Europako Txapelketan lortutako zazpigarren postuagatik eman didate CSDkoek baimena [Espainiako Kirol Kontseilu Gorena], eta gaur egun puntaren puntan dabiltzan batzuek ez dute baimenik jaso".

Baina baimena izanda ere, arrasatearrak oraindik ez du kirola edozein ordutan egiteko aukera hori aprobetxatu: "Azterketetan buru-belarri nabil, MUn nabil Ingeniaritza Mekanikoa ikasten, eta Aste Santu ostean hasi genituen azterketak. Eta, gauzak diren moduan, orain ikasketak dira lehentasuna. Hori horrela, aste honetan kirol apur bat egiteko goizean goiz irten naiz etxetik, 07:00etarako. Ea datozen egunetan baimena aprobetxa dezakedan".

LAU KIROLARIETATIK ENEKO CARRASCALEK DU BAIMENA ORDUTEGI LIBREAN ENTRENATZEKO

Arrasatekoak, baina, soinean eraman beharko du CSDkoen agiria: "Bai, atleten artean baditut zenbait lagun arazoak izan dituztenak. Valentzia aldeko lagunek anekdotaren bat edo beste kontatu didate, entrenatzera irten eta poliziak bost aldiz geratu... Edo herritarren haserrea agoantatu behar izan dutenak ere izan dira. Egubakoitzean [gaur] izango dut azkeneko azterketa eta ondoren hasiko naiz apur bat serioago entrenatzen, ea herritarrek ez didaten haserrerik egiten!".

Denboraldia amaituta

Arrasateko atletak amaitutzat eman du aire libreko denboraldia: "Badakit entrenatzailea Arrasateko Udalarekin jarri dela harremanetan Mojategin dugun materiala etxera eraman ahal izateko, pisuak eta beste. Baina instalazioek itxita jarraituko dute; horrenbestez... Mikel Uribesalgo entrenatzailearen asmoa da uztailean etxeko atleton artean Mojategin txapelketatxo bat antolatzea, salto egiteko ohitura ez galtzeko, eta motibazioari apur bat eusteko. Baina ez dakigu halakorik egitea posible izango ote den. Bien bitartean, kirola egiten jarraituko dugu, bizikleta apur bat, mendi buelta bat... Ni ez naiz geldi egotekoa".

DENBORALDIA AMAITUTZAT EMAN DUTE IA GUZTIEK, NAHIZ ETA DENA AIREAN DAGOEN

GARAZI EROSTARBE SOPELA WOMEN'S TEAM TALDEKO ZIKLISTA

"Aire librean egiten ditugun kilometroak izaten dira entrenatzeko emankorrenak"

Garazi Erostarbek aukera izan duen momentuan gogoz hartu du errepideko bizikleta: "Konfinamendua ahalik eta ondoen eramaten saiatu gara, ez zegoen beste aukerarik, baina egoera arraroa izan da. Bai eguneroko bizimodua, baina baita horrenbeste denboran etxean entrenatzea. Arrabolean ibili naiz asko, egun batzuetan ordu eta erdiko saio bakarra egiten nuen, eta beste batzuetan saio bikoitza izaten zen, goiz eta arratsaldez, bi ordu eta erdi inguru guztira. Entrenatzaileak esan zigun gehiago egitea ere ez zela komeni, eta horrekin batera indar ariketak egiten ere ibili naiz", dio oñatiarrak. Baina aitortu du ez dagoela aire librean entrenatzea modukorik: "Gu ohituta gaude kanpoan entrenatzera, orduak ematen ditugu errepidean, eta horko entrenamenduak izaten dira benetan emankorrak. Arrabol gainean

Eneko Carrascal, Bedoña inguruan mendi buelta egiten. ENEKO CARRASCAL

Iñigo Alzolak ez du korrika egiten hasteko presarik; egunotan, mendian dabil lasai. IÑIGO ALZOLA

ahalik eta gutxien galtzen saiatu gara".

Baimen berezi barik

Kontinental mailako taldea da Sopelakoa, eta emakumezkoen kategorian UCI World Tourrean dabiltzanei soilik eman diete aukera edozein ordutan entrenatzeko; hala, taldekide bakarrak ere ez du edozein ordutan entrenatzeko aukera, eta 10:00etarako etxean egon behar izaten dute denek: "Horrenbestez, bi orduko lan-saioa egin behar dudanean 08:00etan irteten naiz kalera, eta hiru ordukoa agintzen digutenean 07:00etan. Eta iluntzeko tartea paseatzeko aprobetxatzen dugu". Hala, oñatiarrak Azpeitian bete du konfinamendua, bikotekidearen etxean, eta han ere errepide onak dituela aitortu dio GOIENAri: "Azpeitiko ingurukoetan ere badago bizikletan non ibili: Bidania aldera, Mandubira, Urrestillara, Errezil aldera... Hemen ez dut Udanara edo Arantzazura igotzerik, baina mendate politak ditut inguruan".

IÑIGO ALZOLA EUSKAL SELEKZIOKO MENDI LASTERKARIA

"Ez dut giharretako minez egoteko batere gogorik; oraingoz, bizikletan ibili eta mendian paseatzerekin konformatzen naiz"

Iñigo Alzolak GOIENAri aitortu dio uste baino hobeto pasa duela konfinamendua: "Bikotekidea eta biok oso formal ibili gara, astean behin irteten ginen txandaka erosketak egitera, eta, bestela, ez dugu kalea ezertarako ere zapaldu; zaborra ateratzeko, besterik ez". Eta etxean kirola egitea ondo etorri zaie, baina ez kirol hitzordu konkretuak prestatzeko helburuarekin, arrasatearra segituan konturatu zen-eta horrek ez zuela inongo zentzurik: "Sikiera, egunari ordubete hori kentzeko ederto etorri zaigu kirola egitea. Egia esan, zorte galanta izan dugu, konfinamendua baino apur bat lehenago kasualitatez arrabol berria erosi genuelako, eta etxean bi arrabola izanda bikotekideak eta biok elkarrekin egin ahal izan dugu kirola". Eurek biak batera, eta sare sozialen bitartez beste hainbat lagunekin batera ere jardun dute: "Bai, arrabol saio batzuk lagunartean egin ditugu sare sozialen bidez, eta alde ona! Lan-saio horiek entretenigarriagoak ziren, eta elkarren berri ere izan dugu".

Hala, *Zwift* plataforma birtuala probatzeko tartea ere izan du Alzolak: "Arrabol berriarekin lehenengo hilabetea doan izan dugu, eta egia da lan-saioak errepikakorrak izan ez daitezen halako lasterketa birtualak eskertu egiten direla. Baina kontuz, egunen batean hamabost minutuko lan-saioaren ondoren uste nuen lehertu egin behar nuela! Sekulako erritmoa izaten dute proba horiek!", dio, barrez.

Espainiako Kopa, ahaztuta

Hala, mendi lasterketetan Espainiako Kopako probak begiz jota zituen korrikalariak arrabola bai, baina ez du batere korrikarik egin: "Hasieran ahalegindu nintzen garajean saioren bat egiten, baina segituan ikusi nuen ez zuela merezi. Arrabolean ibili naiz entretenitzeko, eta osasun mentalerako kirola egitea ona delako [Barre], baina mendi lasterketen denboraldia amaitu da, eta ez zuen merezi horiei begira entrenatzen ibiltzea". Hala, Alzolak aitortu du aste honetan aire librean ere ez dela animatu korrika egitera: "Egia esango dizut, ez dut korrika hasteko batere gogorik, edo korrika hastea baino giharretako minez ibiltzeko batere gogorik. Arrabola egiten jarraitu dut, baita indar ariketa batzuk ere, eta bikotekidearekin mendian paseo batzuk ematearekin konformatzen naiz".

MALEN RUIZ DE AZUA VALENCIA SPORT TALDEKO ATLETA

"Aitaren bizikletan nabil, eta korrika apur bat ere egin dut, baina denbora pasako da berriz pertika esku artean hartu orduko"

Malen Ruiz de Azua gogotsu zegoen aire libreko denboraldiari begira. Pista estalian, neguan, ez zituen nahi moduko markak lortu, nahiz eta entrenamenduetan gozatu egin zuela aitortu. Ezin izan zuen Espainiako Txapelketa absolutua hirugarren urtez irabazi, baina horrek baino min handiagoa egin zion neguan egindako lan onari txapelketan etekinik ez ateratzeak –ezin izan zuen 4,32ko marka gainditu–.

Arrasatekoak, baina, segituan gainditu zuen Galiziako txapelketako zapore txarra, bazekielako neguko sentsazio onak udako sasoira eramaten bazituen markak etorriko zirela. Eta sasoi batetik besterako trantsizioan harrapatu zuen pandemiak: "Aspertu egin naiz, ez dizut gezurrik esango, bereziki astebuetan; izan ere, aste barruan telelanean jardun dugu eta entretenigarriagoa zen. Baina asteburuak...", dio, barrez. "Ez dut balio etxean egoteko. Ikusten nituen elkarrizketak han eta hemen, jendea esaten ondo zeramala konfinamenduarena, eta ernegatu egiten nintzen [Barre]. Baina beno, egoera horretara moldatzea baino ez zegoen".

Mantentze ariketak egiten

Ruiz de Azuak egun hauek baliatu ditu sasoi punturik galdu duen ikusteko: "Orokorrean, nahiko formal ibili naiz. Egunen baten hozkailura joan-etorri mordoa egin dut [Barre], baina zaindu egin naiz, bai. *Core* ariketak egin ditut giharretako indarra ez galtzeko, eta etxean dugun bizikleta estatikoan ere ibili naiz. Tarteka, garajean ere ariketa batzuk egiten nituen... Ez dut uste giharretan indar askorik galdu dudanik, baina ez dut atletismoko pistan intentsitateko entrenamendu saiorik egiteko aukerarik; hortaz, ezin dut askorik esan".

Gobernuak aire librean herritarrei kirola egiteko aukera eman dien honetan, baina, 2020ko pista estaliko Espainiako Txapelketa absolutuan bigarren izan denak ez du kirola edozein ordutan egiteko baimenik: "Ibili naiz begira, eta atletismoan elite mailako kirolari moduan kontsideratzeko kontuan izan dute azken urteotan nazioarteko txapelketetan egindako lana".

Hala, 2017an Polonian egindako 23 urtez azpikoen Europako Txapelketan izan zen Ruiz de Azua: "Baina txapelketara sailkatze hutsa ez da nahikoa izan, finalisten artean egon beharra zegoen; hau da, zortzi onenen artean sailkatu izan direnei eman diete baimena, eta ni bederatzigarrena izan nintzen", dio, barrez. "Zer egingo diogu, ba!".

Hori horrela, gainontzekoak bezala goizeko lehenengo orduak edo iluntzeak aprobetxatzen dabil arrasatearra: "Lehenengo egunean, aitaren bizikleta hartu nuen buelta bat emateko, eta ondoren, pare bat egunetan korrika egin dut lasai-lasai. Imajinatzen dut denboraldi-aurre luzea egingo dugula datozen hilabeteotan, eta ikusteko dago udazkenean kluben artean-edo txapelketaren bat egiteko moduan gauden. Baina, gauzak dauden moduan egonda, seguru nago denbora asko pasako dela pertika ostera hartzen dudanerako".

Zuzeneko kultura saioei irtenbidea aurkitu guran

Sektoreko profesionalak eta udaletako kultura sailak dagoeneko bi hilabetez geldi dagoen kulturgintzaren gurpila aktibatzeko neurriak berrasmatzen ari dira; helburua, kalitatezko programazioa eskaintzea lan baldintza eta baliabide duinetan oinarrituta

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Alarma egoera ezarri zenetik 50 egun baino gehiago dira, harrezkero ez da zuzeneko ikuskizunik izan aretoetan. Kulturgintza arloko enpresa, areto, komunikabide eta bestelako eragile batzuk hasi dira zuzeneko *streaming* saioak egiten.

Zu(z)enean ekimen berriaren proposamena zuzenekoak abiatzeko. IBAN ZUBELDIA

Bertsoak ere, 'online'

Bertsozale Elkarteak aurreko asteburuan abiatu zuen Lanku Kultur Zerbitzuen bidez *Plaza* ekimena, eta hitzartuta zeuden bertso saioak *online* eskaintzen hasi dira horrela. Informazio gehiago, *Bertsozale.eus* atarian.

Aretoak ere hasi dira ateak zabaltzeko lehen saiakerak egiten, eta Gasteizko Jimmy Jazzekoek zuzeneko *streaming* kontzertua iragarri dute ekainaren 6rako: Bergarako Brigade Loco eta Arrasateko Arkada Social taldeekin, besteak beste.

Bilboko telebista eta ekoiztetxe bana apirilean hasi zen *SalaBBK Etxean* saioa eskaintzen, publiko bako aretoan grabatutako antzerki eta kontzertuekin osatuta. Goiena telebistan bertan asteburuan izango da saioa ikusgai, 22:00etan: egubakoitzean, *Ghero* antzezlana; zapatuan, Eñaut Elorrietaren kontzertua; eta domekan, Zetak taldearena.

'Zu(z)enean': aukera berri bat

Askotariko kultura ekitaldiak eta jaiak antolatzen eta hainbat musika talderen *manager* lanak egiten dituen Bidean Produkzioak-eko Haritz Zubiate arrasatearrak kontatu du kulturgintza sektorea berpizteko eta arloko profesionalen lan-jarduera eta baldintza duinak bermatzeko helburuarekin sortu dutela *Zu(z)enean* ekimena. "Ekitaldiak zuzenean eta *streaming*-ean emititzeko ziklo bat eratu nahi dugu, erdigunean jarrita sortzaileak eta arloko bestelako profesionalak. Formula zehatzak bilatzen ari gara, eta gure asmoa da erakunde publikoek –udalek ere bai– jaietarako eta kulturarako duten aurrekontuaren zati bat, behintzat, horretan mantentzea, eta hortik ere finantzaketa bat jasota, kultur arloko profesional guztien lan baldintza duinak bermatuta, kalitatezko emaitza profesionala eskaintzea".

Bidean-ekoek abiatu duten egitasmoa dagoeneko beste hainbatek sostengatzen dutela gaineratu du Zubiatek: "Gurekin lan asko egiten duen argi eta iluminazio diseinatzaile batekin elkartu ginen hasteko, eta poliki-poliki proiektua handitzen joan da eta orain lau enpresa gaude *Zu(z)enean* ekimenean; hala ere, ezinbesteko ikusten dugu erakundeen inplikazioa; izan ere, erakundeek aurrerapauso bat eman behar dutela uste dugu, sektorean aktibazio bat egon dadin; hortaz, laster, proiektua erakundeetara aurkeztuko dugu, eta Goienarekin ere elkarlana adosten ari gara horren guztiaren komunikazioa eta hedapena egiteko. Sortzaileekin lehenbailehen batzea da asmoa, argi daukagu-eta horiek mimatu beharra daukagula".

Herriko eragileekin elkarlanean

Fase ezberdinetan oinarritutako programazio bat diseinatu dutela kontatu du Oñatiko Kultura zinegotzi Iñaki Olaldek: "Uda bukatu bitarteko agenda esku artean daukagu, eta zuzeneko ekitaldietan zentratzen ari gara; ez dugu baztertzen *streaming* bidez zabaltzea. Aretoetan eta kanpoan egin nahi ditugu. Aurrez herriko beste eragile batzuek –auzoetako jaiak, esaterako– bertan behera utzi dituzten kontratazioek tokirik duten jada aztertu dugu, eta harremanetan gaude artistekin, baita Kalean programa osatzen, kartela diseinatzen eta egutegia lotzen".

Astean egin duten Neurri Berezien Mahaiaren batzarrean, EAJk "kultura sektoreko herritarrei laguntzeko foro bat sortzea" proposatu dio Udal Gobernuari, "elkarlanean, erabakiak eta neurriak hartzeko".

Barruko denboraldia amaitzen

Debagoienean ere, ekainean ixten dituzte aretoak eta kalera ateratzen dute kultur eskaintza. "Informazioaren zain gaude, eta ditugun aukerak aztertzen; hala ere, zalantzak ditugu gauden garaian gaudelako merezi duen antzokia zabaltzea. Udazkenerako atzeratu dugu aretorako aurreikusitako guztia. Jaietako ekitaldiei eta uztaileko Udazabal programari ze irtenbide eman ari gara, bereziki, lantzen".

Aretxabaletako alkate Unai Elkorok dio ez dutela "ezer erabakita kultura arloan, baina kaleko ekitaldiak egitea" lehenesten dutela, eta gaineratu du: "Beste era batera, baina Andramaixak egiteko asmoa dugu".

Musikarien proposamena

Bergarako Seminarixoan programatutakoak urte bukaerarako eta datorren urte hasierarako atzeratu dituztela dio Maider Osa Kultura teknikariak: "Zuzeneko *streaming* saioak egiteko aukera aztertzen ari gara, herriko musika talde batek ere proposamen hori egin digu; eta ari gara, era berean, kontratatuko sortzaileei aurrez ordaintzeko aukera ere aztertzen".

Kultura-zaleak, gosez

Streaming bidez bada ere, orokorrean, zuzenekoen gogoz daude kulturazaleak; hala ere, badira zalantzaz ikusten dutenak ere, jendeak areto barruan sartzeko gogo gutxi izango duelakoan. Ederra litzateke, baina, etxeetatik erakutsi den kulturarekiko gosea agertokien buelta ere erakustea.

'ZU(Z)ENEAN' EKIMEN BERRIAK KULTURA PIZTEA DU HELBURU, LAN BALDINTZA ETA EMAITZA DUINEKIN

ZETAK
GOIENA TELEBISTA, KONTZERTUA
MAIATZAREN 10EAN, DOMEKAN, 22:00ETAN
BABESLEA: SALA BBK

goiena
Zu hemen zaude.

Bergarako Brigade Loco boskote gazteak prest du bigarren lana kaleratzeko. BRIGADE LOCO

'Amets bati lotuta' lana aurkezteko deseatzen

Brigade Loco taldeak prest du bigarren diskoa, baina zaleek itxaron egin beharko dute, oraingoz, eskuetan lan berria izan arte; ilusio handia dute Gasteizko Jimmy Jazz aretoan ekainaren 6an zuzeneko kontzertua eskaintzeko, 'streaming' bidez

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Otsailean grabatu zuen Brigade Loco taldeak *Amets bati lotuta* izeneko bigarren lana; aurrekoa bezala, Julen Urzaizekin Iruñeko Sound of Sirens estudioan, eta Kataluniako Ultramarinos-en egin zituzten, ondoren, nahasketak eta masterizazio lanak.

Biniloan eta CD formatuan aterako dute; eta, dena prest duten arren, zaleen eskuetan jartzeko une egokiaren zain daudela azaldu du Oier Aperribai baxu-joleak: "Itxaron egingo dugu pixka bat, baina zuzenean jotzen hasi aurretik salgai jartzea da gure asmoa. Diskoaz gainera, posterra eta kamiseta berria ere aterako ditugu".

Aurrekoa baino "landuagoa"

Hamaika abestirekin osatu dute bilduma, taldeak egindakoak guztiak, bertsio bat ezik. Punk rock estiloa egiten izan jarraitzen dute, baina lehenengotik lan berrira bilakaera nabari dela dio: "Musika aldetik, landuagoa da; aurreko lanean egindako akatsetatik ikasi eta hobetzen saiatu gara. Abestiak sortzeko denbora gehiago hartu dugu, eta nik uste dut igartzen dela hori, abesti hobeak edo landuagoak dira. Hitzen gainean gehiegi kontatu gabe esango nuke irlandarren borrokari buruzkoa dela bat, eta Telesforo Monzoni eskainitako bat ere badagoela".



'AMETS BATI LOTUTA'

- **Estiloa** Punk-rocka.
- **Autoekoiztua**.
- **Non grabatu** Sound of Sirens estudioan. Eta Ultramarinos-en egin dituzte nahasketak.

Herrian ere aurkezteko asmoz

Ekainaren 6an, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan egingo dute kontzertua zuzenean –*streaming*-etik–, Arrasateko Arkada Social eta Tafallako eta Larragako Rotten XIII taldeekin batera; eta sekulako ilusioarekin hartu dute proposamena: "Ez genuen espero kontzertuak hain azkar emateko aukerarik izango genuenik, eta, gainera, beste bi talde-lagunekin izango gara. Sekulako motibazioa izan da!".

Gasteizko emanaldia ez da diskoaren aurkezpen ofiziala izango; aurrez esan duten moduan, herrian aurkezteko gogoz daude: "Ez dakigu nola eta noiz egin ahal izango dugun, baina asmo berarekin jarraitzen dugu: San Martin plazan kontzertu handi bat egitea, lagun-musikariak gonbidatuta. Normaltasunera bueltatzen garenean, ekintza asko egongo dira pilatuta, eta ez da erraza izango horiei guztiei tokia egitea, baina asmatuko dugu zerbait" .

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko maiatzeko sariak!

Telebista LG 32''
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista

EROSKI

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ

Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea
www.harremandenda.org

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: *kluba@goiena.eus* **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzailearen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua

ZUMELAGA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduon* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 *kluba@goiena.eus*

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

2020ko bazkidetza: **56€**
Deitu: **943 25 05 05** • *kluba@goiena.eus*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ZERBITZUAK

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Baserria Oñatin. Baserri bat erosiko nuke Oñatin. Harremanetarako telefono zenbaki honetara idatzi edo deitu. 653 01 71 65

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Hiru pertsonako familia bat gara eta errentan hartzeko etxebizitza bila ari gara. Badaukagu lana. Harremanetarako zenbaki honetara deitu: 645 72 92 87

Bergara. Neska euskaldun gaztea naiz eta etxebizitzaz aldatzea gustatuko litzaidake Bergaran. Norbait etxebizitzaren baten berri badu, mesedez jarri nirekin harremanetan. Eskerrik asko. Harremanetarako telefono zenbaki honetara deitu: 684 14 95 54

Eskoriatza edo Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Deitu 651 64 55 05 telefonora.

Oñati edo inguruak. Oñatiko unibertsitateko ikasleak gara eta bi logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko.-Harremanetarako idatzi Whatsapp mezua hona: +39 333 8012675 edo 602 06 64 45

Oñati. Ikasle bikotea gara eta logela bat hartuko genuke errentan Oñatin edo inguruan. Harremanetarako deitu zenbaki honetara: 602 06 64 45

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. 75 urteko emakumeari laguntza eman eta etxeko lanak burutzeko emakumezko euskalduna behar da goizetan 4 orduz. Titulu ofiziala beharrezkoa da. Kontratuarekin. Interesatuok idatzi edo deitu 680 61 96 99 zenbakira edo ulexminor@hotmail.com posta elektronikora.

402. ESKAERAK

Bergara edo Arrasate. Bergarako neska gertu, goizez, arratsaldez edota gauez, umeak eta nagusiak zaintzeko. Baita bulego eta abarrak garbitzeko ere. Harremanetarako telefono zenbaki honetara deitu: 610 34 97 88

Bergara. Neska euskalduna lan bila: umeak zaindu, etxeko lanak egin, garbiketak eta abar. Esperientzia daukat arlo horietan. Irakasle titulua daukat. Telefonoa: 608 03 51 50 (Garazi)

Bergara. Soziosanitario titulua daukan emakumea arratsaldetan lan egiteko gertu. Telefonoa: 656 74 78 43 (Mari Carmen)

Debagoiena. Asteburuetan eta astean zehar, egunez, nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egingo nuke. Legezko agiriak eta lanerako titulazioa daukat. Deitu telefono zenbaki honetara: 662 02 45 80

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu orduka, egun eta gau solteetan edota asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta beharrezko agiri guztiekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 685 22 54 01

Debagoiena. Garbiketan, etxean bizi izaten edo egunean zehar nagusiak zaindu eta laguntzen, edota umeen zaintzan jarduteko gertu nago. Erabateko prestutasunarekin. Telefonoa: 604 37 79 34 (Marlen)

Debagoiena. Garbiketan, etxean bizi izaten edo egunean zehar nagusiak zaindu eta laguntzen, edota umeen zaintzan jarduteko gertu nago. Erabateko prestutasunarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 603 23 15 01

Debagoiena. Mutila gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egitean, zerbitzari moduan eta abar. Deitu telefono zenbaki honetara: 638 85 43 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Autoa daukat. 666 93 32 56 (Natividad)

Debagoiena. Neska gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egitean, zerbitzari moduan eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 654 11 15 14

Debagoiena. Nikaraguako mutila gertu nagusiak zaintzen, nekazaritzan edota frutategian lan egiteko. 631 79 31 92

Debagoiena. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere, nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egiteko gertu nago. Erabateko prestutasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 04 13 49

Erizain laguntzailea. Erizain laguntzailea orduka lan egiteko prest. Adineko pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egingo lituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 620 23 58 15

Nagusiak zaindu. Pertsona nagusiak zaintzea nahi dut. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 642 19 71 33 (Mariela)

Pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, arratsaldetan, aste bukaeratan edo jai egunetan. Badut autoa. 631 98 15 50

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover bila nabil. Land Rover Defenderra behar dut baserrirako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, matxuratuta, kolpearekin. 623 17 95 37

8. DENETARIK

808. BESTELAKOAK

Lursaila errentan hartu. Gutxienez hektarea erdiko lursaila errentan hartuko nuke urtebetez, animaliak izateko, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza edo Aramaio inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 66 19 80

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Uzaila, 62 m^2, 3 logela, igogailua, berrituta, bizitzera sartzeko. 165.000 €.
- Bolu, 103 m^2, 3 logela, igogailua, trastelekua, Bi garaje, bizitzera sartzeko. 340.000 €.
- Sanantonbat, 75 m^2, 2 logela, parkinga, txokoa, bizitzera sartzeko. 175.000 €.
- Zubiaurre, 63 m^2, 2 logela, trastelekua, igogailua, bizitzera sartzeko. 95.000 €.
- Ibarra, (Labegaraieta) 59 m^2, 3 logela, trastelekua. 65.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Osintxu, 72 m^2, 3 logela, berriztuta, bizitzera sartzeko. 100.000 €.
- Uzaila, (San Lorenzo), 63 m^2, 2 logela, trastelekua. 158.000 €.PREZIO JEITSIERA.
- A. Fleming, (poligonoan) 60 m^2, 2 logela, trastelekua egokituta 30,70m2. 160.000 €.
- Ahumategi Etxea, 360 m^2, triplexa, terraza, garajea. Bizitzera sartzeko. 360.000 €.
- Boarte, 70 m^2, 3 logela, bizitzera sartzeko. Garaja aukeran. 129.500 €.
- Zubieta, 70 m^2, 2 logela, berriztuta, terrazarekin, bizitzera sartzeko. 150.253 €.
- Artekale, 180 m^2 duplexa. 4 logela, igogailua. Bizitzera sartzeko. 373.500 €.
- Bolu, 65 m^2, trastelekua, igogailua, bizitzera sartzeko. 139.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- San Antonio, 76 m^2, berritzeko, igogailua jabeenen kontura. 99.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Irizar pasealekua, 93 m^2, igogailua, terrazarekin, berritzeko 160.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Zubiaurre, 60 m^2, 2 logela, berogailua, miradorearekin. 75.000 €.
- Zabalotegi, 83 m^2, 2 logela, igogailua, berriztuta, bizitzera sartzeko. 130.000 €.
- Masterreka, 75 m^2, 2 logela, bizitzera sartzeko. 169.000 €.
- Martoka, 60m2, 2 logela, igogailua, bizitzera sartzeko. 130.000 €.
- Ibargarai, 54m2, 2 logela, igogailua, bizitzera sartzeko. Garaje 2 aukeran. 216.000 €.
- Askarruntz, 60m2, 2 logela, trastelekua, bizitzera sartzeko. 100.000 €.
- Zubieta, 70m2, 3 logela, bizitzera sartzeko, egokituta. 114.192 €.
- Zabalotegi, 54m2, 3 logela, 2 trasteleku, bizitzera sartzeko. 90.000 €.
- Osintxu, 79 m^2, 3 logela, igogailuarekin. Aukera ona. 70.000 €.
- Osintxu, 75 m^2, 3 logela, trasteleku handiarekin. 63.000 €. Aukera ona.
- Masterreka, 86 m^2, 3 logela, altzariak barne. Berriztuta, bizitzera sartzeko. 150.000 €.
- Fraiskazari, 100 m^2, 3 logela, igogailua. 198.000 €.
- Matxiategi, 96 m^2, 4 logela, terrazarekin, igogailua. 139.500 €. PREZIO JEITSIERA.
- Fraiskazari, 100 m^2, 4 logela, trastelekua, igogailua. 180.000 €.
- Bidekurutzeta, 130 m^2, 4 logela, igogailua, trastelekua. 270.000 €. PREZIO JEITSIERA
- Zubiaurre, 60 m^2, 2 logela, bizitzera sartzeko. 65.000 €.
- Masterreka, 80 m^2, Berritzeko, aukera ona. 60.000 €.

UBERA:
- Baserria eta 15 hektareako lursaila (pinuak, zelaiak) 340.000 €. PREZIO JEITSIERA

ANTZUOLA:
- Errekalde, 90m2, 3 logela, igogailua, bizitzera sartzeko 135.000 €. PREZIO JEITSIERA
- Beheko auzoa, 60 m^2, 2 logela. Berriztuta. Bizitzera sartzeko. 120.000 €.
- Errekalde, 78 m^2, 2-3 logela, igogailua, bizitzera sartzeko. 125.000 €.
- Kalebarren, 79 m^2 – 77m2. Berritzeko. 61.000 - 51.000 €.
- Kalegoi, 80 m^2, 1go pisua-60.000 €. - 2 pisua + ganbara 70.000 €. Berritzeko
- Errekalde, 61 m^2, 3 logela, igogailua, berogailua. 105.000 €.

ELGETA:
- San Roke, Duplexa, 83 m^2, berrituta, bizitzera sartzeko. 190.000 €.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro
  18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

OROIGARRIA

Juan
Uribeetxeberria Maiztegi
'Juanito'

2020ko apirilaren 28an hil zen, 76 urte zituela.

Sarbiartetik jaitsita
Urbaltz inguruen elkartu
dela Ernio, zein txakolindegia,
dela Getari, zein mariskada,
goiezen lekura goiezela,
gurekin jarraitzen dozu, 'tio Juanito'.

Urbaltzeko lagunak.
Aretxabaletan, 2020ko maiatzaren 8an.

ESKER ONA

Maria Teresa
Fernandez de Arroyabe
Pagoaga

2020ko apirilaren 28an hil zen, 93 urte zituela.

Pertsonalki ezinezkoa zaigunez, familiak lerro hauen bitartez eskertu nahi dizkizue jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak.

Aretxabaletan, 2020ko maiatzaren 8an.

ESKER ONA



Maria
Bergaretxe Abarrategi

2020ko maiatzaren 4an hil zen, 80 urte zituela.

Haren anai-arrebak: Julian (†), Rosa eta Pablo Zubizarreta, Bittor eta Ines Leibar, Jesusa eta Miguel Herrarte (†), Bene (lekaimea), Angel eta Miren Muguruza, Xexpi eta Maite Muñoa. Ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizue.
Hileta eguna eta ordua gaur egungo larrialdi
egoera gainditzen dugunean zehaztuko dira.
GSR egoitzako langileei eskerrak eman nahi dizkizuegu,
gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik.

Aretxabaletan, 2020ko maiatzaren 8an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE *EGUNEZ*	
Egubakoitza, 8	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Zapatua, 9	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Domeka, 10	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Astelehena, 11	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Martitzena, 12	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguaztena, 13	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguena, 14	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
BERGARA *EGUNEZ*	
Egubakoitza, 8	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 9	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 10	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 11	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 12	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 13	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 14	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK*	
Egubakoitza, 8	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 9	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 10	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 11	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 12	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 13	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 14	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE *GAUEZ EGUNERO*
(22:00etatik 09:00etara)
2020ko abuztuaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

BERGARA *GAUEZ EGUNERO*
(22:00etatik 09:00etara)
2020 osoan:
ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIGARRIA

Carmelo Letona Ugarte

2020ko maiatzaren 2an hil zen, 80 urte zituela.

Atzo gure ondoan,
gaur gure oroimenean,
betirako gure bihotzean.

Etxekoak.
Arrasaten, 2020ko maiatzaren 8an.

OROIGARRIA

Javier Agirrebarrena Ortiz

2020ko maiatzaren 2an hil zen, 61 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.

Nagixak kuadrilla.
Bergaran, 2020ko maiatzaren 8an.

OROIGARRIA

Jose Javier Izura Esandi

2020ko apirilaren 30ean hil zen, 80 urte zituela.

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin,
oroimenean izango zara zu beti gurekin.

Kalezaharra

Oñatin, 2020ko maiatzaren 8an.

ESKER ONA

Carmelo Letona Ugarte

2020ko maiatzaren 2an hil zen, 80 urte zituela.

Haren emaztea: Arantxa Erle Lizarralde. Semeak: Balendin eta Irune Zumalde, Igor. Bilobak: Irati eta Leire. Anai-arrebak: Juan Jose (†) eta Begoña Arregi. Ezkon anai-arrebak: Angeles eta Cornelio (†), Rosarito (†) eta Angel (†), Milagros (†) eta Jose Mari(†), Ixiar eta Jon (†), Joxe Mari (†) eta Juanita (†), Fidel (†) eta Milagros, Pakita (lekaimea), Jose Luis eta Pepita, Maribel eta Jon (†). Ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizue.
Hileta eguna eta ordua gaur egungo larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko dira.

Arrasaten, 2020ko maiatzaren 8an.

ESKER ONA

Eusebia Garai Iriarte

Felix Balanzategiren alarguna

2020ko maiatzaren 4an hil zen, 100 urte zituela.

Haren seme-alabak: Marije eta Juan Ramon Ibarra, Eugenio eta Clarisa Colina, eta Josean. Bilobak: Leire eta Eduardo, Ramon eta Lorea, Iker eta Saioa, Sara eta Said. Birlobak: Dorleta, Ines, Clara, Telmo, Hodei eta Lur.
Anai arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizue.
Hileta eguna eta ordua gaur egungo larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko dira.
Iturbide egoitzako langileei eskerrak eman nahi dizkizuegu, gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik.

Arrasaten, 2020ko maiatzaren 8an.

ESKER ONA

Sebastian Aguirre Arechaga

2020ko maiatzaren 1ean hil zen, 88 urte zituela.

Pertsonalki ezinezkoa zaigunez,
familiak lerro hauen bitartez eskertu nahi dizkizue
jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak.

—

Gaur egungo osasun egoera dela-eta familiak ez du inor hartuko.

Arrasaten, 2020ko maiatzaren 8an.

ESKER ONA

Isabel Reguero Rodriguez

Juan Irigoyenen alarguna

2020ko apirilaren 30ean hil zen, 90 urte zituela.

Seme-alabak: Juanjo eta Nekane Aizpitarte, Roberto eta Pili Kortabarria, Ignacio eta Sole Galiana. Bilobak: Odei eta Onintza, Martin eta Aritz, Xana eta Amaia.
Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak eta beste senide guztiak.

—

Familiak jasotako doluminak eskertzen ditu eta gaur egungo egoera dela-eta azken agurra familia artean izango da.
GSR Aretxabaleta egoitzako langileei eskerrak eman nahi dizkizuegu, gure senideari eskainitako arretagatik.

Bergaran, 2020ko maiatzaren 8an.

ESKER ONA

Eugenio Diez Hernandez

2020ko apirilaren 30ean hil zen, 88 urte zituela.

Emaztea: Teresa Alvarez. Seme-alabak: Mari Jose eta Iñaki Acebo, Jose Javier eta Josefina Centeno, Tere, Isabel eta Jorge Ortega, Susana, Sonia eta Jose Callejo.
Bilobak: Gorka, Unai, Ivan, Eloy, Lorena, Markel, Erik eta Lujan.
Anai-arrebak, ilobak eta gainerako senideak.

—

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizue.
Hileta eguna eta ordua gaur egungo larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko dira.

Bergaran, 2020ko maiatzaren 8an.

ESKER ONA

Gregorio Lazcano Arriaran

Valentina Garcia Garciaren alarguna

2020ko maiatzaren 5ean hil zen, 85 urte zituela.

Seme-alabak: Aitor (†), Iñaki eta Mari Carmen, Amaia eta Iosu.
Bilobak: Uxue, Irati, Andoni eta Saioa.
Eta gainontzeko senide guztiak.

Familiak jasotako doluminak eskertzen ditu eta,
gaur egungo egoera dela eta, azken agurra familia artean izango da.

Mizpirualde egoitzako langileei eta bere lagunei eskerrak eman nahi dizkizuegu, gure aitari eskainitako maitasunagatik.

Bergaran, 2020ko maiatzaren 8an.

1. URTEURRENA

Maximo Iñurrategi Iriarte

2019ko maiatzaren 11n hil zen, 78 urte zituela.

Haundixe zitzen ta gugan halan jarraitxuko dozu.

Eskoriatzan, 2020ko maiatzaren 8an.

1. URTEURRENA

Javier Iria Unzueta

Biderako lagun zoragarriena, Javier
bidea erakusteko iparrik argiena, aitte
eta bideari ekiteko, eskurik goxoena, aittitte.

Etxekoak
Arrasaten, 2020ko maiatzaren 8an.

BABESLEA

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Momentu zail hauetan,
lankideok, Jonek, Ibanek, Mariok eta Maribik,
sentsibilitate eta maitasunarekin lan egingo dugu

Zure senideak ahalik eta ondoen agurtuko ditugu
Beti izan dugun lan egiteko eran.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

NONTZEBERRI

EÑAUT ELORRIETAREN KONTZERTUA

'Sala BBk etxean' *Zapatua, 22:00*

HERRI URRATS

HERRI URRATS: ZUZENEAN, KANALDUDEN

'Zuzeneko berezia' *Domeka, 12:00*

EGUBAKOITZA,8

08:00 Txantxariak
08:30 Kantari Oñati 5
09:00 Kantari Arrasate 10
09:30 Kantari Oñati 2
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Osasun ariketak
11:30 Hala Bazan: Kirola 5
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Kantari Oñati 3
13:30 Kantari Oñati 5
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albisteak
15:30 Kantari Oñati 5
16:00 Albisteak
16:30 Alde banatan 3
17:00 Albisteak
17:30 Adinberri 8
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Erreportajea: Balkoiez harago
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Hala Bazan: Kirola 5
21:30 Etxetik plazara
22:00 Antzerkia: Ghero
23:00 Hemen Debagoiena

ZAPATUA, 9

09:00 Kantari Oñati 7
09:30 Kantari Oñati 6
10:00 Kantari Oñati 8
10:30 Alde banatan 2
11:00 Osasun ariketak
11:30 Etxetik plazara
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Alde banatan 3
13:30 Elikatu 4
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Erreportajea: Balkoiez harago
16:00 Kooltur: Mockers
17:00 Alde banatan 2
17:30 Adinberri 9
18:00 Hilabetekaria
19:00 Alde banatan 3
19:30 Etxetik plazara
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Astearen errepasoa
21:30 Alde banatan 3
22:00 Kontzertua: Eñaut Elorrieta
23:00 Alde banatan 3
23:30 Etxetik plazara

DOMEKA, 10

08:00 Etxetik plazara
08:30 Txantxariak
09:00 Alde banatan 3
09:30 Kantari Oñati 6
10:00 Kantari Oñati 7
10:30 Kantari Oñati 8
11:00 Osasun ariketak
11:30 Hala Bazan: Kirola 5
12:00 Erreportajea: Balkoiez harago
13:00 Etxetik plazara
13:30 Hala Bazan: Kirola 5
14:00 Hilabetekaria
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Kantari Oñati 6
16:30 Iremos
17:00 Kantari Oñati 8
17:30 Adinberri 10
18:00 Kantari Oñati 6
18:30 Erreportajea: Balkoiez harago
19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Astearen errepasoa
20:30 Etxetik plazara
21:00 Kooltur: Mockers
22:00 Kontzertua: Zetak
23:00 Alde banatan 2
23:30 Etxetik plazara

EGUBAKOITZA, 8

HERRITARREN ETXEKO KONTUAK

'Etxetik plazara'

21:30/23:30

DOMEKA, 10

ZETAK TALDEAREN KONTZERTUA

'Sala BBK etxean'

22:00

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 12



GOIENA

KEPA ERRASTIRI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap'

21:30/23:30

EGUAZTENA, 13

'OSPITALETIK, KORONABIRUSAZ'

'Erreportajea'

21:00/23:00

TXUTXU-MUTXUAK

1. Bergarako eskola kirol egokitua
En Tol Sarmiento taldearen *Beste behin* kantuaren dantza egin dute Bergarako eskola kirol egokituko erabiltzaileek eta hezitzaileek, elkarrekin.

2. Sei Pistols & Trabuko Bat taldea
Konfinamenduko zortzigarren astean egonda ere, sormenak eta irudimenak ez du etenik. Sei Pistols & Trabuko Bat taldeak ekarpen ederra egin eta zabaldu du.

3. Laburpen musikatua
Joseba Sarrionaindiaren poema bati musika ipini dio Xabier Yaniz oñatiarrak. Bideoan ikus daitezke berrogeialdian protagonista izan diren hainbat une.

4. Atxorrotx Mendiaren Eguna
Etxean ospatu zuten aurreko domekan. Juan Antonio Gartzia *Mondra*-k eta Izaskun Diaz de Guereñuk seme aitorrekin ospatu zuten, tortilla eta guzti.

5. 50 urte ezkonduta
Felisa Ormazabal eta Rufino Orueta 1970eko maiatzaren 2an ezkondu ziren. "Zorionak eta besarkada handi bat, familiaren partetik! Konfinamenduaren ostean ospatuko dugu".

ZORION AGURRAK

OÑATI
Desi Astuy eta Saioa Varela
Maiatzaren 14an eta 20an, 21 urte. Zorionak, bikote, kuadrillakuon partetik! Ahal danian ospatuku guk dakigun moura... patxo potolo bana!

BERGARA
Ager Esnaola Tello
Maiatzaren 13an, 4 urte. Zorionak, Agertxo! Egun bikaina pasa dezazula. Laster ospatuko dugu bihar dan moduan. Muxutxo potolo pila, Bergarako familiakoen partetik.

OÑATI
Hegoi Aranburu Zabaleta
Maiatzaren 11n. Zorionak, maittia! Jada lau urte! Zelako mutiko handixa in zaren! Asko maitte zau! Patxo handi bat, aitatxoren eta amatxoren partetik!

ARRASATE
Eider Urkia Egidazu
Maiatzaren 11n, 3 urte. Zorionak, pototi, etxekuen partetik! Patxo potolo bat zure hirugarren urtebetetzian!

ANTZUOLA
Irati Sudupe Larrea
Maiatzaren 11n, 9 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Patxo potolo bat etxeko danon partetik!

ARRASATE
Julen Bermejo Lage
Maiatzaren 10ean, 13 urte. Zorionak, txapeldun! Egun zoragarria pasatu. Muxu handia, familia osoaren partetik!

OÑATI
Helene Erle Agirre
Maiatzaren 9an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, maittia! Primeran zelebrauku gaurko eguna Tokillon! Patxo handi bat bereziki zure anai Peruren partetik! Mua!

OÑATI
Aimar Erostarbe
Maiatzaren 9an, 17 urte. Zorionak!

OÑATI
Elena Arrazola Aranburu
Maiatzaren 9an, 2 urte. Zorionak, politta! Jarraittu zure irrifar ederrarekin gure bizitzak alaitzen. Patxo handi bat, etxeko danan partetik.

ARETXABALETA
Xabier Carbajo Alvarez
Maiatzaren 8an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Hau dana pasatzen denean, denok batera ospatuko dugu. Musu asko Markelen eta Lararen partetik.

BERGARA
Erik Gartzia Perez
Maiatzaren 8an, 9 urte. Zorionak urte askotarako, Erik! Ondo-ondo ospatu urtebetetze berezi hau! Besarkada eta patxo handi bat familia osoaren partetik.

ARETXABALETA
Laia Rodriguez Alberdi
Maiatzaren 7an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Orain etxeko handiak lau urte beteko ditu! Patxo eta besarkada erraldoi bat, etxeko guztion partetik!

OÑATI
Mara Mugarza Urizar
Maiatzaren 7an. Aupa Mara! 11 urte bete dau maiatzeko lorerik polittenak. Etxeko danon partetik, muxurik hundixena zuretako. Izugarri gura du, infinitura arte.

ARRASATE
Lorena Perez
Maiatzaren 7an, 40 urte. Zorionak, Lore! Ondo pasatu, *guapa*, zure eguna! Muxu potolo bat eta, hori bai, laster ikusiko gare denok, pila bat urtebetetze ospatzeko.

OÑATI
Aiantze Arregi Orueta
Maiatzaren 7an, 10 urte. Zorionak, *guapa*! Ondo-ondo pasatu zure eguna etxekuekin. Etorriko da lagunekin ospatzeko garaixa be ta! Patxo pila bat! Mua.

BERGARA
Ane eta Erik Beistegi Alvarez
Maiatzaren 7an, Erikek 6 urte eta 16an, Anek 10. A ze bikote maitagarrixa! Hau dena bukatzen denean, denok besarkatu, eta berriro ospatuko dugu!



ARETXABALETA
Julen Irizar Akizu
Maiatzaren 6an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu eguna eta besarkada handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Haizea Murgia
Maiatzaren 6an, 10 urte. Zorionak, Haizea. Familia osoaren partetik, besarkada bat!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ARETXABALETA
Jokin Isasisasmendi Esteban
Maiatzaren 5ean. Zorionak, Jokin, kuadrillako danon partetik!

OÑATI
Aner Urrutia Garcia de Albeniz
Maiatzaren 5ean, 10 urte. Zorionak, Aner! Etxekoen partetik ondo-ondo pasatu eguna. Patxo eta besarkada handi bat.

BERGARA
Jon Etxeberria Ugalde
Maiatzaren 5ean, 9 urte. Mila zorion etxekoen partetik. Patxo eta besarkada handi bat eta ondo ospatu zure eguna!



BERGARA
Maria Gonzalez Martinez
Maiatzaren 5ean, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako, maitia! Muxu handi bat guztion partetik.

BERGARA
Miren Larrañaga
Maiatzaren 5ean, 24 urte. Zorionak, *xikiturri*! Primerako eguna euki eta pasioko orduaz gozatu! Txintxin eta besarkada bat Bittoriren eta talde guztiaren partetik.

ARRASATE
Maria Garcia Sanchez
Maiatzaren 5ean, 29 urte. Zorionak, Maria! Muxu eta besarkada handi bat, Santa Teresa kaleko bizilagunen partetik. Laster ospatuko dugu!



OÑATI
Aiora Diaz Aizpurua
Maiatzaren 4an, 15 urte. Zorionak, Aiora. 15 urte ja! Ondo-ondo pasatu eguna. Muxu handi bat, familia osoaren partetik.

BERGARA
Elene Gabilondo Muguruza
Maiatzaren 4an, 4 urte. Segi horrelako alai eta dantzari. Ondo pasatu zure urtebetetze berezi honetan, familia osoaren partetik.

BERGARA
Oier Iturbe Garmendia
Maiatzaren 2an, 11 urte. Zorionak, Oier! Etxekoen eta familiakoen partetik, ondo-ondo pasatu eguna eta animo, laster ospatuko dugu

ARRASATE
Ibai Murgia
Maiatzaren 1ean, 14 urte. Zorionak, Ibai! Besarkada bat familia osoaren partetik!



OÑATI
Aiora Aranzadi Umerez
Maiatzaren 1ean, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, Aiora! Patxo potolo bat, familixako eta Moiuako bizilagun danan partetik!

OÑATI
Alaitz Egaña
Maiatzaren 1ean. Zorionak eta urte askotarako, Kixkurne! Egun larrei dia batera egon barik, baina badakigu gauza batzuk ez ziala aldatuko. Asko maitte zau. Apatxiwi.

ARRASATE
Unai Uribeetxeberria Errasti
Apirilaren 30ean, urtebete. Zorionak, Unaitxo! Ze aguro pasatu dan lelengo urtia zure albuan! Patxo handi bat, familixa danaren partetik!



ARRASATE
Oian
Apirilaren 30ean, 7 urte. Zorionak, Oian, 7 urte. Txapeldun! Besarkada handia zure familiaren partetik.



ARRASATE
Sofia Kortabarria
Apirilaren 29an, 96 urte. Zorionak, izeba! Zurekin egoteko desiratzen gaude! Asko maite zaitugu!

BERGARA
June Rouco Mendizabal
Apirilaren 29an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Bost urtetxo! Ze azkar doian dana, baina zenbat gauza ikasten zure onduan! Pila bat maitxe zaitxugu guztiok! Patxo handi bat!

BERGARA
Aitor Dacosta
Apirilaren 28an, 13 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat, etxekoen partetik. Bereziki June, Miren eta Andoni.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Adimen kolektiboa

Osasun krisia kontrolatzen hasi garen honetan, ondorioak nola kudeatu erabakitzeko ordua da. Jarduera ekonomikoa asko uzkurtuko da, diru publikoak neurri berean, eta ezinbestekoa izango da lehentasunak jartzea. Halakoetan, gurean ohikoa da aurrekontuen partida guztietan murrizketak egitea, txikienak jarduera industrialari edota herri-lanei dagozkienetan.

Oraingoan, ordea, adimenak beste zerbait aholkatzen du. Osasun krisiak agerian utzi du globalizazioaren alderik txarrena: merkatuaren hegemonia ankerra eta garapen eredu eutsiezina, planetari egiten diogun kaltea, hurbilekoa suntsitzearen arriskua... Senak dio garapen bidea justu kontrakoa dela; alegia, lurraldeak eta haien gaineko komunitateak trinkotzea, hurbilean eta lankidetzan elkarri bizitza duina bermatzeko. Eta horretarako zutabeak dira zerbitzu publikoak –osasuna, hezkuntza...– eta berdintasun politikak –oinarrizko diru sarrerak, genero eta hizkuntza berdintasuna...–.

Ez da teknokraziaren garaia, eta merkatuaren hegemonia apaldu beharra dago. Adimen kolektiboak erantzun komunitarioak eskatzen ditu; indartzen gaituzten politikak indartzea, murriztu ordez.

BUKATZEKO

GOIENA aldizkaria ohiko moduan gaurtik aurrera

GOIENA aldizkaria harpidedun guztien etxeetara banatu da gaur, egubakoitza; baita lantegi, saltoki, denda eta bestelakoetara ere. 20.000 harpidedunen helbideetara. Horrenbestez, ohiko banaketa berreskuratu du berriro ere

Naroa Urien Berrio ARRASATE

Koronabirusagatik larrialdi egoera ezarri zenean hartu zuen erabakia Goienak, Tokikom elkargoko euskarazko herri eta eskualde aldizkari gehienek bezala: zailtasunak zailtasun, informazio eskubidea bermatze aldera, GOIENA aldizkaria argitaratzen eta banatzen segitzea; eta, banatzaileen osasuna bermatze aldera, ohiko banaketa masiboaren ordez, Goiena Klubeko bazkide direnen helbideetara banatzea –*Puntua* aldizkariarekin batera–, eta gainerako aleak eskualdeko hainbat tokitan uztea, herritarren eskura, doan: kioskoetan, okindegietan, elikagai saltokietan...

Martxoaren 18tik apirilaren 30era arte, sei zenbaki argitaratu dira modu horretan. 4.000 ale Goiena Klubeko bazkideen helbideetara banatu dira, *Puntua*rekin batera; gainerakoak 140 salmenta toki publikotan utzi dira. "Eskerrak eman gura dizkiegu egoera berezi honetan GOIENA aldizkariaren banaketa-leku izan diren guztiei. Izan ere, haiei esker jaso ahal izan dute herritar askok gertuko informazioa, euskaraz eta doan", dio Iban Arantzabalek, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusiak.

Ander Romero eta Yunior De Peña, Batu Banatuko banatzaileak. XABIER URZELAI

Gaurtik aurrera, etxera

Gaurtik aurrera, ohiko moduan banatuko dira Goienaren papereko bi euskarriak. Beharrezko "segurtasun neurriekin", betiere, Igone Osinaga Goienako banaketa arduradunak ohartarazi duen bezala. "Hasieratik bermatu gura izan ditugu bi kontzeptu: informazio eskubidea eta Batu Banatuko –Goienaren banaketa enpresa– 17 langileen osasuna", dio Osinagak.

Ander Romero eta Yunior De Peña Batu Banatuko banatzaileak dira. GOIENA eta *Puntua* aldizkarien banaketaz gain, eskuorriak, egitarauak... ere banatzen dituzte. "Konfinamendua hasi zenean, banaketa aldatu behar izan genuen. GOIENAk beharrezko segurtasun neurriak eta materiala eman dizkigu uneoro, eta berdin-berdina ordaindu digu. Komertzioak ere oso ondo portatu dira gurekin. Oso eskertuta gaude", dio Romerok.

'Puntua', digitalean

GOIENA eta *Puntua* aldizkariak *Goiena.eus*-en ere irakur daitezke. Azkena, Goiena Klubeko bazkideek bakarrik. Baina larrialdi egoeran gaudenez geroztik, *Puntua* ere doan irakur daiteke bazkide ez izan arren. "Oraindik egoera ez da normalizatu eta aste batzuetan edozeinen eskura izango da *Puntua* ere Interneten", dio Iban Arantzabalek. *Puntua* etxean jasotzeko Goiena Klubeko bazkide egin behar da –943 25 05 05 telefonoan–. 56 euro dira urtean, 45 zenbakiren eta "beste hainbat abantailaren" trukean.

KORONABIRUSA, OSPITALETIK
GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA
MAIATZAREN 13AN, EGUAZTENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
ARRASATEKO OSPITALEKO LANGILEEN BIZIPENAK
goiena
Zu hemen zaude.